

**DERECHOS
HUMANOS
Y EDUCACIÓN**

**Retos de una nueva
sociedad**

**GIZA
ESKUBIDEAK
ETA HEZKUNTZA**

**Gizarte berri baten
erronkak**



Xabier Etxague y Arkaitz Lareki (Coords.)

**Esther Cruz, José Francisco Amiama, Joxe Jiménez, Alberto
Fernández, Eduardo Fernández, José Miguel Gutiérrez, Jon
Altuna y Pío Pérez**



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Azaleko argazkia /Fotografía de portada:

Beatriz Carramolino Arranz



Lan hau Creative Commons Atribución – No Comercial – Sin Derivar 4.0 Internacional lizentziapean dago.

Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Atribución – No Comercial – Sin Derivar 4.0 Internacional.

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-979-0

Aurkibidea (euskara)

Hitzaurrea <i>X. Etxague eta A. Lareki</i>	7
Giza Eskubideak eta gaitasunak derrigorrezko hezkuntzan: zeharkakotasunetik lantzeko proposamena. <i>E. Cruz</i>	13
Giza Eskubideak eta adimen-urritasuna duten pertsonak: Ordiziako Garaguneko esperientzia bat. <i>J. F. Amiama</i>	27
Begirada bat Euskal Herriko haurrentzako eta gazteentzako aisia hezigarriari. Etengabe eraikitzen ari den eskubidea. <i>J. Jiménez</i>	39
Informazioa eskuratzeko eskubidea landako eskoletan eta eskola unitarioetan. <i>A. Fernández</i>	55
Gazteak sare sozialen bidez gizalegez sozializatzeko teoria politikoa helburu. <i>E. Fernández eta J. M. Gutiérrez</i>	73
Komunikatzeko eskubidea eta pribatutasun-eskubidea sarean: binomio kezkarria 14 urtetik beherako seme-alabak dituzten familientzat. <i>J. Altuna</i>	87
Arimaren sufrimendua lausatzeko bertsoak. <i>P. Pérez</i>	99

Índice (castellano)

Prólogo. X. Etxague y A. Lareki	119
Los Derechos Humanos y las competencias en la educación obligatoria: una propuesta de trabajo desde la transversalidad. E. Cruz.....	125
Derechos Humanos y personas con discapacidad intelectual: una experiencia del Garagune de Ordizia. J. F. Amiama	139
Miradas al ocio educativo infantil y juvenil en el País Vasco. Un derecho en permanente construcción. J. Jiménez.....	153
El derecho al acceso a la información en escuelas rurales y unitarias. A. Fernández	171
Hacia una teoría política de la socialización cívica de la juventud a través de las redes sociales. E. Fernández y J. M. Gutiérrez.....	189
El derecho a comunicar y el derecho a la privacidad en la red: un binomio que preocupa a familias con menores de 14 años. J. Altuna	203
Versos difuminadores del sufrimiento del alma. P. Pérez	217

GIZA ESKUBIDEAK ETA HEZKUNTZA

Gizarte berri baten erronkak

Koordinatzaileak: Xabier Etxague
Arkaitz Lareki

Egileak: Esther Cruz
José Francisco Amiama
Joxe Jiménez
Alberto Fernández
Eduardo Fernández
José Miguel Gutiérrez
Jon Altuna
Pío Pérez

HITZAURREA

Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, berdinak izanik duintasunari eta eskubideei begira; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senidetasunez jokatu behar dute.

(Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 1. artikulua, 1978)

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Nazio Batuen Erakundeak 1948ko abenduaren 10ean onartua, gizadiaren lorpen handienetako bat da arlo horretan. Nahiz eta ez duen eragin loteslerik izenpetu duten herrialdeentzat, erreferentzia da, eta izan da, legediak prestatzeko eta zenbait motatako hitzarmenak sinatzeko, bai naziokoak, bai nazioartekoak. Beste herrialde batzuetan bezalaxe, Espainiako 1978ko Konstituzioak Adierazpena aitortzen du 10. artikuluko 2. puntuan:

Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eta gai horietan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei begiratuko zaie.

Makina bat erakundek onartzen dute Adierazpena beren jardunaren tresna erregulatzailerik gisa eta erreferente etiko gisa. Jardun politikoan aipatzen dute, baita ministerioetako eta herri-administrazioetako edozein lan-arlotan ere. Baliteke askotan erreferentzia erretorikoa

bestarik ez izatea, baina zalantzarik ez dugu gizakion ekintzaren adierazpen oro arautzeko faktore etiko bat dela. Adierazpenak izena ematen dio pertsonen eta nazioen arteko bizikidetzarako beharrezkoa den gizarte-egiturari, eta idatziz jasotzen du.

XXI. mendearen hastapenetan, hezkuntzaren helburuak “gaitasunen” bidez adierazten dira. Jacques Delorsek (1996)¹ ezarri zuen lehenengo sailkapen unibertsaleko bat eskolan irakatsi beharreko oinarritzko gaitasunei buruz: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Gero, sailkapen labur hori garatuta, gaitasun horietako bakoitzetik zenbait azpigaitasun sortu dira. Baina sailkapen horren bertute handiena da, eta horregatik aipatu nahi izan dugu hemen, gaitasunetako bi oso lotuta daudela giza eskubideetan oinarritutako heziketarekin: elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Proposamen horretatik abiatuta, giza eskubideak eskolako curriculumean sartu dira gure inguruko herrialdeetan. Baina ez da proposamen erraza, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza ez baita testu bat “buruz” jakitea. Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren xedea da gai izatea, testu hori ezagututa, gogoeta kritiko bat egiteko, aukera emango diguna testuak agindutakoarekiko koherenteak diren balioak geureganatzeko, arauak idazteko eta jokabideak zein jarrerak garatzeko.

Amnesty Internationalen hitzetan²,

“Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza prozesu bat da, eta, haren bidez, norbanakoek giza eskubideen alde lan egiteko gaitasunak eta tresnak lortzen dituzte. Prozesu horrek giza eskubideen aldeko kultura globala

¹ Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Hezkuntzaren Nazioarteko Komisioaren txostena Unescoentzat XXI. menderako. Madril: Santillana/UNESCO

² Amnesty International: <http://www.es.amnesty.org/temas/educacion-en-derechos-humanos/que-es-la-educacion-en-derechos-humanos/> . 2014ko urtarrilaren 21ean kontsultatua.

sortzen lagunduko du, mundu osoan giza eskubideen aurkako urraketak prebenitzea eta desagerraraztea ekarriko duen kultura”.

Arlo horretan, “ekitera” bideratuko gaituen prestakuntza pertsonala nahi dugu. Ekin, bai gure jokabidea erregulatzeari dagokionez, bai gure inguruan ditugun pertsonetikiko interakzioari dagokionez. Ekimenak ez dira inoiz nahikoak izango; inoiz ez dugu egingo bidegabekeria erabat erauzteko behar beste ahalegin; baina justizia, zuzentasuna, elkartasuna eta errespetua areagotuko dituzten lorpen partzialak erdietsiko ditugu.

Gure ustez, hezkuntzak eginkizun garrantzitsua du pertsonen sozializazioan, hezkuntza formal eta arautuaren egituratik ez ezik, baita gogoeta eta etengabeko ikaskuntza erraz dezaketen bestelako hezkuntza-istantzia ez-formaletatik eta informaletatik ere.

Gizabanakoaren eskubideak eta eskubide pertsonalak zein diren eta horiek nola defendatu irakastea eta ikastea eta gainerakoen eskubideek nahiz komunitateko bizitzak ezartzen dizkiguten mugez jabetzea lan-arlo garrantzitsuak dira, eta botere politikoak, legegileak eta juridikoak sustatu egin behar dituzte, hezkuntza-jardueran finka daitezen. Zeharkako lan-ildoak da gizarte osoarentzat, eta pertsona guztiei bideratuta egon behar du bizitza osoan.

Testuinguru horretan jaio zen hezitzaileentzat giza eskubideei buruzko lan-mintegi bat sortzeko asmoa. 2003. urtearen inguruan ekin genion lanari, Francisca Arregui irakaslearen zuzendaritzapean eta hark bultzatuta (UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea). Gaur egun, Xabier Etxaguek koordinatzen du mintegia, eta ikastegi honetako pertsona askok laguntzen dute jarduerak garatzen.

2007ko martxoaren 8an Fakultateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen lankidetzak hitzarmena sinatu zuten, arlo honetako jarduerak

garatzeko hezitzaileentzat. Orduz geroztik, eta gaurdaino, hitzarmen hori indarrean izan da, nahiz eta aldaketak eta ñabardurak sartu dizkioten berri duzutenetan. Urte hauetan, zenbait alderdi politiko izan dira Gipuzkoako Foru Aldundian, zenbait talde, eta guzti-guztiek izan dute elkarlanerako jarrera. Eskertu egin nahi dizkiegu erakutsitako sentiberatasuna eta eskainitako laguntza. 2014rako aurreikusita dago diru-laguntza zertxobait txikiagoa izatea lehen hitzarmenean jasotakoa baino. Baina ez gara kexu, inondik ere. Jakin badakigu krisi ekonomiko larrian murgilduta gaudela eta krisi horrek eragina duela gizarteko alor guztietan, ez dela erraza lehentasunak ezartzea diru gutxi dagoenean eta hitzarmena mantentze hutsa oso garrantzitsua dela.

Hitzarmen horri esker, prestakuntzako mintegi eta eztabaidako jarduera ugari egin ahal izan ditugu, eta dibulgaziozko material asko argitaratu. Neurri txikiagoan, bestelako jarduera batzuk ere gauzatu ahal izan ditugu, antzerki-emanaldiren bat edo filmazioren bat, besteak beste. Mintegietan askotariko gaiak jorratu ditugu: giza eskubideen historia, zuzenbide-esparrua, giza eskubideak eta hezkuntza, immigrazioa, herritartasuna, generoa, demokrazia, garapenerako hezkuntza, hizkuntza-eskubideak, haurtzarora, zahartzarora, bidaidetik gabeko adingabeak, inklusioa eta hezkuntza, lanerako eskubidea, gizarte-sareak, etab.

Liburu hau hitzarmen horren emaitza da. Bertan, 2012-2013 ikasturtean barrena izandako lankidetzak batzuk jaso ditugu. Lehen kapituluan, Esther Cruzek derrigorrezko hezkuntzako eskola-curriculumeko oinarriko gaitasunen eta giza eskubideen arteko lotura azalduko du. Hau da, giza eskubideek derrigorrezko hezkuntzan zernolako tokia duten aztertzeak aukera emango digu. Bigarren kapituluan, José Amiamak eguneko zentro bateko erabiltzaileei giza eskubideen arloan eskainitako prestakuntzari buruzko esperientzia bat kontatuko digu. Prestakuntza horren xedea da kontzientzia kritikoa sustatzea eta bizi-baldintzak hobetzen laguntzea, bai indibidualak, bai

kolektiboak. Hirugarren kapituluan, Joxe Jiménezek aisiaren eta giza eskubideen arteko erlazioa aztertuko du, baita erlazio horrek hezkuntzako teorian eta jardunean dituen ondorioak ere. Laugarren kapituluan, Alberto Fernándezek informazio-eskubidearen berri emango digu, eta azaldu egingo digu informazioaren eta komunikazioaren teknologiek zer-nolako balioa duten eskubide horren bermatzaile gisa, batik bat landako eskoletan eta eskola unitarioetan. Bosgarren kapituluan, Eduardo Fernándezek eta José Miguel Gutiérrezrek errealitate birtualak nerabeen eta gazteen herritar-nortasuna eraikitzeke garaian oso eginkizun garrantzitsua dutela azalduko digute. Seigarren kapituluan, Jon Altunak azertu egingo du seme-alabek (haur zein nerabe) interneteko zerbitzuak erabiltzean guraso askorengan sortzen den egoera gatazkatsua, zenbait sare eta programa arriskutsuak eta pribatutasunik gabeak izan baitaitezke erabileraren arabera. Azken kapituluan, zazpigarrenean, Pío Perezek Espainiako gerra zibileko sufrimendua jasotzen du ikuspegi historiko eta antropologikotik, Joxe Zapirainen bertsoen bitartez.

Giza eskubideak garapen indibidualerako nahiz kolektiborako oso garrantzitsuak direla argi erakusten digun errealitate garbi eta hurbilekoari buruzko hainbat ikuspegi, esperientzia eta interpretazio.

Irakurketa atsegina izatea espero dugu.

Xabier Etxague eta Arkaitz Lareki

GIZA ESKUBIDEAK ETA GAITASUNAK DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN: ZEHARKAKOTASUNETIK LANTZEKO PROPOSAMENA

Esther Cruz Iglesias³

Sarrera

Kapitulu honetan, egungo oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoaren funtsezko bi alderdi lotzen saiatuko gara: oinarrizko gaitasunak, hezkuntzari buruzko indarreko legedian ezarriak, eta giza eskubideak. Egiaz, pentsa genezake giza eskubideak aintzat hartu dituztela derrigorrezko hezkuntzako oinarrizko gaitasunak proposatzeko eta, hortaz, curriculumean ageri direla lehenengo eskolatzeko-mailetatik; baina azter dezagun zein diren derrigorrezko hezkuntzako oinarrizko gaitasunak, horietako zein elikatzen diren funtsezko giza eskubideez eta nola lantzen diren curriculumean.

Europako testuingurutik eta ELGAko⁴ kide diren herrialdeek prestatutako DeSeCo⁵ proiektuan proposatutako funtsezko gaitasunetatik abiatuta, oinarrizko gaitasunak derrigorrezko hezkuntzako curriculumean sartzeko berrikuntza garrantzitsua izan zen, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoak (LOE) gauzatu zuena. Gero, autonomia-erkidego bakoitzak bere curriculumak prestatu zuen, aipatutako legea oinarri hartuta.

Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Curriculumak Sortu eta Ezartzekoan (martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatua), eta 1513/2006 eta 1631/2006 Errege Dekretuetan, ezarrita ageri dira Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxienezko irakaskuntzak. Ikasleek eskuratu beharreko gaitasun multzo batean zehaztuta daude, eta gaitasun horiek

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

⁴ Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea (OECD, ingelesezko siglak, eta ELGA, euskarazkoak)

⁵ Gaitasunak definitzeko eta hautatzeko proiektua (DeSeCo, Definición y selección de competencias).

Oinarrizko Hezkuntzako prozesu oso-osoa bideratzeko balio duten erreferentziako ardatz nagusiak dira.

Horrez gainera, 175/2007 Dekretuan zehaztuta dator oinarrizko gaitasunen definizioa: “Jakintzen, trebetasunen, jarrerren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiak xedetzat izan eta lortu behar dituztenak pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”. Definizio hori lagungarria zaigu curriculumean definitutako gaitasun bakoitzak berekin zer dakarren ulertzeko.

Oinarrizko gaitasunak	Helburuak	Curriculumeko arloak
a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.	1.- Arduraz bizitzen ikastea.	- Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera.
b) Ikasten ikasteko gaitasuna.	2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea.	- Arte Hezkuntza.
c) Matematikarako gaitasuna.	3.- Komunikatzen ikastea.	- Gorputz Hezkuntza.
d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.	4.- Elkarrekin bizitzen ikastea.	- Gaztelania eta Literatura.
e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.	5.- Pertsona gisa garatzen ikastea.	- Euskara eta Literatura.
f) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.	6.- Egiten eta ekiten ikastea.	- Atzerriko Hizkuntza.
g) Giza eta arte kulturarako gaitasuna.		- Matematika.
h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.		

1. taula. Oinarrizko gaitasunak, helburuak eta jakintza-arloak

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak 1. taulan ageri diren oinarrizko gaitasunak, helburuak eta curriculumeko arloak hartzen ditu barne.

Hiru alderdi horiek (gaitasunak, helburuak eta arloak) elkarri lotuta daude, eta ikasgeletan eskaintzen diren irakasgaietan zehazten dira.

Oinarrizko gaitasunen artean, badira zenbait zeharkakoagoak, hala nola ikasten ikasteko gaitasuna, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. Beste batzuek, berriz, lotura zuzenagoa dute curriculumeko arlo edo gai jakinekin, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunak, matematikarako gaitasunak eta giza eta arte-kulturarako gaitasunak, besteak beste (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Saila, 2013)⁶.

Legeak ezarritakoa abiapuntutzat hartuta, zeharkako izaera duten gaitasunak izango ditugu ardatz nagusi giza eskubideak lantzeko. Zer esan nahi du, baina, gaitasun bat zeharkakoa izateak? Zeharkako gaitasunak ikasleen garapen pertsonal eta sozialarekin lotutakoak dira. Jardun profesionaleko eta akademikoko eremu guztietan daude, eta horregatik landu behar ditugu jakintzaren arlo edo esparru guztietatik. Zeharkako gaitasunek zerikusia dute gizarteak hezkuntza-sistemari egiten dizkion eskaerekin, eta, ondorioz, baita sistema horretan heziketa eskaintzen eta jasotzen duten pertsonen egiten dizkien eskaerekin ere.

Eta zer eskatzen dio gizarteak hezkuntza-sistemari? Nolako pertsonak heztea nahi du? Gaur egun, informazioaren eta komunikazioaren aro berrian, gizarteak mundu aldakor honetan konplexutasuna eta ziurgabetasuna kudeatzeko gai izan daitezela eskatzen die ikasleei, eta ikaskuntza autonomoa erraztuko dien hizkuntza informatikoa erabiltzen jakin dezatela. Gaitasun horiez gain, gizarteak prestakuntza

⁶ <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/es/>

zabala eta oinarrizkoa eskatzen dio hezkuntza-sistemari, balio etikoetan, ohituretan eta jarreretan oinarritutako prestakuntza eta alderdi humanistikoak, zientifikoak eta teknologikoak barne hartuko dituen. Eta, noski, pertsonen arteko harremanak sustatu beharko ditu, ikasleek taldean lan egiten ikasteko eta erakundeetan nahiz gizartean modu arduratsuan eta demokratikoan parte hartzeko.

Oinarrizko gaitasunetatik abiatuta, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumeko 8. artikuluan definituta datoz 1. taulako sei helburuak, esplizituki barne hartzen dutenak giza eskubideei begirako errespetua. Baina helburu horiek curriculumeko arloetan garatu behar dira, eta oinarrizko gaitasunak landu ere bai.

Esparru teorikoa giza eskubideak aintzat hartzeko diseinatuta dago. Hain zuzen, elkarrekin bizitzen ikasteko edo arduraz bizitzen ikasteko helburuetan inplizitua dago besteenganako errespetua arraza, sexua edo maila sozioekonomikoa kontuan hartu gabe. Baina, zeharkako edukiei dagokienez, horiek ikasgelan jakintza-arloetan lantzea izaten da zailena. Izan ere, zaila da horrelakoak “irakasgai tradizionaletan” sartzea.

Sarri, tutoretzako orduetan lantzen dituzte giza eskubideak; baina, ez direnez ordu horietan landu beharreko eduki bakarrak, ordu kopuru murriztuz hori ez da nahikoa izaten. Horrez gainera, giza eskubideak lantzeak berekin dakar etengabe praktikan jartzea ikasitako alderdiak, eta, hortaz, curriculum osoan dute eragina, landu beharreko gaia edozein dela ere.

Baina Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte ez da ageri Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza⁷ izeneko irakasgaia (astean ordubetez eskaintzen da 6. mailan), eta egoera horrek geure buruari zenbait galdera eginaraztera garamatza: nahikoa al da giza eskubideak irakasgai bakar batean lantzea Lehen Hezkuntzako azkeneko mailan?

Erantzuna argia da: ez. Ikastetxe askotan ez zaie nahikoa iruditzen, eta giza eskubideak irakasgai askotan lantzen dituzte aurreko mailetan. Arazoa da normalean irakasleek nabarmentzen dituztela elkartasuna,

⁷ LOMCE legeak ekarriko dituen aldaketak aztertzea falta da.

askatasuna, besteenganako errespetua eta halako beste alderdi garrantzitsu batzuk, pertsonak osotasunean hezteko nahiak bultzatuta. Zoritxarrez, giza eskubideak ezin dira utzi irakasle batzuen asmo onaren mende. Hala izanik, ezin al dira zeharka landu ikasleak hezkuntza-sisteman sartzen direnetik?

Galdera horretan proposatutako ildoari jarraituta eta irakasgaien esparrutik haraindi, zenbait metodologia erabil ditzakegu, giza eskubideak ez mugatzeko une jakin batzuetara eta curriculumean sartzen laguntzeko. Metodologia horietako bat Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) da, eta gure testuinguruan garrantzitsuena, gizartean giza eskubideak errespetatuz bizitzeko ikaskuntzak lantzeko. Metodologia horri esker, gainditu egin daiteke tradizioz ezarritako irakasgaien esparrua, eta beste modu batean landu ezin litezkeen edukiak landu daitezke. Horrez gainera, ikasgelan talde heterogeneotan lan egiteak eta bizikidetzeta-plana, baterako hezkuntza lantzeko planak edo antzeko ikastetxe-planak garatzeak erraztu egin dute giza eskubideen edukiak ikastetxeetako eguneroko martxan sartzea.

Garrantzitsua izango litzateke giza eskubideak ikasgeletako eguneroko lanean ez ezik ikasleen ebaluazioetan ere sartzea, ebaluatzen ez dena curriculumetik kentzeko joera baitago.

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (POI) metodologia erabiliz giza eskubideak curriculumean zeharka lantzeko, tradizioz ezarritako irakasgaien esparrua gainditu behar dugu; baina eskura al daitezke gaitasun guztiak, espezifikoak nahiz zeharkakoak, irakasgai bakoitzerako ezarritako ordutegia zorrozki bete gabe? Jarraian, ikasleek legedian ezarrita dauden oinarritzko gaitasunak nola eskura ditzaketan argitzen saiatuko gara.

Zeharkako gaitasunak garatzeko, diziplina guztien arteko elkarrizketa sustatu behar da, eta diziplinez haraindiko lan-metodologia abian jarri (Perrenoud, 1997). Horretarako, irakasleek koordinazioko lan handia egin behar dute, bai horizontalki, bai bertikalki. Horrek esan nahi du

gaitasun espezifikokoak zein zeharkakoak lantzeko garaian ikasle talde batekin lan egiten duten irakasle guztiek alde aurretik adostu behar dutela talde horrek zer gaitasun eskuratu behar dituen dagokion hezkuntza-mailan.

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza diziplinaz haraindiko jarduna errazten duen hezkuntza-metodologia berrietako bat da, metodologia aktiboetan sartua, eta ikasleen interesguneak erabiltzen ditu haien arreta erakartzeko eta curriculumeko edukiak lantzeko. Baina zertan datza POI? Nola lan egiten da proiektuka? Zergatik izan daiteke tresna erabilgarria giza eskubideak lantzeko?

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan ikasleek errealitatean, ikasgelatik haraindi, aplikatu daitezkeen proiektuak antolatzen, ezartzen eta ebaluatzen dituzte (Blank, 1997; Dickinson, et al., 1998; Harwell, 1997; Galeana, 2002). Eredu horren jatorria konstruktibismoa da, hau da, Lev Vygotsky, Jerome Bruner, Jean Piaget, John Dewey eta beste psikologo eta hezitzaile batzuen lanetatik abiatuta garatutako korrante pedagogikoa.

Proiektukako ikaskuntza erronka handia da tartean dauden eragile guztientzat, baina oso tresna baliagarria da ikasleen auto-ikaskuntzako gaitasunak sustatzeko, lehen mailako laguntza eskainiz hauetarako (Galeana, 2002):

1. Jakintza-arlo guztien kontzeptu integratzailea sortzeko.
2. Beste kultura, hizkuntza eta pertsona batzuekiko errespetu-kontzientzia sustatzeko.
3. Pertsonen begirako enpatia garatzeko.
4. Hainbat motatako pertsonekin lan-harremanak garatzeko.
5. Diziplina-lana sustatzeko.
6. Ikertzeko gaitasuna sustatzeko.
7. Gauza berriak eraginkortasunez ikasteko tresna eta metodologia batez hornitzeko.

Azkenaldian, lan eta ikerketa ugari egin dituzte Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren gainean, eta zehazki definitu dute ikasleek zer urrats egin behar dituzten metodologia hori erabiliz aurreikusitako ikaskuntza gerta dadin. Zenbait azterlanen arabera, 10 urrats dira (Actualidad Pedagógica, 2013), eta beste batzuen arabera, berriz, 6 (Tippelt, R. eta Lindemann, H. 2001), baina guztietan ageri dira lau fase hauek: hasiera, plangintza, gauzatzea eta amaiera. Hasierako fasean, ebatzi beharreko galdera eragilea egiten da, eta proposatutako testuinguruaren beharren azterketa abiarazten da. Plangintzako fasean, eman beharreko urratsak proposatzen dira, eta gaia ikertzen da. Urrats bakoitzean erabakiak hartu behar dira, eta dena txosten batean jaso. Gauzatzeko fasean, ekintza experimental eta ikertzaileak lehentasuna du. Modu sortzailean, autonomoan eta arduratsuan jarduten da, eta azertu egiten da jarduna. Proiektuko kide bakoitzak bere lana gauzatzen du, adostutako plangintzaren edo lanbanaketaren arabera. Amaierako fasean, txostena aurkeztu, eta ebaluatu egiten da. Ebaluazioan ezin da emaitza bakarrik hartu kontuan, prozesua bera emaitza bezain garrantzitsua baita, edo garrantzitsuagoa.

Zenbait irakasgaireren artean ere lan egin daiteke proiektua, eta aukera horrek erraztu egiten du edukien integrazioa. Eskuarki taldean lan egiten da, eta, ondorioz, errazagoa da zeharkako gaitasun asko abiaraztea.

Nolanahi ere, gure hezkuntza-sisteman gaitasunen bidezko ikaskuntza lantzen ari gara, eta ikasleek horiek erdiesteko ezin gara oinarritu irakaskuntza teorikoetan bakarrik. Gaitasunak eskuratzeko beharrezkoa da horiek praktikan jartzea errealitatetik ahalik eta hurbilen dauden testuinguruetan, eta POIk testuinguru horiek sortzen laguntzen du. Adibide gisa, esan genezake besteak errespetatzen ikasteko ez dela nahikoa *errespetu* hitzaren esanahia ezagutzea, beharrezkoa dela besteak errespetatzea. Errespetatu behar izateko, ikasleak taldeka bil daitezke, baterako proiektu bat presta dezaten. Helburu bera lortzearren elkarrekin ados jartzeko nahitaez jarri beharko dute praktikan elkar errespetatzeko gaitasuna.

Ikasgelako taldekatzeak

Ikasgelako taldekatzeek ere baldintzatzen dute zeharkako gaitasunak eskuratzea. Ikasleak irakasleen aurrean jartzen baditugu banakako ikasmahaietan, zaildu egingo dugu, esaterako, taldean lan egiteko gaitasuna lantzea, edo ez dugu erraztuko. Aitzitik, ikasleak lauко taldetan banatzen baditugu (bi beste biren parean jarrita), taldearen komunikazioari mesede egingo diogu, eta, hortaz, taldean lan egiteko gaitasuna lantzen lagunduko dugu.

Ikasgelako taldekatzeak aldatuz joan dira denboran barrena, irakasleen eta ikasleen rola aldatuz joan diren heinean. Ikuspegi tradizional jakin baten ideia nagusia ikaskuntza homogeneousatzailea eta ustez berdintasunezkoa zen, eta, horren harira, ikasmahai bakartuak ipintzen zituzten ikasgelan, aurrera begira, irakasleari begira, hura baitzen ezagutza guztiaren jabe eta ikasleek arretaz begiratzen baitzieten modu pasiboan ikasteko.

Gaur egungo joera da ikasleak beren ikaskuntzaren subjektu aktibo izatea eta irakasleak, berriz, ezagutzen bideratzaileak, ikasleen beharren zerbitzura jarduten dutenak. Ikasgelaren banaketa dagoeneko ez da lineala, indibiduala eta norabide bakarrekoa; ikasleak taldeka biltzen dira, 4 edo 5 pertsonako taldetan, mahaiak zirkuluan jarrita, taldeko lana erraztearren. Zenbat eta heterogeneoagoa izan lan-taldea, orduan eta etekin handiagoa atera diezaiekegu ahalmen indibidualei taldearen mesederako. Taldeek ez dute zurrnak eta aldaezinak izan behar, malguak eta dinamikoak baizik, horrek ikasle guztiek parte hartzea eta aniztasunari erantzutea ahalbidetuko baitu. Taldekatze malguak antolamenduko eta curriculumeko estrategia egokia dira ikaskuntza-erritmo guztiei eta ikasleen interesen nahiz ezaugarrien aniztasunari erantzun ahal izateko, aukera ematen baitute arreta egokiagoa eskaintzeko banakako eskubideei zein taldearen eskubideei.

Zeharkako gaitasunak nagusiki taldean garatzen direnez, taldekatze mota horrek neurri handian errazten du horien lanketa, baita oinarritzko giza eskubideak errespetatzen dituen gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarena ere.

Baina proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaz eta ikasgelako taldekatzeez gain, badira giza eskubideen gainean lan egitea errazten duten beste zenbait elementu ere: ikastetxe-planek (bizikidetzako eta eskola inklusiboko plana) eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak (IHP) ezartzen dute zeharkako gaitasunen esparru arauemailea, eta zentzua ematen diete, ikastetxe barruan, 175/2997 Dekretuan proposatutako helburuei (aurretik aipatutako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarritzko Hezkuntzako Curriculumak Sortu eta Ezartzekoa).

Ikastetxe-planak

Eskola-sare publikoko derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxe guztiek dituzte: batetik, eskaintzen dituzten irakaskuntzen curriculum-garapenaren informazioa ematen duten dokumentuak (Ikastetxeko Curriculum Proiektua, ICP); bestetik, ikastetxearen filosofiaren berri ematen duten dokumentuak (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, IHP), nola ikastetxearen hezkuntza-ereduaren berri ematen dutenak, hala kudeaketako araudiaren berri ematen dutenak (Antolamenduko eta Funtzionamenduko Araudia, AFA). Dokumentu horietatik guztietatik, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) izan daiteke lagungarrien giza eskubideak lantzeko, dokumentu horretan baitago ezarrita ikastetxearen nortasuna eta bertan baitago jasota zer-nolako pertsonak lortu nahi ditugun eskainitako prestakuntzarekin.

Dokumentu horiez gain, Eusko Jaurlaritzak zenbait plan eta proiektu sustatzen ditu ikastetxeetan, eta, ikasturte honetarako (2013-2014), hauek dira haren lehentasunezko jardunak hezkuntzaren arloan: curriculumak eta gaitasunak, eskola inklusiboa eta bizikidetzak, hezkuntza hirueleduna, informazioaren teknologiak eta gaitasun zientifikoak. Ikus dezakegunez, aipatutako eremuetatik bik lotura hertsia dute giza eskubideekin, eta sakonago aztertuko ditugu. Bizikidetzak-plana eta eskola inklusiboa dira.

Bizikidetza-plana

Hezkuntza-sistema beti izan da eta izango da inguruko gizartearen isla, eta beti izan du garai bakoitzean nagusi diren balio politikoak, erlijiosoak eta sozialak erreproduzitzeko eginkizuna.

Eusko Jaurlaritzak (85/2009 Dekretua) badaki bere hezkuntza-sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratikorako hezkuntza sustatu behar duela, justizia, tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta antzeko beste balioetan oinarrituz hezita; hezkuntza-sistemak, halaber, herritar gisa dituzten betebeharrak onartzeko eta eskubideak erabiltzeko behar dituzten gaitasun guztiak garatu behar ditu ikasleengan, bai gaitasun pertsonalak, bai harremanerako gaitasunak.

Zaitegik (Arartekoa, 2009) proposatu du, hezkuntzako helburu gisa, eskola sozializazio akritikotik haragoko espazio hezitzaile integrala izatea, elkarrekin bizitzen ikasteaz gain.

Baina bizikidetza-planak eskolaren esparrua gainditu behar du. Ramón López Martínek (2003) adierazten duenez, “askatasuna, elkartasuna, berdintasunaren aldeko borroka, giza eskubideei begirako errespetua eta halako beste giza balio batzuk edo elkarrizketa, tolerantzia, partaidetza eta antzeko printzipio pedagogikoak oinarri hartuta hezteak ezin du euste-hormarik izan”. Kontua da ardatza eskolan duen eredu eksklusiboa alde batera uztea eta guztiek parte hartzea gure gizartearen eskaera ugariei erantzuteko. Bide horretatik bakarrik lortu ahal izango ditugu bizikidetza eta giza eskubideei begirako errespetua.

Eskola inklusiboa

Eskola inklusiboa sustatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hezkuntzaren arloan egindako apustu garrantzitsuenetakoa bat da. Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumari buruzko Dekretuak ezarri zuen ikasle guztiek oinarrizko gaitasunak eskuratu behar dituztela eta, horretarako, beharrezkoa da ikasle bakoitzak bere ahalmenak ahalik eta gehien garatuko dituela bermatuko duten ekimenak abiaraztea.

Ildo horretatik, eskola inklusiboarentzat lehenetsuzkoa da ikasle guztiak testuinguru berean hartzea eta zenbait baliabide erabiltzea ikasle guztiek ikasteko aukera berberak izan ditzaten, *a priori* izan ditzaketan zailtasunak edo desberdintasunak kontuan hartu gabe.

Eskola inklusiboaren aldeko apustua garrantzitsua da gure gizartean eskola-garaitik sor daitekeen diskriminazio edo giza eskubideen urraketa oro desagerrarazteko. Aniztasunari arreta berezia eskainita eta ikasgela arruntetan tokia eginda (hainbat baliabide erabiliz ikasle bakoitzaren maila akademiko hoberena lortzeko), diskriminaziorik eza sustatzen dugu, baita ikasle guztiek taldeko edo ikasgelako kide direla sentitzea ere, eta, geroago, komunitateko kide direla. Eskolatze-aldiaren hasieran normalizatu behar da ikasle bakoitzak gizaki gisa duen ahalmenari erantzuteko eta ahalmen hori sustatzeko behar dituen baliabideak jasotzea, eta garai horretan irakatsi behar dira besteenganako errespetua, tolerantzia, askatasuna eta diskriminaziorik gabeko elkartasuna.

Azken gogoetak

Kapitulua amaitzeko, gogoeta merezi duten zenbait alderdi nabarmentzea komeni da. Batetik, oinarriko gaitasunak POI edo antzeko metodologia aktiboen bidez landuz gero, errazagoa da giza eskubideen gainean lan egitea eta arlo horretan eskuratutako gaitasunak abian jartzea. Gainera, lan hori talde malgu eta dinamikoetan eginez gero eta bizikidetzaren planekin nahiz hezkuntza inklusibokoekin babestuz gero, ikasleak modu integratuean garatzea lortuko dugu, gizartean bizitzen ikastea eta mundu aldakor honetan pertsona gisa garatzeko behar dituzten gaitasun espezifikoak nahiz zeharkakoak erdiestea.

Bestetik, kontuan hartu behar genuke ebaluatzen ez den oro desagertu egin ohi dela curriculumetik, edo garrantzi gutxiago izaten duela. Giza eskubideak gaitasunetan, helburuetan eta irakasgai batzuetako edukietan jasota egonez gero, ebaluatu egingo dira, eta, hortaz, ikasgelan landu. Curriculumean esplizituki sartzen ez baditugu,

ikasgelatik desager daitezke, eta orduan ez dugu beteko gure ikasleak modu integralean hezteko konpromisoa.

Azkenik, eskerrak eman behar genizkieke orain arte giza eskubideak curriculumean landu beharreko alderdi oinarritzat hartu dituzten irakasleei, eta aintzat hartu behar genuke ez dela irakasleen borondate onaren mendeko gai bat, baizik eta ikastetxeen apustua, zeharkakotasunetik abiatuta, ikasleen hezkuntza integrala lortzeko.

Bibliografia

Actualidad Pedagógica (2013): Aprendizaje Basado en Proyectos en 10 pasos. 2014/01/02an kontsultatua. <http://actualidadpedagogica.com/aprendizaje-basado-en-proyectos-en-10-pasos/>

Ararteko (2006). *Convivencia y conflicto en los centros escolares* 2013/12/27an kontsultatua. <http://www.ararteko.net/webs/iextras/conflictos-ceneduc2006/conflictosceneduc2006C.pdf>

Ararteko (2009): *Los retos de las políticas públicas en una democracia avanzada*. ARARTEKOAREN jardunaldiak, 2009ko maiatzaren 19tik 22ra bitartekoak, hemen argitaratuak: <http://www.ararteko.net>

Blank, W. (1997). "Authentic instruction". W.E. Blank & S. Harwell (arg.), *Promising practices for connecting high school to the real world* (15.–21. or.). Tampa, FL: University of South Florida.

Dickinson, K.P., Soukamneuth, S., Yu, H.C., Kimball, M., D'Amico, R., Perry, R., et al. (1998). *Providing educational services in the Summer Youth Employment and Training Program .Technical assistance guide*. Washington, DC: U.S. Department of Labor, Office of Policy & Research.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Justizia Saila eta Kultura Saila (2004). *Educación para la Convivencia y la Paz en los centros escolares de la CAPV*. 2009/04/25ean kontsultatua.
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/es>
- Galeana de la O, L. (2002). Aprendizaje Basado en Proyectos. 2013/12/26an kontsultatua.
<http://dgcy.e.wordpress.com/2009/12/27/aprendizaje-basado-en-proyectos-dra-lourdes-galeana-de-la-o-universidad-de-colima/>
- Harwell, S. (1997). "Project-based learning". W.E. Blank & S. Harwell (arg.), *Promising practices for connecting high school to the real world* (23–28). Tampa, FL: University of South Florida.
- Hezkuntzaren Nazioarteko Komisioaren txostena Unescoentzat XXI. menderako (komisioburua: Jacques Delors) (1996): *La educación encierra un tesoro*. Madril: Unesco
- Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa.
- Perrenoud, P. (1997). « Programme des cours 1996-1997, Genève, enseignement primaire, Service du perfectionnement, 1996 ». *L'Éducateur*, 10. zk., 1997, 24.-28. or.
- Tippelt, R. eta Lindemann, H. (2007): El método de proyectos. 2014ko urtarrilaren 4an aterea hemendik:
http://132.248.239.10/cursos_diplomados/diplomados/basico/colima07/5_material_didactico/productos_didac/met-proy.pdf
- Vygotsky, L. (2000). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Buenos Aires: Biblioteca de Bolsillo (1978an argitaratutako lan originala).
- Zaitegui, N. (2000): "Herramientas para la gestión de la convivencia en el centro". *Organización y gestión educativa*, 4, 21-31.
- 1513/2006 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Irakaskuntzak Ezartzekoa.

1631/2006 Errege Dekretua, Bigarren Hezkuntzako Oinarrizko Irakaskuntzak Ezartzekoa.

175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma Sortu eta Ezartzekoa.

97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, 174/2007 Dekretua.

Esteka interesgarriak

<http://www2.elkarrekin.org/elk/elkarbizitzagida>

<http://www.defensordelpueblo.es/index.asp?destino=informes2.asp>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/es>

<http://www.berrikuntza.net>

GIZA ESKUBIDEAK ETA ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONAK: ORDIZIAKO GARAGUNEKO ESPERIENTZIA BAT

José Fco. Amiama Iburguren⁸

Sarrera

Pertsona guztiok bizi nahi dugu “gure bizitza”. Merezi duen kalitatezko bizitza. Baliteke batzuentzat ona dena beste batzuentzat ona ez izatea, denek ez baitauzkagu balio berberak eta pertsona bakoitza bakarra baita. Baina badira gizaki ororentzat oinarritzkoak diren zenbait alderdi. Bai alderdi horiek, bai alderdi pertsonalek, bizikalitatetzat ulertzen duguna osatuko dutenek, koherenteak izan behar dute giza eskubideekiko, bi kontzeptuak bereizezinak baitira. Eskubide horiek ezagutuz gero, gure bizitzan betetzen diren ala ez ikus dezakegu, eta horiek defendatzeko eta aldarrikatzeko ekintzak proposa ditzakegu; hau da, eskubide horiek ezagutzeak ahaldu egiten gaitu pertsona gisa.

30 eskubide horiek Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartu zituen 1948an. 2006an, Urritasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena onartu zuten, eta 30 eskubide horiek 23tan egokitu eta berrantolatu zituzten.

Artikulu honen xedea da Ordiziako Garagunean (Donostiako Goyeneche Fundazioarena) adimen-urritasuna duten pertsonen giza eskubideei nola heltzen zaien aurkeztea.

Goyeneche Fundazioa erakunde pribatua eta irabazi-asmorik gabekoa da, eta hamaika zentro ditu. Zenbait programaren bidez, eguneko arreta eskaintzen die adimen-urritasuna duten 225 helduri, zenbait adinetakoak eta laguntza-behar anitzak dituztenak (nagusiki, laguntza zabala). Lehen mailako herritarrak dira, eta eskubideak eta

⁸ Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea.



betebeharrak dituzte; hortaz, fundazioaren konpromisoa da talde horri babesa ematea ingurune naturaletan bizitza aberatsa izateko eta parte hartzeko, helburu pertsonalak lortzen lagunduz norbanakoan oinarritutako plangintza-eredu bat prestatuta eta abiarazita (Bizimoduaren Oinarrizko Plana).

Gaur egun, Ordiziako Garaguneak adimen-urritasuna duten 20 helduri eskaintzen die zerbitzua, arreta zuzeneko 3 profesionalek eta arduradun batek osatutako talde baten bidez.

Garagunean garatzen dituzten proiektu eta jardueretan banakako interesak eta taldekoak uztartzen saiatzen dira, eta horien guztien artean nabarmentzekoak dira bilerak (komunikaziokoak, planak prestatzekoak, kudeaketa-planekoa), batzarrak eta hobekuntza-batzordeak. Praktika etengabeari esker, egunez egun, pertsonak ahaldunduz joatean dira, duintasundun subjektuak direla ohartzen direlako, eta etengabe aztertzen dituzte bizikidetzaren errazten edo eragozten duten gakoak.

Foro horietako bat, eta eskubideen gaineko lanaren ardatza, erabiltzaileen hobekuntza-batzordea da.

Politikak hausnartutako jardunekin batera doaz

Erakundearen organigraman, zentro arteko erabiltzaileen hobekuntza-batzordea dago, adimen-urritasuna duten pertsonen partaidetza zuzena sustatzeko foro gisa sortua. Gaur egun, urtean hiru aldiz biltzen dira zuzendaritzarekin. Batzorde horretan zentro bakoitzeko ordezkari batek parte hartzen du, eta hori arduratzen da erabiltzaile guztien kexak eta iradokizunak jasotzeaz. Zentro bakoitzean, erabiltzaileek biltzarrak egiten dituzte, eta aipatzen dute zerk funtzionatzen duen ondo eta zerk gaizki. Gaizki doanaren gaineko kexa bat edo hobekuntza-iradokizun bat proposatzen dute, eta zuzendaritzari jakinarazten diote. Eskema hori   piktogramekin sinbolizatuta dago, eta antolakuntzako zenbait mailatan erabiltzen dute. Oso barneratuta dago, eta komunikazio-zailtasun handienak dituzten

erabiltzaileek ere adieraz dezakete beren iritzia, piktograma seinalatuz edo hatz lodia gora edo behera begira ipiniz.

Izatez, proposamena interesgarria da, tartean dauden pertsonak erakundean parte hartzea eta ahalduntzea sustatzen baitu, baina, Ordiziako Garagunearen kasuan, eskaera materialen zerrenda labur batera mugatuta zegoen. Zerrenda horretan, kexa bat nabarmentzen zen: “Furgoneta berria behar dugu”. Eskaera erabiltzailereren batek egiten zuen, eta beste batzuek baieztatu egiten zuten buruaz edo hatz lodiaren keinuaz.

Garaguneko profesionalentzat frustragarri samarra zen erabiltzaileek “eskaera batzuetan eskasak, errepikatuak eta egunero erabiltzeko baliabide materialetara mugatuak” aldarrikatzen zituztela ohartzea. Ba al zekiten adimen-urritasuna zuten pertsona haiek beren bizimodurako garrantzitsuagoak ziren gauzak eska zitzaketela? Galdera horren gaineko gogoeta izan zen hemen azalduko dugun esperientzia zuzentzen duen printzipioaren jatorria. Honako hau da, laburbilduta: bizimodua hobetzeko aldarrikapenak egin ahal izateko, zer eskubide dituzten jakin behar dute. Zer eskubide dituzte?

Giza eskubideak eta adimen-urritasuna duten pertsonak

Garaguneko profesionalek (eta ez erabiltzaileek eta beren hobekuntza-batzordeak) antzemandako beharra definitu ostean, proiektua nola gauza zitekeen pentsatzen hasi ziren. Argi zeukaten aldarrikapen berriak eskakizun- eta konplexutasun-maila handiagokoak izan zitezkeela.

Interneten eta urritasunaren arloko foro nahiz entitateetan giza eskubideei buruzko bilaketak egin zituzten. Zenbait eskubide-gutun, gidaliburu, eskuliburu eta dokumentu aurkitu zituzten. Giza eskubideei buruzko 1948ko Adierazpenaz gain, beste hiru material haiek izan dira jardunbide egoki honen oinarri:

1. “Urritasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena”, 2006koa.

2. Kolektibo horrekin eskubide horiek lantzeko gidaliburu egokitu bat, *Defendemos nuestros derechos en el día a día* izeneko. Adimenu-urritasuna edo garapen-urritasuna dutenen eta haien familien eskubideak defendatzen dituen herritarrei irekitako mugimendu asoziatiboak (FEAPS) argitaratua. Dokumentu horretan, honako hau dator jasota, hitzez hitz: “Ez dago bizi-kalitaterik eskubiderik gabe” (7. or.). Eta Garaguneko profesionalak bat datoz baieztapen horrekin. Materialak talde horrentzako eskubideei buruzko laburpen erraz eta erabilerraz bat dauka, eta erabiltzaileekin eskubide horiek lantzeko fitxak. Formatu hau du: (1) Titulua: eskubidearen izena, azalpen labur bat eta irudikatzen duen marrazki bat ditu. (2) Esperientzia: adimenu-urritasuna edo garapen-urritasuna duen pertsona batek eskubidearekin lotutako egoera bat kontatzen du. (3) Ondorioak: kontatutako egoerari buruz gogoeta egitera eta gero zer gertatu ahal izan den pentsatzera gonbidatzen du (pertsonarentzako ondorio onak edo txarrak). (4) Beste adibide batzuk: urritasunen bat duten pertsona gehiagok iritzia ematen dute eskubideari buruz, edo beren esperientzia kontatzen dute. (5) Zer egin dezakezu zuk?: galderaren bat proposatzen da, nork bere egoeraren gainean gogoeta egin dezan (FEAPS, 21. or.).

Bi material horiek izan dira esperientzia honen ardatz teorikoa; baina, Ordiziako zerbitzuko erabiltzaile gehienek ulermen-maila baxua dutenez, ez dute erabili gidaliburu honek proposatutako segida metodologikoa, beste bat baizik.

3. Hirugarren materiala Youtubeko bideo-bilduma bat da, giza eskubideak islatzen dituzten bideoena (edo horien gabezia). Baliabide horrek eskubide bat zehazki nola planteatu jakiteko arrastoak eskaintzen dizkio saioaren bideratzaileari, eta, gainera, aukera ematen dio saioa landu beharreko eskubideak hobeto ulertzen lagun dezaketen bideo laburrak oinarri hartuta antolatzeko. Bideo gehienak “Youth for Human Rights International” sailekoak dira. Sail hori hezkuntzaren arloan erabiltzeko sortu zuten, gazteei irakasteko zer diren eskubideak, zergatik diren garrantzitsuak eta nola lagun dezaketen beraiek eskubide horiek egia bilakatzen munduko edozein tokitan.

Beste kasu batzuetan, Interneten erraz aurki daitezkeen bideoak hautatu dituzte, marrazkitan eta formatu sinpletan oinarritutakoak, oso grafikoak izanik ulertzeko arazo gutxiago ematen dituztenak.

Argiagoak eta funtzionalagoak dira urritasunen bat dutenek eskubidea ulertzeko.

Irisgarritasunerako eskubidea: Ordiziako Garagunean egindako saioaren segida

Saioa hasteko, eskubide bat hautatu behar da. Saioa bideratzen duen profesionalak batzuetan eskubide bat baino gehiago proposatzen du, erabiltzaileek bat hauta dezaten, edo bileran bertan edo aurretik kezka edo gatazka sorrarazten duen egoeraren bat adierazten da, eta hura eskubideren batekin lotzeko aukera aztertzen da. Esaterako, pertsona bat oso urduri jartzen da medikuarenera joan behar duelako; bada, egoera hori aprobeztatzen da osasun-eskubidea lantzeko. Beste pertsona batek botoa eman nahiko luke, baina ezin du, eta ez du ulertzen zergatik; bada, hortik abiatuta, bizitza politikoan eta publikoan parte hartzeko eskubidearen gaineko hausnarketa egiten da.

Eskubidea hautatu ostean, prozesu hau egiten da: saioaren urratsak aipatzen dira, eta zer egingo den eta zer arau izango diren azaltzen da. Gero, eskubidea eta haren definizioa irakurtzen dira, aurretik aipatutako dokumentuetan jasota dagoen moduan. Ondoren, bideratzaileak alde aurretik aukeratutako bideo labur bat aurkezten du, non islatuta ageri den irisgarritasunaren ideia. Hirugarren eta laugarren urratsek eskubidearen ulermenarekin eta balorazioarekin dute lotura; eta, azkenik, eskubidea erabiltzaileen bizitzarekin lotzen da, eta bildu egiten dira haien ekarpenak, kexak, etab.

0. Bileretan parte hartzeko jarrera eta arauak

Bileran nahi duen erabiltzaile orok parte hartzen du (hamar erabiltzaile, batez beste), edozein izanik ere ahozko komunikazioko edo ulermeneko maila. Partaideen artean egoten da erabiltzaileen batzordeko ordezkaria. Pertsona horiek ohituta daude bilera askotan parte hartzen bi funtsezko arau ezagututa eta beteta: partaide guztiek bileran egotea erabakitzen dute (ez joatea aukeran izanik), hortaz, onartu egiten dituzte bizikidetzako arauak; eta, hitz egiteko, txandak errespetatu egiten dira, eta esku hartzeko lehentasuna dute adierazpen-zailtasun handien dutenek (gaitasun handiagoa dutenek laguntzaile

rola izaten dute, ideiak osatzeko, ñabardurak adierazteko eta kideei laguntzeko rola), eta gainerako partaideek beste guztiak bezala errespetatzen dituzte. Abiapuntuko printzipioa da pertsona guztiak baliozko subjektuak direla. Zenbait kasutan, pertsonaren presentzia hutsak du balio handia, denek ahalegindu behar baitute haren azalean jartzen eta haren ahotsa izaten iritzia adierazteko aukerarik ez badu.

1. Eskubideari buruzko aurretiko ezagutzak

Bilerak 45 minutu eta ordubete bitarte irauten du. Hasieran, dinamizatzailerak “irisgarritasunak” zer iradokitzen dien galdetzen die. Galdera horietan, hitz “jasoak” eta “arruntak” nahasten dira, funtsezko helburua baita taldekideek beren eskubideak argudioak emanaz aldarrikatzea beste testuinguru batzuetan ere, hala nola gizarte erakundeetako batzordeetan edo udaletxeetan.

Ildo horretan, erabiltzaile batzuk *inklusioa*, *diskriminazioa* eta halako beste hitz batzuk erabiltzen hasten dira, eta eurenganaturako diskurtso horrek kontzeptu ezezagunak ezagutzen laguntzen die, baita beren burua dakien pertsonatzat aitortzen ere, hots, prozesuan jarrera aktiboa hartuta zerbait irakatsi dezakeen pertsona gaitasunduntzat. Aurretiazko ezagutzen faseak motibatuzeko estrategia gisa balio du, eta gaia aurkezteko.

2. Eskubidea deskribatzea eta ulertzea bideo bat ikusita

Bigarren urrats gisa, bideoa ikusten da. Lehendik ere aipatu dugu bideoa laburra izaten dela. Kasu honetan, *Por cuatro esquinitas de nada* (3'03'') izeneko bideoa ikusi zuten, karratu baten istorioa kontatzen duena. Karratuak bere adiskide zirkuluekin egon nahi du, baina ezin du haien etxean sartu, ez delako ate biribiletik sartzen. Hasieran, karratua zirkulu bilakatzea da proposatutako irtenbidea, baina, hori ezinezkoa denez, planteamendua aldatzen dute: “- Ez du Karratuk aldatu behar, atea baizik”.

Bideoa ikusitakoan, narrazioari buruzko galderak egiten dira: denak zirkuluak dira?, zergatik ezin du Karratuk bere lagunekin egon?... Une honetan, erabiltzaile batzuek parte hartu ohi dute, iruzkinen bat eginez. Bideoa ondo ulertzeko eta erabiltzaile guztiek parte hartzeko, berriz ikusten da, baina zatika. Dinamizatzailerak galdera zehatzagoak

egiten ditu, eta erabiltzaileak istorioaren partaide bilakatzen ditu. Esaterako: "JM, gustatuko litzaizuke belarriak moztea zentrorra etorri ahal izateko, atea oso estua delako eta belarriak moztu ezean ez zarelako sartzen?" (aldi berean, belarriak mozteko keinua egiten du); denak batera ezezkoa erantzuten dute (eta JMk inork baino lehen).

3. Eskubide horrek nire bizitzan zer toki duen baloratzea eta aztertzea

Fase honetan, irisgarritasunerako eskubidearen ulermena erabiltzaileen bizitzetara bideratuko da, eta haien eguneroko martxarekin zerikusia duten galdera zehatzak egingo zaizkie. "K, orain badakigu irisgarritasun-eskubidea dela-eta "ateak moztu" behar direla. Esan, zu joan zaitezke bakarrik, zure aulki gurgildunean, zentro honetako edozein tokitara? (Galdera egingo zaio talde osoari, Kri dagokionez eta beste erabiltzaile batzuei dagokienez).

Hemendik aurrera, bideratzaileak lagunduta, eskubide horri lotutako egoerak agerian utziko dira, bai egoera egokiak (arazoak konponduz joan direlako), bai egoera desegokiak (oraindik konpondu ez direnak). Dinamizatzaileak "eskubideen koadernoan" jasoko ditu eskubide horri lotuta funtzionatzen duten eta funtzionatzen ez duten alderdiak, eta erabiltzaileen iritziak idatziz jasotako ekarpen garrantzitsu bilakatuko dira. Kren adibidean, kexa hau izan zen: zentroko komunetara sartzeko ate bat hain egokitua zegoen "legezko neurrira" ezen hatz koskorrak kolpatzen baitzituen ate alboekin atetik igarotzen zen bakoitzean. Espaloiak ez zirela behar bezain zabalak ere adierazi zuten, baita ibilgailu batzuek zebrabideetan eta bestelako arrapaletan aparkatzen zutela ere.

4. Aldaketa-proposamenak

Hau da saioaren azken puntua. Bertan erabakitzen da zer prozedura erabiliko den proposamenak gauzatzeko. Bi izaten dira bide ohikoena. Batetik, zentroen arteko erabiltzaile-batzordean landu beharreko gaitzat jasotzen dira, eta horixe zen, hain zuzen ere, esperientzia honen hasierako helburuetako bat (Garagunean bertan konpon badaiteke, ez zaio zuzendaritzari aurkezten).

Hobekuntza-proposamen bat baino gehiago izanez gero, erabiltzaileek, behar izanez gero lagunduta, erabaki egin beharko dute zein aurkeztu nahi duten erakundeak komunitateko edozein erabiltzaile, profesional, senide, entitate kolaboratzaile edo pertsonaren esku jartzen duen kexa eta iradokizunetarako formatuan.

Garaguneko erabiltzaileen ordezkariak dokumentu hori eramango du zuzendaritzarekin izango duen bilerara. Behar izanez gero, argazkiak, piktogramak eta abar ere eraman ahal izango ditu, kexa edo iradokizuna errazago aurkezteko.

Bestetik, erabiltzaile baten gai zehatz bat baldin bada, haren Bizimoduko Oinarrizko Planean sar daiteke, lortzeko helburu gisa (hori egiteko prozedura ez dago azalduta artikulu honetan).

Logikoki, hau ez da bilera horren azken xedea, Garagunearen asmoa erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea baita.

Giza eskubideak lantzea: banakako nahiz taldeko hobekuntza

Artikulu honetan bi ondorio nabarmendu nahi ditugu. Lehen, zentroan sortzen ari den eskubideetan oinarritutako kulturarekin lotua, berria ez izan arren gaur egun argiago dagoena eta erreferentzia gehiago dituen. Teoria sistemikoetatik badakigu aldaketa batek beste bat ekartzen duela. Hori dela-eta, adimen-urritasuna duten norbanakoen eskubideak lantzeak berekin dakar zentroko egunerokotasunean horiek kontuan hartzea. Lehen ondorio horrek lehendik aipatutako dokumentuetan ageri diren eskubideak hartzen baditu ardatz gisa, beste onurarik ere bada, erabiltzaile (eta profesional) orok bete beharreko eginkizunetatik eratorria; izan ere, batzuen eskubideek beste batzuen betebeharrak ekartzen dituztela ohartzeko balio du (Adib.: nire pribatutasun-eskubidea betetzeko, inork ezin du nire poltsa edo armairua begiratu nire baimenik gabe). Hori da norbanakoen eskubideak taldearen eskubidearekin uztartzeko modua. Jarraian, adimen-urritasuna dutenen giza eskubideetatik eratorritako bi ondorio horiek azalduko ditugu, Garagune honetan gauzatutako esperientzia zehatzen bidez.

a) Irisgarritasun-eskubidea Krentzat.

Aipatu dugunez, eskubide bakoitzari buruzko saioa amaitzean jasota geratzen dira partaideen eskaerak, kexak edo/eta iradokizunak. Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du horiei idatziz erantzuteko eta aurkeztutako arazoetako batzuk konpontzeko ekintzak abian jartzeko. Aurkeztutako eskaerak ez dira beti asetzen, edo ez, behintzat, berehala; batzuetan, kasua ebatzea ez dago erakundearen esku. Adibidez, autonomiaz bizitzeko eskubidea eta komunitateko kide izateko eskubidea oinarri hartuta, pertsona bat kexu da, ezin duelako liburutegira joan sarrera ez dagoelako egokituta. Zerbitzuak udaletxean aurkez dezake kexa, edo beste aukera batzuk aztertu (hurbil dagoen beste liburutegi batera joatea arazoa konpondu bitartean...), baina agian ez da berehala lortuko Garaguneko erabiltzaileak nahi duen emaitza.

Irisgarritasun-eskubidearekin jarraituz, eta “adierazpen-askatasuna, iritzi-askatasuna eta informazioa eskuratzeko askatasuna” aintzat hartuta, K-k parte hartu zuen komuneko sarrerak hobetzea eskatzeko prozesu osoan.

Profesional baten laguntzaz, K-k kexa bat prestatu zuen, eta Garaguneko ordezkariak erabiltzaileen batzordean aurkeztu zion zuzendaritzari. Zuzendaritzak sarbidea aldatzeko obra txiki bat egitea erabaki zuen. Behin sarbideen aldaketa onartuta, K-k aldagetaren arrazoia azaldu zion arotzari, eta bertan egon zen obra txiki hori egiten zuen bitartean.

Era berean, K udalerriko irisgarritasunari buruzko bilera batean izan zen udaletxean, zerbitzuko beste bi erabiltzailerekin eta bi profesionalekin. Lehen pertsonako gogoetez gain, espaloietan eta zebrabideetan dauden puntu beltzen argazkiak aurkeztu zituzten, batez ere gurpildun aulkian mugitzea eragozten dutenak. Ekarpen horiei eta beste herritar batzueni esker, udalak zenbait neurri hartu zituen.

Garagunean eta komunitatean izandako partaidetza aktiboak indartu egin du K, bai bere eskubideei begira, bai bere burua baliozko pertsonatzat hartzeari begira. Garai batean, ziurrenik desiragarritasun sozialagatik, dena ondo zegoela esaten zuen beti, buruaz bai eginez,

gauzatu beharreko jarduera edo laguntza emateko modua atsegin ez bazuen ere. Garai horiek atzean uzten ari da.

b) Guztien betebharrek norberaren betebharrak baldintzatzen dituzte.

Argi dago erabiltzaileekin giza eskubideetako bakoitza lantzea lagungarria zaiela norbanako gisa hazteko eta bizi kalitate hobea izateko, baita komunitatearekin harreman handiagoa izateko ere. Horrez gainera, eskubide horiez jabetuta, gatazkak hobeto ebazteko aukera izan dute Garagunean.

Jakina denez, gatazkak giza talde guztietan izaten dira, eta arazoa ez da gatazkak egotea, baizik eta horiei ahalik eta modu asertiboenean heltzea eta ebaztea.

Talde honetako kide guztiek, profesional zein erabiltzaile, giza eskubideen balioak onartzeak erraztu egin du eguneroko elkarbizitza, eta kideen artean sortzen diren arazoei irtenbide adostuak bilatzea faboratu du. Jarraian, zentroko materiala (boligrafoak) desagertzen ari zela-eta, arazo horri esparru teoriko honetatik abiatuta eta arau-hausleari neurri zigortzailerik jarri gabe (eta, hortaz, “lapur” etiketa jarri gabe) nola heldu zitzaion deskribatuko dugu.

Boligrafoak modu sistematikoan falta zirela egiaztatuta, eta pentsatuz etikaren eta eskubideen esparrutik ez zela onargarria “nor izan da?” eta “Zigor bat ezarriko diogu, berriz egin ez dezan” moduko planteamendu bat proposatzea, profesionalek galdera hau egin zieten beren buruari: “Zer eskubiderekin lotu dezakegu arazo hau?”. Erantzuna: “Legearen aurreko berdintasunerako eskubidea”, zeinak esaten duen “urritasunen bat duten pertsonak heredatu egin dezaketela, jabetzak eduki eta ondasun ekonomikoak kontrolatu”.

Saioa ohiko prozedura erabiliz garatu zuten, eta, kasu honetan, eskubide hori zergatik hautatu zuten argi azaldu gabe. Aurretiko ezagutzen fasearen ostean, eta behin bideoa ikusita (neska bat bere gelan dago, eta beste batek ondasun guztiak kentzen dizkio) eta gertatutakoa nahiz neskak egoera horretan sentitu zuena aipatuta, eskubide hori adimen-urritasuna duten pertsonen bizitzetan baloratzeko urratsera iritsi ziren. Dinamizatzailerak galdetu zien ea

bazuten objektu baliotsuren bat, adibidez, gelan, eta toki jakin batean gordetzen ote zuten. Askotariko erantzunak izan ziren, baina zenbaitek tiradera batean gordetzen zituzten objektu garrantzitsu batzuk (erlojua, giltzak, diru zorroa...), baita giltzapean ere. Eta hori bera gertatzen zen Garagunean: zenbaiten ustetan, komenigarria zen objektu batzuk giltzapean gordetzea, bestela desagertu egin baitzitezkeen.

Inor salatu gabe, zentroan desagertutako gauzen zerrenda bat egin zuten: “nire hortzerako pasta”, “nire eskuoihala”, “boligrafoak”. Eta egoera horiek nola konpondu ziren (edo ez ziren) ere jaso zuten. Euren ustez objektu horiek zergatik desagertzen ziren ere galdetu zieten, eta eramaten zituenak amorrarazteko edo min emateko egiten ote zuen. Oro har, ezezkoa erantzun zuten. Eta zenbait aukera proposatu zituzten: “Agian nire eskuoihala atsegin du, eta etxean ez diote halako bat erosi”, “Agian ez dakite boligrafo bat nahi duela”. Hurrengo urratsa jarreraren funtzioari heltzea izan zen (“Agian beste modu batean lortu ezin duen zerbait lortzeko egiten du”, “Agian kasu egin diezaiogun nahi du”, “Edo ezin du ekidin gauzak hartzea, bildumak egitea gustatzen zaiolako”, “Edo nahastuta hartzen ditu”), baita azpian izan daitezkeen komunikazio-zailtasunei ere (emozioak identifikatzeko zailtasunak, nahiak edo beharrak adieraztekoak...). Estrategia, neurri batean, pertsonaren ekintzak eta izaera bereiztea zen (egiten duena ez da zuzena, baina ez da lapurra).

Boligrafoen kasuan, jabetza komunak zer esan nahi duen eztabaidatu zuten: “Denenak dira, eta, desagertuz gero, gehiago erosi behar ditugu, eta gero ez dugu dirurik izango guretzat garrantzitsuak diren beste gauza batzuetarako”.

Azkenik, proposamenak egiteko unea iritsi zen, eta objektuak hartzen zituenari laguntzeko ekintzak izan behar zuten. “Nola lagun diezaiokegu boligrafoak hartzen dituenari?”. Eta proposamen hauek egin zituzten: “Pegatina gorri bat jartzea Garaguneko boligrafoei”, “Eguna amaitzean gogora ekarriko dugu ea bere tokian utzi ditugun pegatina gorridun boligrafoak”, “Familiei laguntza hauen berri emango diegu, eta esango diegu beraiek ere lagun gaitzaketela, adibidez, nahastuta boligrafo bat eramaten badugu etxera”, “Planetan gai hau kontuan hartzea, eta bakoitzari bakarka galdetzea boligrafoak

nahi/behar dituen, eta zergatia ikertzen saiatzea, eta nola lagundu aztertzea”.

Jarduteko modu horrek asmo etikoa du; pertsonetikiko adeitsua da, eta profesionalek eskainitako laguntzan oinarritzen da. Jarreran azalean ikusten denetik harago iritsi nahi du, eta pertsonak onar ditzakeen ondorioak izan nahi ditu, erreparazioa bilatuta, ahal den neurrian.

Jardunbide egoki bati buruzko artikulua honek agerian utzi nahi izan duenez, giza eskubideek aukera ematen dute pertsona gisa hazteko bizi-kalitatea hobetuz, edozein dela ere egoera. Eta, aldi berean, lagungarriak dira talde batekiko kideza-sentimendua sortzeko. Ordiziako Garaguneak horretan dihardu, beste zentro eta erakunde batzuek bezalaxe.

Bibliografia

Ahalmen Urritasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena (2006). 2014/01/02an berreskuratua. <http://www.un.org/esa/socdev/enable/documents/tccconvs.pdf>

Bideoa: *Por cuatro esquinitas de nada*. 2014/01/02an berreskuratua. http://www.youtube.com/watch?v=DBjka_zQBdQ

Donostiako Goyeneche Fundazioa. 2014/01/02an berreskuratua. www.fundaciongoyenechesansebastian.org/?op=3&show=1

FEAPS. *Defendemos nuestros derechos en el día a día* gidaliburua (2008). 2014/01/02an berreskuratua. <http://www.feaps.org/archivo/publicacionesfeaps/libros/cuadernos-de-buenaspracticass/476-guia-qdefendemos-nuestros-derechos-en-el-dia-a-diaq.html>

GIZA ESKUBIDEEI buruzko bideoak. 2014/01/02an berreskuratua. <http://www.youthforhumanrights.org/>

Ordiziako Garagunea. Donostiako Goyeneche Fundazioa. 2014/01/02an berreskuratua. www.fundaciongoyenechesansebastian.org/?op=3&show=8

BEGIRADA BAT EUSKAL HERRIKO HAURRENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO AISIA HEZIGARRIARI. ETENGABE ERAIKITZEN ARI DEN ESKUBIDEA

Joxe Jiménez Jiménez⁹

Sarrera

XX. mendearen amaieratik gaurdaino aisiak hainbesteko garrantzia hartu du, ezen zenbait soziologok garai honi “aisiaren gizartea” izena ematea adostu duten. Gizartean eskuratutako garrantzia honen ondorioa da: “balioen aldaketa garbia, lehen politika edo erlijioa nagusi ziren esparruetan, egun, aisiako jarduerak baitira nagusi” (Cuenca, 1988:34).

Aisiaren garrantzia, zehazki haurren eta nerabeen kasuan, nazioartean aitortzen da, eta aitorten horren adierazpen gorena hemezortzi urtetik beherakoen oinarritzko eskubidetzat hartzea izan da. *Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (HEH)*, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutakoak, honela dio 31. artikuluan:

«1. Estatu sinatzaileek aitortu egiten diete neska-mutil guztiei jolas egiteko, atsedena hartzeko eta beren adinari dagozkion jardueretan parte hartzeko eskubidea, baita kultura eta arte jardueretan askatasunez parte hartzeko eskubidea ere».

HEH, 1990eko irailean indarrean sartua, “*haurren eskubideak onartzeko urrats garrantzitsuenetako bat da, haurren egoera berriari buruzko alderdi garrantzitsuak jokoan jartzen baititu esparru juridikotik eta estatu sinatzaileen inplikazioa eskatzen baitu beren*

⁹ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

printzipioak bideratzeko eta betearazteko". (Dávila eta Naya, 2003: 83). Nazioarteko zuzenbidearen historia osoan atxikimendu gehien lortu dituen nazioarteko hitzarmena da.

1990eko abenduaren 6an Espainiako estatuak HEH berretsi izanak hitzarmeneko eskubideak bere borondatez onartzen dituela esan nahi du, eta konpromisoa hartzen duela lege sarea hitzarmenetara egokitzeko, aplikazio estrategia bat proposatzeko eta berak administratutako lurraldeko haurren nahiz nerabeen benetako egoerari buruz kontuak emateko. Hitzarmen unibertsal horri nazioarteko beste organismo batzuetatik datozen erreferentziazko beste dokumentu batzuk erantsi behar dizkiogu.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 1979ko Autonomia Estatutuak, eta zehazki 10. artikulua, Euskal Herriari aitortzen dio eskumen eskusiboa arlo hauetan: gizarte-laguntza (10.12 artikulua); Komunitatearen Garapena, emakumeen arloa, Haur-Gazte eta Adinekoen aldeko politika aisia (10.39 art.). Euskal administrazio publikoen arteko eskumen banaketa 27/1983 Legeak ezartzen du, azaroaren 25ekoak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzkoak. Lege horren arabera, Lurralde Historiko bakoitza arduratuko da bere lurraldean Erkidegoko erakundearen legedia gauzatzeaz arlo hauetan:

1. Gizarte laguntza, Euskal Herri osorako erakundearen ekintza zuzenaren kalterik gabe.
2. Komunitatearen Garapena; emakumeen arloa, eta Haur-Gazte eta Adinekoen aldeko politika eta aisia, Euskal Herri osorako erakundearen ekintza zuzenaren kalterik gabe.

Botere legegile hori dela eta, Autonomia Erkidegoak berezko lege esparru bat du, adingabeen eskubideak *zaintzeko eta babesteko*. *EAEko haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa* (Haurren eta

Nerabeen Behatokia, 2011) izeneko dokumentuak honako hauek proposatzen ditu erreferentziatzat: *12/2008 Legea*, abenduaren 5ekoa, *Gizarte Zerbitzuei* buruzkoa; eta, batez ere, *3/2005 Legea*, *otsailaren 18koa*, *Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babestekoa*.

3/2005 Legeak, *Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babestekoak*, lehenengo artikuluan, legearen xedea aipatzean, EAEn bizi diren haur eta nerabeen eskubideei buruzko hiru puntu zehatz proposatzen ditu: lehena, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak, Haurren Eskubideen Europako Gutunak eta beste dokumentu batzuek aitortzen dizkieten eskubideen erabilera bermatzea; bigarren, haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak eta haiek zaintzeko nahiz babesteko esku-hartzeak zer jardute-esparrutan gauzatu behar diren zehaztea, familian eta gizartean garatuko direla bermatze aldera; hirugarren, jardute-printzipioak, eskumenak eta esparru instituzionala definitzea, bai arriskuan edo babesik gabe dauden haur eta nerabeak babesteko, bai adingabe arau-hausleekin esku hartzeko.

Haur eta nerabeen eskubideen *sustapenak* barne hartzen du aisia hezigarria, eta bi erreferente ditu gaur egun: batetik, *Gazteen Euskal Lege Proiektua*, legebiltzarreko batzordean dagoena 2011z geroztik; bestetik, *170/1985 Dekretua*, *ekainaren 25ekoa*, udako aisia-jarduerak bakarrik arautzen dituen: *haur eta gazteentzako kanpamenduak, udalekuak, udaleku irekiak, auzolandegiak eta kanpaldi ibiltariak*.

Ia hiru hamarkadatan araudia berritu ez denez, ekipamendu eta zerbitzu publiko ugari legezko babesik gabe dago. Praktikan, EAEn haur eta gazteentzako aisia hezigarriko ekipamendu eta zerbitzuen sare hori ezartzeko prozesua tokiko edo probintziako zenbait gizarte eragileren, teknikariren eta politikariren ekimenez garatzen ari da, hein handi batean. Eta ez behar lukeen moduan, hau da, Euskal Herriko adingabeek halako jardueretan parte hartzeko duten eskubide unibertsala bermatuko duen lege baten harira.

Gazteen Euskal Lege Proiektua otsailaren 18ko 3/2005 Legea (*Zaindu eta Babestekoa*) osatzeko sortu zuten, eta arauzko esparru bat eskaintzeko *Haur, nerabe eta gazteen sustapenari*. Legeak barne hartzen du aisia hezigarriko esku-hartzea.

Atal hau amaitzeko, onartu egin behar dugu haur eta gazteen sustapenaren arloa testuinguru historikoki aldakorra eta gutxi arautua izan arren, oraindik urratsak egin behar ditugula legez bermatu nahi baditugu honako hauek: erabateko aitortpena aisia-jardueren balio hezigarriari, eta haur nahiz nerabeen eskubidea halakoetan parte hartzeko aukera berberetan.

Behin haur eta nerabeentzako aisia eskubidearen lege esparrua ikusita (HEHren 31. artikuluan aitortutako eskubidea), garrantzitsua iruditzen zaigu beste urrats bat ematea artikulua honetan aipatuta datozen terminoen esanahia eta testuingurua ezagutzeko.

Begirada kontzeptuala

HEHren 31. artikuluko hitz nagusiak eskubide hauetan zehatz daitezke: *atsedena, aisia, jolasa, jolas-jarduerak eta parte-hartzea*. Hitz horiek bilakaera kontzeptuala izan dute azken hamarkadetan, eta terminologia eguneratuagoa erabilita jasotzen dituzte erakundeen eta zientziaren esparruetan eskubide horri buruz prestatzen dituzten dokumentu teknikoetan (diagnosiak, planak eta txostenak).

Kontzeptu bakoitzaren gaineko azterketa kontzeptual zehatza egitea zaila denez, gutxieneko kontzeptualizazioa egingo dugu 31. artikuluko termino bakoitzari buruz: *aisia, aisia hezigarria eta aisia-jardueretan parte hartzea*.

Aisia kontzeptuaren jatorria bi pentsamendu korrontetan dago: funtzionalismoa eta soziologia kritikoa. Dumazedier funtzionalistaren

3D izeneko proposamena (Délassement, Divertissement, Développement = atsedena, josteta, garapena) izan zen arrakastatsuen laurogeiko hamarkadako aisialdi-mugimenduetan. Frantzian langileekin zenbait ikerketa egin ostean, soziologo horrek honela definitu zuen aisia: “Betebehar profesional, familiar eta sozialetatik libratzean, norbanakoak bere borondatez egin ditzakeen zereginak, bai atsedean hartzeko, bai ondo pasatzeko, bai bere informazioa, prestakuntza desinteresatua, gizarteko partaidetza borondatezkoa edo gaitasun sortzaile askea garatzeko” (Dumazedier, 1964:38).

- **Aisia hezigarria edo aisiaren hezkuntza** “aisiako esperientziekin zerikusia duten jarrerak, gaitasunak, ezagutzak, jokabideak eta balioak ikasteko prozesuekin” lotzen dugu. Ikaskuntza desinteresatua eta ekintza atseginak dira, askatasuna, partaidetza, elkartasuna, komunikazioa eta antzeko beste balio batzuei lotuak. Bizitza osoko prozesu bat da, norberarekin batera bilakatzen dena, aisiaren antzera, gure beharrei, gaitasunei eta egoerei erantzuna emateko. Etengabeko helburutzat dauka kalitatezko aisia-esperientziak izateko aukerak handitzea, banakakoak nahiz komunitarioak” (Cuenca, 1988:38).
- **Aisia-jarduera hezigarriak** “aldi berean berariaz hezigarriak eta berariaz aisiakoak diren erakunde eta ekipamenduetan” egiten dira. “Hortaz, instantzia horientzat, aisia garatu nahi duten jardun hezigarriaren xedea eta bitarteko nagusia da. Eskautismoaz, aisialdiko taldeez edo halako beste mugimendu batzuez ari gara, baita ludotekez eta antzeko ekipamenduez eta udalekuez edo oporraldietarako bestelako hezkuntza jardueraz ere” (Trilla, 2012:32).
- **Aisia hezigarriko jardueretan parte hartzea** (Longo eta Badia, 2009:80) “ezinbestekoa da haurren garapenerako, testuinguru horretan abileziak eta gaitasunak garatzen baitituzte, lagunak egin,

osasun fisikoa eta emozionala lortu, nortasuna garatu eta bizitzaren esanahia nahiz helburua zehaztu” (King et al., 2003). “Era berean, aukera eskaintzen die haurrei eta nerabeei gizartearen itxaropenak ulertzeko eta etxean nahiz komunitatean ongi ibiltzeko eta aurrera egiteko behar dituzten gaitasun fisikoak eta sozialak eskuratzeko” (Law et al., 2006).

- **Partaidetza** egiazkoa eta eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da gutxienez hiru baldintza hauek betetzea: parte hartzeko eskubidea aitortzea, eskubide hori erabiltzeko beharrezko gaitasunak izatea eta gauzatzeko espazio edo bitarteko egokiak izatea. Eta, horiek guztiak, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezarritako eskubideen esparruaren baitan (Trilla eta Novella, 2001).

Begirada bat aisia hezigarrirako eskubideak Euskal Herrian izandako aplikazioari: 1980-2013

Atal honen xedea da 1980tik 2013ra bitartean Euskal Herrian haur eta nerabeen aisia hezigarrirako eskubidea sustatzeko lagungarriak izan diren gertaera eta ekimen batzuk deskribatzea eta interpretatzea.

Gure azterketa 80ko hamarkadan hasiko dugu, garai hartan ziklo-aldaketa bat gertatu baitzen animazio soziokulturalaren (ASK) praktikan eta aisiaren hezkuntzan, Gernikako Autonomia Estatutuan (1979) eskualdatu egin zirelako haurren eta gazteen aldeko politikako eta komunitate-garapenerako eskumenak; Mendia eta Etxeberriak (2012:3) esaten dutenez, “erakundeek neurri handiagoan hartu zuten beren gain ASKren arloko ekimenen ardura, eta horrek berekin ekarri zuen inflexio puntu bat herri-mugimenduen garapenean (mugimendu asoziatiboetan eta haur, gazte, heldu eta herritarren mugimenduetan)”.

Aisia hezigarrirako eskubidearen errealitatera hurbiltzeko, azterketarako lau alderdi erabiliko ditugu: diagnostia eta plangintza,

esku-hartze zuzena, esku-hartze akademikoa eta esku-hartze profesionala.

Diagnosia eta plangintza

HEHk, 43. eta 44. artikuluetan, tresna bat diseinatu zuen, hitzarmenean aitortutako eskubideen aplikazioaren diagnosia egiteko; zehazki, Haurren Eskubideen Batzordea sortu zen, funtziotzat duena eskubide bakoitzaren egoera eta herrialde bakoitzaren aurrerapenak aztertzea eta haur eta nerabeen eskubideen babesa eta sustapena hobetzeko beharrezko behaketak egitea.

Ezarritako lan-sistemaren arabera, hitzarmena sinatuta duten estatuetak bakoitzak *Haurren eta nerabeen eskubideen egoerari buruzko txostena* aurkeztu behar dio aldian-aldian Haurren Eskubideen Batzordeari. EAEk ez dauka ahalmenik bere txostena zuzenean aurkezteko HEBri, eta Espainiako estatuko erakunde erantzulearen bidez iritsarazten dio.

EAEk bi behatoki dauzka, Eusko Jaurlaritzaren mendekoak, haurren eta gazteen errealitatea aztertzeaz arduratzen direnak: *Gazteen Euskal Behatokia (1999)* eta *Haurren eta Nerabeen Behatokia (2008)*. Lehenengo behatokia I. Gazte Plana prestatzeko prozesuan sortu zuten, eta “gazteria zertan den eta zein bide daraman, horixe momentu oro eta orokorrean jakiteko balio du. Tresna bat da, beraz, administrazioek gazteria dela-eta egiten dituzten ekintzek zein eragin duten balioesteko aukera emango diguna” (Eusko Jaurlaritza, 2013). Haren ikerketen eta argitalpenen artean, hauek nabarmen ditzakegu: Gazteak bilduma, Euskadiko gazteen panoramika, Gaztaroko erretratuak, Euskadiko Gazteen Joeren Koadernoak, Euskadiko gazteak lau urtean behingo seriea, Gazte Planarekin lotutako argitalpenak...

Bigarren behatokia helburu honetarako sortu zuten: “Haurren eta nerabeen errealitatea ez ezik, haurrak eta nerabeak zaindu eta

babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legea aplikatzearen ondorioz garatzen diren politikek duten eragina ere etengabe aztertzea”. Hauek dira haren argitalpenetako batzuk: EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema (2010), EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa (2010), EAEko haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa (2011), EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistemaren 2012ko eguneraketa (2012)... Behatokiaren ikerketetan, errealitatearen adierazle-sistema osatzen duten zazpi eremuetako bat da *aisia eta astialdia*.

Aisiaren hezkuntzaren eskumena haurren eta gazteen arloko sustapen-politikak ezartzeaz arduratzen diren erakundeei bakarrik dagokie (autonomiakoak, probintzietakoak eta tokikoak). Eskubide hori ezartzeko estrategia orokor bat proposatzeko ahalegina honako hauetan zehatz daiteke: (1) Eusko Jaurlaritzak sustatutako lau gazte-planak prestatzeko prozesuak: EAEko I. Gazte Plana (1999-2001), EAEko II. Gazte Plana (2002-2005) eta Euskadiko III. Gazte Planaren Esparru Orokorra 2020; (2) Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ahalegina haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa sustatzeko sistema diseinatzeko: Gaztematika (2010); eta (3) udaletako gazte-planak.

Ikuspegi@k/Haurren eta nerabeen behatokia Euskal Herriko Haur eta Nerabeen Plana prestatzen ari da, EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema oinarri hartuta.

Esku-hartze zuzenaren alderdia

Zenbait testuinguru soziokulturaletan ezarri diren zerbitzuak, programak, proiektuak eta ekintzak egile batek baino gehiagok aztertu eta ikertu ditu azkeneko hamarkadetan (Petrus 1989,1994; Sarramona, 1989; Quintana Cabanas, 1997; Parcerisa, 1999; Romans, 2000). 1988an Bartzelonan hezitzaileen eta eragile soziokulturalen prestakuntzari buruz izandako jardunaldiak (*Jornadas sobre la*

Formación de Educadores y Agentes socioculturales) funtsezkoak izan ziren gizarte-hezkuntzaren lau eremuen kategorizazioa onartzeko (jatorria mundu frankofonoan zuena): Aisiaren Hezkuntza – Animazio Soziokulturala, Hezkuntza Berezitua, Helduen Hezkuntza eta Animazio Soziolaborala (Gómez, 2003).

80ko hamarkadara arte, aisiako jarduerak aurrezki-kutxetako edo Elizako gizarte-ekintzetako edo halako beste ingurune babestu batzuetako eragileek sustatzen zituzten; eta, nagusiki, oporraldietan (udalekuak, kanpamenduak...) edo/eta asteburuetan (larunbat arratsaldeetako jarduerak eta igandeetako irteerak) gauzatzen zituzten.

Haurrentzako udalekuak eta eskauten mugimendu katolikoko lehen taldeak har ditzakegu Euskal Herriko aisiaren jardunbide hezigarriaren *aurrekaritzat*. Joera higienista-hezigarriko lehen udalekuak, 1876az geroztik Suitzan garatutako lehen esperientzietan oinarrituak, Euskal Herriko edo probintzia mugakideetako (Errioxa, Burgos...) ingurune natural pribilegiatuetan (itsasaldeko edo mendialdeko gune naturalak) gauzatu ziren. Hiruzpalau asteko egonaldi horien helburu nagusia klase herritarreko haurren osasun fisikoa hobetzea zen. Hona hemen adibide batzuk: Sukarrietako haur-udalekua (1925) eta Villarcayoko haur-egoitza (1963- Burgos), Bilboko Udal Aurrezki Kutxak sustatuak; Ribavellósako haur-udalekua (1931- Sierra de Cameros, Errioxa) eta Goyenecheko haur-udalekua (Ibaeta), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak sustatuak; Mugaireko udalekua, Arotzenea Etxea – Etxarri Larraun, Yagüe Eskola, La Rosa Eskola eta Saldañuela Finka (Burgos), Zabalegi Finka (Miramon), Donostiako Udal Aurrezki Kutxarenak; Briñaseko udalekua (Bizkaiko Aurrezki Kutxa), Laguardiako udalekua (Araba), Bilboko Udalarena. Eskauten mugimendu katolikoak bi erreferente ditu: 1912an, *exploratzailen lehen taldea* eratu zuten Gasteizen; eta, 1929an, María Abrisqueta de Zulueta

Ingalaterrako gidari isolatu bilakatu zen, eta nesken Donostiako lehen taldea sortu zuen.

1950eko amaieratik 70eko hasierara arte, *aisialdiko talde diozesiarrak*, Eskautismoko Elizbarrutiko Ordezkaritzaren (1959) edo Caritaseko Udalekuetako Idazkaritzaren (Bilbo, 1969) mendekoak, asteburuetakoa aisialdi-jarduerak eta udalekuak eskaintzeko aukera izan zuten eragile bakarrak izan ziren. Ordezkaritza eta zerbitzu horiek probintzia bakoitzean prestakuntzarako eskola bat eta aisialdiko taldeen federazio bat sortzea sustatu zuten. Eskautismoan, Arduradun-Eskaut Eskola (1979) eta Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako taldeentzako Euskalherriko Eskautak (1983) sortu ziren. Eta Caritaseko Udalekuen Zerbitzutik hauek sortu ziren: EDE (Bizkaia, 1976), Hezkide (Gipuzkoa, 1977) eta Atsedeen Taldeak (Araba, 1978).

70eko hamarkadan, mugimendu horietako buru batzuk aldendu egin ziren aisialdiko ingurune tradizionaletik, eta prestakuntzako eta hezkuntzako proiektu berriak prestatu zituzten, akonfesionalak eta laikoak. Hona hemen egoera horren pare bat adibide: batetik, Bizkaiko Hezitzaileen Eskola Diozesiarrari lotutako pertsona talde batek animatzaileentzako beste eskola bat sortu zuen, EDEX, “oso bestelako eskaintza metodologikoa eta, hortaz, pedagogikoa egiteko, eta bere proiektua Eskola Berriaren, Psikologia Humanistaren eta Paulo Freireren hezkuntza askatzailearen korrante psikopedagogiko berrietan oinarritzeko” (Mendía, 1983:3); bestetik, 70eko hamarkadaren amaieran, Gipuzkoako talde batzuek Euskal Eskaut Elkarte (EEE) eta Euskal Gia Elkarte (EEGE) eskautismoko talde laikoen federazioa sortu zuten.

1980tik aurrera, aisia hezigarriko eragile eta zerbitzu berriak sortu ziren, haurren eta gazteen gizarte-eskaera berriei erantzuteko. Gizarte-mugimendutik, *aisia hezigarriko elkarte mistoak* sortu ziren, ezaugarri hauek zituztenak: aisia hezigarriko zenbait arlotan eskarmentua zuten

pertsona taldeak ziren; hezkuntza-proiektu definitua zuten, eta berrikuntzari begira malgua; antolamendurako ahalmen handia zuten, boluntarioak eta profesionalak zituztelako; jarduera berritzaileak eskaintzen zituzten, beren proiektu pedagogikoari eta haurren premia pertsonal eta kolektiboari erantzuteko; aisia-jarduerak euskaraz egiten zituzten, hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea bermatzeko; beren jarduna gizarteko eta hezkuntzako zerbitzu egonkor bilakatu zuten. Gipuzkoan, elkarte hauek izan ziren etapa historiko horretako erreferente batzuk: Txatxilipurdi (Arrasate), Antxeta (Egia, Donostia) eta Kuku-Miku (Lasarte-Oria) (Martínez, Z; Berrio-otxo, K; Hernández, JM, 2000). Eta Euskal Herrian TOPAGUNEA – Euskara Elkarleen Federazioa (1986) sortu zen, haur eta gazteen hizkuntza-normalizazioan lagungarri izango ziren aisia-jarduerak eskaintzeko. Praktikan egindako ibilbideari esker, federazio hori osatzen duten talde horiek Euskal Herriko aisia hezigarriko eragile berri bilakatu dira.

Arlo publikotik, tokiko administrazioa lehenengo ekipamendu eta zerbitzu publikoak sortzen hasi ziren, Haurren eta Gazteen Politikako udal-sailetatik. Jardun horien helburua garapen-fase bakoitzeko (haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora) premia kolektiboari erantzutea izan da, baita pertsona bakoitzak emantzipazio-prozesuan dituen beharrei erantzutea ere (informazioa, aholkua, partaidetza, mugikortasuna, adierazpena...). Bi premia horiei erantzutea da baieztapeneko eta emantzipazioko politikak diseinatzeko eta ezartzeko jatorria haurtzarora eta gaztarora sustatzeko esparruan.

Garai historiko horretan, *jardueraren pedagogia* (Trilla, 1999) garatu zen, hau da, aisia hezigarriko ekipamendu espezifikoak haurrentzat (ludotekak, haur-txokoak...), nerabeentzat (gaztelekuak) nahiz gazteentzat (gaztetxeak, gazteguneak...), edo informazio-zentroak, sorkuntzakoak, aholkularitzakoak, etab. Ekipamendu horiek guztiak hezitzaile profesionalekin eratzen joan ziren. Hauek izan ziren lehen ludotekak: Zarata-Txantrea (Nafarroa, 1982), Jolas-Toki-Burlata (Nafarroa, 1983), Caracol-Gurutzeta (Bizkaia, 1983), Rontegi (Bizkaia, 1984), Sansomendi-Gasteiz (Araba, 1985), Errenteria

(Gipuzkoa, 1986), Egia-Donostia (1989)... Nerabeen esparruan, erreferenteak izan ziren Errekaldeko Gaztelekua (Bizkaia, 1984) eta Pilarreko Gazte Zentroa (Gasteiz, 1986). Gipuzkoako nerabeentzako ekipamendu publiko berezituaren historian, Saindua Gaztetxea (1990), Bidebietako Gazte Txokoa (1993) eta Oñatiko Gaztelekua (1994) izan ziren aitzindariak.

Udako aisia-jardueren programak hainbat eragilek antolatzen zituzten: udalak, foru-aldundiak, Astialdi Foroan bildutako tokiko elkarteak, federazioak (Euskal Udalekuak, Topagunea, Eskaut...), kirol-erakundeak eta musika-erakundeak. Udako jarduera horiek ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira familia askorentzat. Milaka pertsonak ez dute tokirik lortzen foru-aldundien udalekuetako programetan, eta kopuru horrek argi erakusten du gizarte-eskaera oso handia dela. Azkenik, garrantzitsua da merezi duen balioa ematea aisiaren izaera inklusiboari. Horrelako jarduerari esker, beharrezko baldintza guztiak betetzen dira (espazialak, laguntzazkoak...) 12 urtetik beherako guztiak parte hartu ahal izateko.

Alderdi akademikoa edo prestakuntzakoa

Diziplina akademiko gisa, aisiaren hezkuntzak unibertsitateaz kanpoko ekimen ez-formaletan dauka jatorria. Prestakuntzako instantzia horiek gai izan dira bi erronkari aurre egiteko: lehenengoa, aisia hezigarriko eragile aktiboek zeuzkaten prestakuntza-premiei erantzutea; bigarrena, zenbait pertsona trebatzea hezkuntza-berrikuntzako sustatzaile izateko esparru horretan. Elizaren testuinguruan sortutako aisialdiko eta animazio soziokulturaleko eskolak izan ziren lehenak: EDE (Bizkaia, 1976), Hezkide (Gipuzkoa, 1977), Atsedeen Eskola (Araba, 1978) eta Arduradun-Eskaut Eskola (1979).

1986an legez aitortu zituzten aisialdi hezigarriko lehen eskolak (AHE) eta Eusko Jaurlaritzako Gazte Sailak homologatutako begiraleentzako

eta zuzendarientzako lehen ikastaroak. Orduz geroztik, eskola ugari jarri zituzten martxan, bestelako izaera zutenak eta beste metodologia bat erabiltzen zutenak (laikoa, kritikoa, eraldatzailea, komunitarioa, euskalduna, partizipatiboa, profesionalizatzailea...): EDEX (1973), Urtxintxa Bizkaia (1986), Urtxintxa Gipuzkoa (1987), Urtxintxa Nafarroa (1987), Accion 21 (1988), Gaztetxoak eskola (1989), etab. Nabarmenezkoa da Urtxintxa Eskolaren garrantzia, aisia hezigarriko elkarte mistoetako hezitzaileen eta udaletako zerbitzu nahiz programetan parte hartzen duten profesionalen (haur-txokoak, ludotekak, gaztelekuak, udaleku irekiak eta itxiak) prestakuntzako erreferente gisa.

Bi urte geroago, Gazteria Saitetik, 47/88 Dekretuak honako hauek aitortu zituen: animazio soziokulturaleko eskolak, *Animatzaile soziokultural* izateko titulua (1988) eta, geroxeago, *Dinamizatzaile soziokultural* izatekoa (1998). Eta heziketa profesionalaren arloan, *Animazio soziokulturaleko teknikariaren* titulua sortu zen, eta geroago *Animazio soziokulturaleko goi-teknikariarena* (1998).

Unibertsitateko trebakuntza profesionala aisiaren hezkuntzan hertsiki lotuta dago gizarte-hezitzailearen ogibidearen prozesuarekin. 1988an, UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, lanean ari ziren profesionalentzako ikastaro bat eskaintzen hasi ziren: “Gizarte Hezitzaileen Diploma”. 1991n Gizarte Hezkuntzako Diploma onartu zuten (1420/1991 ED, abuztuaren 30ekoa, urriaren 10eko BOE). Zenbait urte igarota, Gizarte Hezkuntzako Diplomaren lehen maila eskaintzen hasi ziren Deustuko Unibertsitate pribatuan (1993-94) eta Euskal Herriko Unibertsitate publikoan (1995-96).

Gauzak beste modu batean egiteko eta gehiago jakiteko interesa tarteko, sektoreko pertsona konprometituak beste korronte batzuk ezagutu zituzten, zenbait esparruri lotuak: soziologia (Dumazedier, Pedró...), pedagogia (Decroly, Montessori, Dewey, Makarenko, Freinet, Freire, Rogers, Besnard, Ander Egg, Franch, Martinell, Trilla,

Perez Serrano, Cembranos, Montesinos eta Bustelo...), psikologia (bilakaerarena, nortasunarena, taldeko dinamikak...) eta antropologia kulturala (aisiaren erabilera), besteak beste.

Aisia hezigarrian espezializatutako zenbait aldizkari argitaratzeak aukera eman zuen gizar-tean eta hezkuntzan esku hartzen duen sektore honen hezkuntza-praktika ezagutzera emateko: TXIRIKILAN (1979-1983), Haurrak-Edex Kolektiboa; GOITIBERA (1982-2013), Euskal-erriko Eskautak, mugimenduaren komunikazio-euskarria. MONITOR-EDUCADOR (1982), Aisialdiko Hezitzaileen Eskola Kristauen Federazioaren komunikazio-euskarria. AISIA BIZIZ (2005-2008), Urtxintxa Gipuzkoak argitaratua, aisiaren pedagogiari buruz oso-osorik euskaraz argitaratutako lehen aldizkaria izan zen.

Aisia hezigarriaren esparruan izandako hezkuntzako praktiken aniztasun zabala aintzat hartuz gero, azken urteetako produkzio zientifikoa urritzat eta partzialtzat jo dezakegu; izan ere, erakundeen eskakizunak asetzer-a bideratu da (Eusko Jaurlaritz-a, foru-aldundiak eta udalak), eta itxuraz ez da lehen-tasunezkoa izan unibertsitatearentzat. Hona hemen azken hiru hamarkadetan liburuak eta dokumentuak argitaratu dituzten Euskal Herriko egileetako batzuk: Cuenca, M.; Etxeberria, F.; Martínez, Z.; Mendía, R.; López de Aguilera, I.; Placer, F.; etab.

Alderdi profesionala

Profil profesional bat aitortzeko, beharrezkoa da prestakuntza kuantitatiboa eta kualitatiboa. Balantze gisa, egungo egoera gure ikuspegitik nolakoa den adieraziko dugu, jardun profesional baten egonkortze-maila ezagutzeko proposatutako adierazle batzuk aintzat hartuta (Riera, 1998; Sáez, 1998 eta 2003): 1) Ezagutza espezifikoen multzo bat egotea: eskasa; 2) Titulu akademiko bat edukitzea: Gizarte Hezkuntzako gradua; 3) Publikoki, teknikoki eta ekonomikoki aitortutako eginkizun espezifikoak: Esku Hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako I. Hitzarmen Kolektiboa (2011-2014) eta Esku Hartze

Sozialari buruzko Bizkaiko II. Hitzarmen Kolektiboa (2012-2013); 4) Koordinazio profesionalerako espazio bat izatea: Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkargoa (2003ko abenduaren 22a); 5) Lanbidearen konpromiso etikoa: Gizarte Hezitzaileen Kode Deontologikoaren onarpena (2004).

Araudiei, kontzeptuei, jardunbideei, erakundeei eta eragile profesionaleri emandako begirada honek lagungarria izan nahi du Euskal Herrian haurrek eta nerabeek aisia hezigarria jasotzeko eskubidea ezartzeko prozesuaren hurbilketa xume bat egiteko; eta, horrez gainera, zenbait alderdi proposatu nahi izan ditugu, Euskal Herrian etengabe eraikitzen ari den eskubide hori aztertzeko.

Bibliografia

- Cuenca, M. (1988). El ocio como ámbito de Educación Social. *Educación Social*, 47, 25-40.
- Dávila, P. eta Naya, L.M. (2003). La infancia en Europa: una aproximación a partir de la Convención de los derechos del Niño. *Revista Española de Educación Comparada*, 9, 83-133.
- Dumazedier, J. (1964). *Hacia una civilización del ocio*. Barcelona: Estela.
- Gómez Serra, M. (2003). Aproximación conceptual de los sectores y ámbitos de intervención de la Educación Social. *Pedagogía Social Revista interuniversitaria*, 10, 233-251.
- King, G. A., Law, M., King, S., Hurley, P., Hanna, S., Kertoy, M. eta Rosenbaum, P. (2007). Measuring children's participation in recreation and leisure activities: construct validation of the CAPE and PAC. *Child: Care, Health and Development*, 33(1), 28-39.

- Law, M., Finkelman, S., Hurley, P., Rosenbaum, P., King, S., King, G. eta Hanna, S. (2004). Participation of Children with Physical Disabilities: Relationships with Diagnosis, Physical Function, and Demographic Variables. *Scandinavian Journal of Occupational Therapy*, 11, 156-162.
- Martínez, Z; Berrio-otxoa, K; Hernández, JM. (2000). *El ocio organizado para niños/as y adolescentes en Gipuzkoa*. Gipuzkoa: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Mendia, R. (1986). El tiempo libre como lugar de educación. Euskadiko Aisialdiko Eskoletako Irakasleen Topaketan aurkeztutako txostena. 1986. Argitaratzailea: Escuelas Diocesanas de T.L. y A.S.C. de Euskalherria.1-8.
- Mendia, R. eta Etxeberria, F. (2013). La animación sociocultural en Euskadi en los 60-80. *Revista de Educación Social*, 17, 1-33.
- Riera Romaní, J. (1998): *Concepto, formación y profesionalización del educador social, el trabajador social y el pedagogo social*. Valentzia, Nau Llibres.
- Sáez Carreras, J. (1998). *La profesionalización de los educadores sociales: perfiles y tareas*. I Congreso Andaluz de Educación Social. Kordoba, faksimile-edizioa.
- Sáez Carreras, J. (2003). *La profesionalización de los educadores sociales*. En busca de la competencia educativa cualificadora. Madril, Dykinson.
- Trilla, J. (2012). Los discursos de la educación en el tiempo libre. *Educación social*. Bartzelona, 2012, 50, urtarrila-apirila, 30-44.
- Trilla, J. eta Novella, A.(2011). Participación, democracia y formación para la ciudadanía. Los consejos de infancia. *Revista de Educación*, aparteko zenbakia, 23-43.

INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA LANDAKO ESKOLETAN ETA ESKOLA UNITARIOETAN

Alberto Fernández Cabello¹⁰

Sarrera

Zalantzarik gabe, garapen teknologikoa gero eta bizkorragoa da, eta bizitzako gero eta eremu gehiago hartzen ditu. Eta horixe bera gertatzen da hezkuntzan, irakaskuntzako eredu tradizionala aldatu egin baita teknologia ikasgeletara iritsi den heinean. Lehenengo, zinten eta CDen irakurgailuak izan ziren; gero, bideoen eta DVDen irakurgailuak; ondoren, ordenagailuek eta batik bat Internetek aldaketa nabarmena ekarri zuten; berrikiago, arbel digital interaktiboak (ADI) irakaskuntzako eta gelako baliabide gisa erabiltzen hasi dira, baita informazioa, komunikazioa eta hezkuntza xede duten gailu mugikorrek ere, eta gero eta material interaktiboagoak sortzen ari dira eskoletarako eta prestakuntza-zentroetarako. Ildo horretan, Internet garatuz joan da, eta tresna teknologiko huts izateari utzi, eta informazioa eskuratuz aukera kultural mugagabeak eskaintzen dituen komunikabide bilakatu da.

Baina ez dugu ahaztu behar hezkuntzaren esparrua bizitzaren eta informazioa eskatzen duen gizartearen luzapen bat dela eta, komunikazioaren aroan, informazio hori ez da tokikoa bakarrik, globala baizik, eta denak eragina du denagan. Horregatik, ezinbestekoa da informazioa eskuratu ahal izatea, teknikoki ez ezik, baita juridikoki ere, aitortutako eskubide gisa. Aurrerago aztertuko ditugu eskubide unibertsal horiek eta, zehatzago, informazioa eskuratzeko eskubidea maila globalean, gaia landako eremura bideratzeko, bertako berezitasunak eta zailtasunak aintzat hartuta.

¹⁰ Maisua eta psikopedagogo

Bestetik, egia da hiriko eskola batek eta landako eskola batek ez dauzkatela ezaugarri berberak, alderdi asko direla tarteko, hala nola ingurunea, landako eskolen ikasle kopurua, landako eskoletako ikasgeletako taldekatze mota eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan zerikusia duten espazioen erabilera. Alderdi ekonomikoa hori bezain garrantzitsua da, eta gehienetan erabakigarria. Izan ere, landako eskola batek, oro har, baliabide ekonomiko gutxiago ditu hiriko eskola batek baino, ikasle kopuruaren arabera; eta, ondorioz, egoera horrek eragina izan dezake materialen hornikuntzan eta aukeretan, baita irakasleek material horiek erabiltzeko eta aprobetxatzeko duten prestakuntzan ere. Hortaz, eten digitala ager daiteke, ez dituztelako beharrezko baliabideak edo Internetera sartzeko lineen kalitatea ez delako behar bezain ona, prestakuntzagatik edo arrazoi geografiko nahiz orografikoengatik.

Esparrua mugatzea

Kapitulu hau, oro har, giza eskubideen esparruan kokatuta dago, eta, zehazki, informazioa eskuratzeko eskubidearen esparruan eta norbanakoak informazio hori edozein bidetatik lortzeko eskubidearen esparruan, izaki nagusiki soziala eta komunikatiboa izanik, gizakiari berezkoa baitzaio eskubide hori. Landako hezkuntzaren esparrua izango dugu azterketaren ardatz.

Hortaz, teknologiaren eta komunikazioaren alorreko azken aurrerapenak oinarri hartuta, hezkuntzan erabiltzen diren informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) izango ditugu aztergai, baina, zehazki, nola erabiltzen dituzten helburu komunikatiboekin landako eskoletan, beti abiapuntutzat hartuta honako ideia hau: gizakia izaki soziala dela, etengabe informazioarekin kontaktuan egon behar duena ezagutzak eskuratzeko eta oso-osorik garatzeko pertsona prestatu gisa eta bere ekintzen jabe den pertsona gisa. Gainera, beste pertsona batzuekin trukatu du informazioa, hainbat norabidetan, eta ikaskuntzako nahiz garapen pertsonal eta sozialeko komunikazio-egoerak sortuko ditu. Laburbilduz, gure azterketa-eremuak hezkuntza, IKTak eta landako

gunea batuko ditu, informazioa eta hura eskuratzeko askatasuna bermatuta dituen komunikazio-esparru baten barruan.

Ez dugu ahaztu behar egun landako udalerrri ugarik dituztela eskolak, nahiz eta kopuru hori txikitzen ari den pixkana-pixkana. Eskola horietan, legez, hiri bateko ikastetxe batean eskaintzen zaizkien zerbitzu berberak eskaini behar zaizkie ikasleei. Landako eskolek arazo asko izaten dituzte eskolen plangintza egiteko, baldintza bereziak dituztelako (*Definizio kontzeptuala* izeneko atalean deskribatzen dira) eta aurrekontu mugatua dutelako.

Arazoa da sarri ez garela ohartzen landako eskola txiki horiek hirikoak bezain beharrezkoak eta baliotsuak direla inguruan bizi diren ikasleen garapenerako eta prestakuntzarako, eta beharrezkoa da eskola horietako maisu-maistren lana aztertzea (neurri batean, eragile erabakigarriak lan honetan) IKTak eskuratzeari nahiz erabiltzeari begira eta, beste ezeren gainetik, herritar orok, edozein direla ere bere bizitokia edo maila sozioekonomikoa, informazioa eskuratzeko izan behar lukeen eskubideari begira.

Bestalde, interesgarria da, halaber, informazioa eskuratzeko eskubidea bera juridikoki eta legalki aztertuta antzeman daitezkeen premiak aintzat hartzea, eta ikustea zer-nolakoa den egungo egoera, hortik abiatuta informazioa eskuratzeko eskubidearen eta beste oinarrizko eskubide batzuen urraketa posibleak salatu ahal izateko, eta, hala badagokio, hobetzeko iradokizunak proposatzeko.

Garrantzi soziala

Informazioaren eta komunikazioaren gizartean bizi gara, 2.0 gizartean, 1.0 dei diezaiokegun gizartearekin alderatuta. Eta gizarte honetan, herritarrak behatzaileak ez ezik, egileak ere badira. Zentzu horretan eta audientzien teoriari jarraituta, lehen audientzia pasiboa genuen, eta norbanakoak informazioa jaso besterik ez zuen egiten (eta ez zuen erantzuteko edo elkarri eragiteko aukerarik); orain, berriz, audientzia aktiboa dugu, hau da, norbanakoak informazioa jasotzeko aukera du, eta, gainera, gai da, besteak beste, informazio horrekin interaktuatzeko eta informazio hori beste norbanako eta talde batzuekin trukatzeko.

Hortaz, urrats bat gehiago emanda, norbanakoak audientzia hutsa izateari utzi dio, eta hartzaile bilakatu da, informazioaren eraldatzaile, baina baita informazio-sortzaile ere.

2.0 gizartearen ezaugarri nagusia komunikazioa da. Teknologiaren garapenari esker eta, zehazki, Interneti esker, herritarrok inoiz ikusi gabeko bitarteko bat daukagu gure iritzia adierazteko eta teknologia bera erabiltzen ari diren herritarrekin bat-batean komunikatzeko milaka kilometrora, sinkronikoki ez ezik, baita asinkronikoki ere. Hortaz, neurri batean, ez dago mugarik ez espazioan ez denboran, ez baitago ez espazio ez denbora fisikorik. Beraz, behatzeaz gain, parte har dezakegu eta sortu, eta hori da, hain zuzen ere, 2.0 sarearen egiazko funtsa. Zentzu horretan, baieztatu dezakegu IKTek Internet bidez elkar konektatzeko duten ahalmenari eta sare berriak berekin dakartzan komunikazioko eta interakzioko tresna berriei zor dietela azken urteetan izandako bilakaera ikusgarria. Horrexegatik, gaur egun, hezkuntzaren arloan nahiz gainerako arloetan IKTei buruz hitz egitean, nahitaez hitz egin behar dugu Interneti buruz. Gómezek dioenez:

“Teknologia berrien paradigma sare informatikoak dira. Ordenagailu isolatuek aukera ugari eskaintzen dizkigute, baina, konektatuta, beren funtzionaltasuna zenbait magnitude-ordena handiagoa da. Sareak osatuta, ordenagailuek ez dute balio euskarri fisikoetan (disko gogorrak, disketeak, CD-ROMak, etab.) biltegitratutako informazioa edozein formatu digitaletan prozesatzeko bakarrik; aitzitik, urrutiko ordenagailuek eskainitako informazioa, baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko tresna gisa ere balio dute, baita informazioa argitaratzeko eta hedatzeko sistema gisa eta gizakiak elkarrekin komunikatzeko bide gisa ere. Ondorioz, Internet giza jardunaren eremu guztietan erabili behar da, hezkuntzan barne”. (Gómez, 2005)

Interneteko komunikazio-kontzeptua aldatuz joan da denborak aurrera egin ahala, eta, sarea bera aldatuz joan den heinean, berau ulertzeko

modua ere aldatu da, baita erabilera nahiz premia pertsonalak eta sozialak ere.

Hasieran, sarearen kontzeptuan, komunikazio-eredua bertikala izan ohi zen, eta erabiltzailearen funtzioak pasiboak eta behatzaileak ziren. Orain, ordea, 2.0 sarearen komunikazio-ereduan, horizontaltasuna da nagusi, hau da, berdinen arteko harreman komunikatiboa, zeinetan funtzioak aldatu egiten diren unearen eta egoeraren arabera: funtzio behatzailea izan daiteke une jakin batzuetan, edukiak eta informazioa sortzeko funtzioa beste batzuetan, edo baita biak batera ere. Hezkuntzaren esparruan, Kaplúnen hitzak har ditzakegu kontuan:

“... oinarritzko helburutzat izango du ikasleak igorle gisa indartzea, mezuak beren kabuz sortzeko aukerak, bizigarriak eta gaitasuna eskainita. Hortaz, haren funtzio nagusia izango da ikasle taldeak komunikaziorako bidez eta fluxuez hornitzea –solaskideen sareak, hurbilekoak eta urrunekoak–, mezuak elkarrekin trukatzeko”.
(Kaplún, 1998: 244)

Aipatutako hori, oro har, eremu guztietan eta lurralde guztietan gertatzen da, baina ez erritmo berean. Horregatik, sarri oztopo handi bat izaten da, eten digitala esaten dioguna, eta herritarren zati jakin batek ezin izaten du teknologia hori eskuratu (arrazoi ugari direla tarteko, ekonomikoak, sozialak edo hezkuntzakoak, besteak beste).

Landako eskolek hirikoetatik desberdintzen dituzten zenbait ezaugarri berezi dituzte, eta eragina izan dezakete bai eskola horietara bideratutako baliabideetan, bai antolatze moduan, bai teknologiaren eskuragarritasunean. Hona hemen landako eskolen ezaugarriak: inguruko populazioa txikia edo oso txikia izaten da; luraren orografia gorabeheratsua izaten da, eta sarbide konplexuak izaten ditu; inguruan ez dute populazio handiagoko udalerririk; oro har, eskola txikiak dira; ikasleek espazioak partekatzen dituzte, beren maila akademikoa edozein dela ere; irakasle gutxi daude, maiz bakarra. Ezaugarri horiei gehitu diezaiekegu administrazioarentzat gastu nabarmena direla eta ikastetxe horietarako partidak oso mugatuak direla. Eta, berrikuntza gisa, landako gunean berriki gertatutako zenbait fenomeno aipa

ditzakegu: batetik, ekonomia eraldatu egin da, lurralde batzuetan beste batzuetan baino modu mailakatuagoan, eta nekazaritzako nahiz abeltzaintzako sozioekonomian oinarritutako landa-kultura izatetik zerbitzuen ekonomian edo/eta nekazaritza eta abeltzaintza teknifikatuan oinarritutako landa-ingurunea izatera pasatu da; bestetik, immigrazioa gaur egun ohikoa da landako guneetan, eta ibiltaria izan ohi da.

Landa-ingurunearen berezitasun horiek oro har aintzat hartuta eta zehazki hezkuntzaren alderdiari erreparatuta, arreta berezia eskaini behar diogu komunikazioko helburuekin informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeari, gure esku baitago, betiere juridikoki gobernuaren legeek babestuta, eskubide hori egiaz unibertsala izatea eta ez dokumentuzko lekukotza hutsa. Landako eskolak aukera ugari eskaintzen ditu aniztasunari dagokionez, eta aniztasun horrek, hain zuzen ere, bihur dezake garrantzitsu informazioa munduko gainerako herritarrekin trukatzea, informazio hori askatasunez eskuratuta eta eskuragarritasun hori eskubidetzat hartuta, kanpo-komunikazioa errazteaz gainera berezko garapena neurri handi batean sustatzen duen eskubidetzat.

Garrantzitsua da aipatzea IKTak bitartekoak besterik ez direla, beharrezkoak informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeko eta landako eta hiriko eskolen aukerak ahalik eta modu hoberenean berdintzeko, haien berezitasunak alde batera utzi gabe. Hortaz, IKTak berak ez ditugu irtenbidetzat hartu behar, inolaz ere. Aukera horiek parekagarriak izan daitezten, beharrezkoa da erakundeek babesa ematea honako hauek bermatzeko: partaidetza, erantzukizunen onarpena, hezkuntza eta landa-ingurunera bideratutako IKTen prestakuntza.

Definizio kontzeptuala

Giza eskubideak

Alderdi batzuetan edo beste batzuetan oinarrituta, modu askotan defini dezakegu zer ulertzen dugun giza eskubidetzat, baina bat nator Pérezen (1999) definizioarekin, bere argitasunagatik eta

unibertsaltasunagatik. Haren hitzetan, giza eskubideak "ahalmen eta erakunde multzo bat dira, zeinak, une historiko bakoitzean, zehaztu egiten dituzten giza duintasunaren eta berdintasunaren eskakizunak; ordenamendu juridikoez zalantzarik gabe aitortu behar dituzte eskakizun horiek, bai nazioan, bai nazioartean".

Modu horretan, une historiko bakoitzera egoki daitezkeela ikusten dugu. Hortaz, ez dira estatikoak, dinamikoak baizik, hau da, une bakoitzaren arabera egokitu edo aldatu egin daitezke, edo aurrez daudenei erantsi beharreko beste batzuk sortu. Hortik ondoriozta dezakegu informazioa eskuratzeko eskubideak duen garrantzia, eta are gehiago kontuan hartuz gero teknologia berriei esker zer handia den giza komunikazioa mundu osoan.

Eskubide horiek dokumentu ofizialetan jasota daude, eta dokumentu horiek sinatzen dituzten estatuak konpromisoa hartzen dute haiek beteko eta betearaziko dituztela. Dokumentu horien abiapuntua Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 217 A (III) Ebazpenean onartua, Parisen, 1948ko abenduaren 10ean. Oinarrizko idatzi horrek 30 artikulutan biltzen ditu mundu osoarentzat oinarrizkotzat jotzen diren giza eskubideak, baina ez dago nazioarteko zuzenbide loteslearen barne.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala zenbait dokumentu zabaltzen eta babesten dute, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak, besteak beste. Kasu horietan, estatu sinatzaileak juridikoki behartuta daude herritarren oinarrizko eskubideak bermatzera.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, bi itun horiek eta dagozkien protokoloek osatzen dute Giza Eskubideen Nazioarteko Gutun gisa ezagutzen duguna.

Informazio-eskubidea

Informazio-eskubidea 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpenaren 19. artikulua barruan kokatuta dago, hau da, iritzi-eta adierazpen-askatasuna izateko eskubidearen baitan (barne hartzen ditu komunikatzeko eskubidea eta informazioa jasotzekoa). Hortaz, ikus dezakeguz, edukiaren ñabardura bat da, edo, hobe esanda,

askatasun-eskubidearen eremuan kokatuta dagoen jatorrizko eskubidearen hedapen bat. Ñabardura horrek garrantzi handia du egungo komunikazioaren aroan, elkar komunikatzeko aukerak esponentzialki ugartu baitira maila globalean baina ez baitira unibertsalak zenbait arrazoiengatik, hala nola arrazoi ekonomikoengatik edo geografikoengatik, landa-inguruneen kasuan gertatzen den moduan. Informazio-eskubidea beste dokumentu batzuetan ere jasota dago: Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Ituna, 1966ko abenduaren 16koa, 19. artikulua; Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa, 10.1 artikulua; Oinarrizko Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Gutuna, 2007ko abenduaren 12koa, 11. artikulua, eta Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena, 1969ko azaroaren 22koa, 13.1 artikulua.

Landako eskola

Landako eskola bat herritar gutxiko landa-eremuan kokatuta dagoen eskola da, ezaugarri berezi hauek dituena:

- Ikasleen kopurua txikia edo oso txikia da.
- Maisu-maistra gutxi daude, bakarra, zenbait kasutan.
- Ikasleen taldekatzeak bereziak dira, eta hainbat mailatako ikasleak espazio berean egon daitezke.
- Oro har, eskola txikiak dira.
- Aurrekontu apala dute.

Eten digitala

Eten digitala IKTak eguneroko bizitzan erabili ohi dituzten pertsonen (komunitateak, estatuak, herrialdeak...) eta horiek eskura ez dituzten eta eduki arren nola erabili ez dakiten pertsonen arteko aldea da. Eten digitala definitzeko, informazioa, ezagutza eta hezkuntza IKTen bidez eskuratzeko aukera-desberdintasuna erabil dezakegu. Eten digitala ez dago soilik izaera teknologikoko alderdiei lotuta; zenbait alderdi sozioekonomikoren isla da, eta, zehazki, telekomunikazioko eta informatikako azpiegituren mugena edo gabeziarena (Serrano eta Martínez, 2003:8).

Hortaz, *eten digitala* adierazpena erabilita, erreferentzia egiten diogu, halaber, teknologiak eskuratzeko aukeraren aurretiko desberdintasunei, baita talde batzuen eta besteen artean, alfabetizazioko eta gaitasun teknologikoko mailen arabera, IKTak eraginkortasunez erabiltzeko gaitasunaren arabera dagoen aldeari ere.

Egungo egoera

Kontuan izan behar dugu teknologia bat-batean sartu dela bizitzako eremu guztietara, eta hezkuntza ez da egoera horretatik kanpo geratu. Hezkuntzak modu berezian inplikatu behar luke, aurreikuspen guztien arabera ikasleek gero eta garapen-maila handiagoa lortu beharko baitute eta gero eta gaitasun teknologiko gehiago menderatu beharko baitituzte bizitzarako prestatuta egoteko. Irakaskuntza tradizionala aldatu egin da pixkanaka, eta aldaketa horretan zerikusi handia izan du teknologia agertu izanak.

Azken urteetan, joera-aldaketa bat izan da IKTak ulertzeko moduan. Lehen, IKTen bidezko komunikazioak komunikazio-sistema bertikaltzat hartzen genituen (1.0 kontzeptu gisa ulertua), eta orain, berriz, komunikazio-sistema horizontaltzat hartzen ditugu (2.0 kontzeptu gisa ulertua). Eta sistema horretan, erabiltzaileen arteko harremanek erabateko zentzua hartzen dute, eta guztiok izan gaitezke sortzaile, hartzaile edo igortzaile.

Argote eta Palomoren (2007) hitzetan, azken urteetan 1.0tik 2.0ra gertatutako eraldaketak, oraindik 3.0 kontzepturantz garatzen ari denak, aldaketa handia ekarri du eskolan, sareak baliabide multzo bat izateari utzi baitio eta egunerokotasunez bertan eta hura erabiliz lan egiteko plataforma bilakatu baita.

Egia da aldeak daudela landa-eremuaren eta hiriko eremuaren artean; gaizki ulertuta, landa-eremuari eta hark irudikatzen duenari lotzen zaizkio estereotipo negatiboak, eta hiriko eremuari, berriz, positiboak. “Ikuspegi horrek eta gobernuen babesik ezak babesgabetasun nabarmenean murgildu dute landa-eremua, hiriko eremuaren nagusitasun argiaren aurrean –hiriak 'aurrerapena' eta 'ongizatea' irudikatzen ditu–, eta pixkanaka hiltzera eta desagertzera kondenatu

ditu gure herriak” (Gallardo, 2011). Ikuspuntu beretik, Martínezek eta Bustok (2011) adierazi dute IKTen goraldiari esker testuinguruak, landa-eremuaren espazioa eta bereziki hari buruz daukagun iritzia alda ditzakegula geure buruari zenbait galdera eginarazten digutelako: Interneten erabilerak zer ideia transmititzen digu landa-eremuari buruz?, zer garrantzia izango du landa-eremuak?, zer eragin izango du ekonomia digitalak munduko toki batean edo bestean bizita? Egileek adierazten digutenez, horrelako galderei erantzuten zaie, baina oso poliki, eta teknologia oso bizkor ari da garatzen, eta horrek, noski, galdera berriak dakartza. Ideia horrekiko paraleloki, landu beharreko identitate- eta paisaia-harremanak sortzen dira. Hortaz, landako eremuan, eskolaren bidez, IKTek, informaziorako eta komunikaziorako bitarteko gisa erabilita, norbanakoen tokiko sentimendua indar dezakete, globaltasunaren barruan. Ildo horretan, Noguésen (2007) esanetan, “indar orokorren eta berezitasunen arteko loturak aldatu egiten dituzte identitatearen, esanahiaren eta tokiaren arteko harremanak”.

Hortaz, probetxua atera behar diogu IKTek, gainerako bide tradizionalekin batera, eskaintzen diguten baliabide baliotsuari, eskubide guztiak bermatzeko, eta kasu honetan, zehazki, informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzeko herritar guztiei, bai hirikoei, bai landakoei, arreta berezia eskainita azken horiei, gobernuek babes txikiagoa ematen dietelako. Horrez gainera, hezkuntzako alorrari erreparatu behar diogu bereziki, hezkuntza baita herritarren etorkizuna; eta landa-eremuak aberastasuna eta komunikazioko helburuetarako informazioa eskuratzeko askatasuna izanez gero, bermatuta egongo dira bilakaera eta garapena, eta horrek herritar guztiei ekarriko die onura, norabide askotako elkarreraginak ezarriko baitituzte informazioa askatasunez elkartrukatuta, eta gobernuek nahiz arlo juridikoak sustatuta eta babestuta. Ikuspegi horretatik, landa-eremuan IKTak informazioa eskuratzeko baliabide gisa erabiltzeko aukera aldarrikatu nahi dugu, oinarritzko tresna baitira lurralde horien garapenerako.

Unibertsaltzat jotako eskubideen eta askatasunen alorrean aldaketak izan dira, egoera berriak, premia berriak eta harremanak izateko modu berriak agertuz joan diren heinean. Eta berrikuntza horiek adituen aztergai izan dira. Informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko

eskubideari dagokionez, D'Arcyren (1969) hitzek argi adierazten digute gaiaren gaineko kezka: “Egun batean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak zabaldu egin beharko du gizakiaren informazioa jasotzeko eskubidea, duela hogeita bat urte aldarrikatua lehen aldiz, 19. artikuluan. Gizakien komunikatzeko eskubidea izango da”. D'Arcy aurreratu egin zitzaion, neurri batean, sareek informaziorako eta komunikaziorako bitarteko ahaltsu gisa izandako ezandari. Estatuak ezin dute alde batera utzi bitarteko hori, eta ez dute alde batera utzi behar; beraz, beharrezkoa da gobernuek aintzat hartzea eta informazioa jasotzeko eta komunikatzeko eskubidea mundu osoan aitortutako eskubide gisa islatuta geratzea, baina garrantzi berezia eskainita hezkuntzaren testuinguruari, etorkizuna delako, eta landa-eremua ahaztu gabe, zailtasun handiagoak dituelako eskubide hori bermatzeko. Del Moral eta Villalustre (2011) Asturiasko landa-eskoletako digitalizazio-prozesua ikertzen ari dira, eta nola prestakuntza behar-beharrezkoa den IKTei ahalik eta probetxu handien ateratzeko; hausnartzen ari dira IKTek nola lagun dezaketen, gizarte-eragileekin batera, beste errealitate batzuk ezagutzeko esperientziak eskaintzen, landako identitatearen eta globalizazioaren gaineko jardunak orekatuta.

Idea horri lotuta, berriki egindako adierazpenetan, *informazioa*, *gobernua* eta *eskubideak* kontzeptuak agerikoak dira. Horren adibide da, esaterako, Frank La Rue adierazpen-askatasunari buruzko NBEko kontalari bereziaren adierazpena. 2013ko urriko prentsaurreko batean esan zuen azken hamarkadetan informazio-eskubidea ezinbesteko tresnatzat onartu dutela gobernu ona eta gai publikoetan gizarte zibilaren partaidetza sustatzeko. Informazio-eskubidearen eta egia jakiteko eskubidearen arteko lotura nabarmentzen duen ideia horrek argi erakusten du gobernuek zer-nolako kezka daukaten informazioa eskuratzeko gaiari dagokionez, eta adierazi egiten du zenbaterainoko kontzientziazio-maila duten gobernuek sinesgarritasuna, konfiantza eta herritarren partaidetza bermatzeko. Kezka horren arrazoi nagusia Interneten izaera bera da, bakarra baita eta etengabe aldatzen dena. Internetek iritzia emateko eta adierazpenak egiteko eskubidea erabiltzeko aukera eskaintzen die norbanakoei, eta, horrez gain, haien giza eskubideen zati da, eta gizarte osoaren aurrerapena sustatzen du. Baina, Internet informazioa eskuratzeko askatasun-eskubidea eta

adierazpen-askatasunaren eskubidea erabiltzeko egiazko bitartekotzat hartzeko, beharrezkoa da estatuak konpromiso sendoa hartzea eskuragarritasun unibertsalerako politika eraginkorrak garatzeko, Internet erabiltzeko aukera oinarrizko giza eskubidetzat aitortuta.

López eta Samek (2009) irakurrita, azaldu dugunaren ildo bereko ideia sendo bat sortzen ari dela ikus dezakegu, Internet, giza eskubideak eta informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko eskubidea elkartzen dituen. Hala bada, analisia abiapuntutzat hartuta eta behin aztertuta egungo giza eskubideen sailkapena, arlo digitalaren izaera hausnartzen dute, eta inklusio digitala azken belaunaldiko giza eskubide gisa proposatzen dute, oso bizkor sortzen eta bilakatzen ari den informazioaren eta komunikazioaren munduan sortutako ingurune teknologikotik eratorritako eskubideetan txertatutako eskubide gisa.

Taula honetan grafikoki eta laburbilduta ageri dira kapitulu honetan lantzen ari garen kontzeptuari buruzko indarreko legedi eta dokumentuak (munduko hainbat sistematakoak), hau da, informazioa eskuratzeko eskubideari buruzkoak:

Askatasun eskubidea	Sistema Unibertsala (NBE)			Europako Sistema			Amerikako Sistema		Afrikako Sistema	Espainia
	GE AU	EZ PNI	EE SK NI	OGE AB H	EG G	OEE BG	GEB AA	GE AH	GHE AG	Esp. Kons t.
Iritzi- eta adierazpen - askatasuneko eskubidea (barne hartzen duena komunikatzeko edo informazioa jasotzeko eskubidea)	19. art.	19. art.		10. art.		11. art.	IV. art.	13. art.	9. art.	20. art.

Giza eskubideen taulan erabilitako siglak:

GEAU: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1948ko abenduaren 10a)

EZPNI: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1966ko abenduaren 16a)

EESKNI: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1966ko abenduaren 16a)

OGEABH: Oinarrizko Giza Eskubideak eta Askatasunak Babesteko Hitzarmena (Europako Kontseilua, Erroma, 1950eko azaroaren 4a)

EKG: Europako Gizarte Gutuna

OEEBG: Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna (Strasbourg, 2007ko abenduaren 12a)

GEBA: Gizakien Eskubideen eta Betebeharren Amerikako Adierazpena (Bogota, 1948)

GEAH: Giza Eskubideen Amerikako Hitzarmena (San Jose, Costa Rica, 1969ko azaroaren 22a)

GHEAG: Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutuna (Afrikako Batasuneko Estaturuen eta Gobernuburuen XVIII. Biltzarra, Nairobi, Kenya, 1981eko uztailearen 27a)

Esp. Konst.: Espainiako Konstituzioa (1978)

Islatuta ageri denez, pentsa dezakegu informazioaren eskuragarritasuna erraza dela, eta unibertsala. Baina eskubideei dagokienez, unibertsaltasuna ez da dirudien bezain erraz lortzen, alderdi ugari baitaude tartean, eta eskubidea izateak batzuetan ez du esan nahi eskubide hori modu sistematikoan betetzen denik izaera unibertsalarekin, alderdi askoren mende egoten baita, hala nola estatuen mende, tokiko egoeraren mende edo interesen mende. Eta errealitate hori hezkuntzako landa-eremuko hezkuntzari aplikatzen badiogu, non sarri baliabide ekonomiko eta material gutxiago izaten dituzten hiriko eremuan baino, egoera honekin egiten dugu topo: ahalmen handiko testuingurua izan arren, askotan ezin diogu etekin guztia atera. Izan ere, unibertsaltasuna espazio ekonomiko boteretsu

bati lotuta dago, eta tartean dauden estatuek aztertu eta kontrolatu egin behar dute, eta landa-eskolaren eta hiri-eskolaren arteko aukeraberdintasuna bermatu, informazioa eskuratzeko eskubidea eskubide unibertsaltzat hartuta.

Zentzu horretan, eta herritarren sektore jakin batek zailtasuna duela aintzat hartuta, landako eremua eta zehazki landa-eremuko hezkuntzaren arloa etorkizuneko identitatetzat eta balioztat hartuta, López eta Sameken (2009) hitzei helduko diegu berri:

“inklusio digitalak, gizarte-justiziaren eta giza eskubideen gai-zerrendako oinarritzko puntuak, tolerantziarako eta ulermenerako espazio berriak susta ditzake, eta indarrrik gabe utzi mundu digitalean beren balioak, ohiturak edo sinesmenak inposatu nahi dituzten pertsonen eta taldeen saioak, azken buruan konektatu gabeko guneetan ere eragina dutenak. Inklusio digitaleko ekimenek, adibidez, berekin ekarri behar lukete landatartasuna, ahozkatasuna, isolamendua, populazioaren zahartzea, pobrezia eta usadio jatorrizkoak nahiz indigenak ezaugarri izan ohi dituzten ingurune bakartuetan sormenezko egoerak eta egoera adimendunak ezartzea” (López eta Samek, 2009:7)

Ez dugu ahaztu behar oinarritzko ideia hau: 2.0 landa-eskolan eta oro har 2.0 eskolan, egiazko protagonistak ez dira zuzkidura teknologikoak irakasleak eta ikasleak baizik (Del Moral eta Villalustre, 2011:114).

Gobernuek informazioa eskuratzeko eskubidea betetzen dela bermatzeko kezkak unibertsala behar du izan, eta eskubide horrek egia bilakatu behar du landa-eremuko hezkuntzan, gizartearen zati izanik aukera berberak eduki behar baititu mundura zabaltzeko eta gainerakoekin interaktuatzeko. Ikus dezakegunez, informazioa eskuratzeko eskubidea aitortua egon arren, ez da erraza hura bermatzea, eta unibertsaltasun hori partziala da faktore eta interes ugariengatik; baina beharrezkoa da tartean dauden alderdi guztiek

(herritarrak, gobernuak eta nazioarteko erakundeak) esku hartzea, honako hau abiapuntutzat hartuta: eskolek, landakoek barne, etorkizuneko herritarrak hezten dituztela eta, hortaz, merezi duela inbertsioa egitea eta giza eskubideak bermatzea, informazioa eskuratzeko eskubidea askatasunaren adierazlea dela ahaztu gabe.

Bibliografia

- Ambrosi, A., Peugeot, V. eta Pimienta, D. (Koord.) (2005). *Palabras en juego Enfoques multiculturales sobre las sociedades de la información*. Frantzia: C&F Éditions.
- Bauman, Z. (2007). *Los retos de la educación en la modernidad líquida*. Bartzelona: Gedisa.
- Corbetta, P. (2003). *Metodología y técnicas de investigación social*. Madril: McGraw-Hill.
- D'arcy, J. (1969). "Direct broadcasting satellites and the right to communicate". *EBU Review*, 118. zk., 14.-18. or.
- Dulac, J., Gallego D., Alonso, C., eta Alconada C. (2009). *La Pizarra Digital. Interactividad en el aula*. Madril: Cultiva Libros.
- Fisher, D. (1984). *El derecho a comunicar, hoy*. Frantzia: UNESCO.
- Kaplún, M. (1998). *Una pedagogía de la comunicación*. Madril: Ediciones la Torre.
- Lull, J. (2000). *Culture in the Communication Age*. Londres: Routledge.
- Pérez, A. (1999) *Los derechos humanos: significación, estatuto jurídico y sistema*. Sevilla: Sevillako Unibertsitatea.

Webgrafia

Acción Pro Derechos Humanos Fundazioa. Eskuragarri hemen: <<http://www.derechoshumanos.net/index.htm>>. 2013ko abenduaren 27an kontsultatua.

Argote, M. eta Palomo, R. (2007). La escuela 2.0. Posibilidades de las nuevas herramientas online que ofrece Internet. *I Congreso Internacional Escuela y TIC. Universidad de Alicante*. Eskuragarri:: <http://www.dgde.ua.es/congresotic/public_doc/pdf/8857.pdf>. 2013ko abenduaren 21ean kontsultatua.

Del Moral, M.E. eta Villalustre L. (2011). “Digitalización de las escuelas rurales asturianas: maestros rurales 2.0 y desarrollo local”. *Profesorado. Revista de curriculum y formación de profesorado*. 15. lib., 2. zk., 109.-123. or. Eskuragarri hemen: <<http://www.ugr.es/~recfpro/rev152ART7.pdf>>. 2013ko abenduaren 29an kontsultatua.

Encuentro entre expertos en inclusión social para debatir la exclusión social, servicios sociales y políticas de inclusión social en el mundo rural. Mundo Rural y Servicios Sociales. 2010eko ekainaren 15a. Valladolid. Eskuragarri hemen: <[http://www.fundacionluisvives.org/upload/24/22/Cuaderno Europeo 8 Mdo Rural Valentin.pdf](http://www.fundacionluisvives.org/upload/24/22/Cuaderno%20Europeo%208%20Mdo%20Rural%20Valentin.pdf)>. 2014ko urtarrilaren 2an kontsultatua.

Errea, J., Iriarte, A., Pedroareana, C. (et al.) (1994). Uso de herramientas informáticas en las escuelas unitarias. Eskuragarri hemen: <<http://www.redined.mec.es/oai/indexg.php?registro=015199710034>>. 2013ko abenduaren 30ean kontsultatua.

Espainiako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioa. Eskuragarri hemen: <<http://www.educacion.gob.es/portada.html>>. 2013ko abenduaren 20an kontsultatua.

Gallardo, M. (2011). “La escuela de contexto rural: ¿de la diferencia a la desigualdad?” *Revista Iberoamericana de Educación*. 55/5 buletina, 2011ko ekaina. Eskuragarri hemen: <http://www.rieoei.org/>

deloslectores/3919Gallardo.pdf. 2013ko abenduaren 23an kontsultatua.

Gómez, J.R. (2005). *Las TIC en educación*. Eskuragarri hemen: <<http://boj.pntic.mec.es/jgomez46/ticedu.htm>>. 2013ko abenduaren 30ean kontsultatua.

González, J. (2010). “Los aspectos positivos y negativos de la educación en la escuela rural”. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*. 30. zk., 2010eko maiatza. Eskuragarri hemen: <http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_30/JESUS_GONZALEZ_MARTINEZ_2.pdf>. 2013ko abenduaren 29an kontsultatua.

Hezkuntza Teknologien Institutua. Hezkuntza Ministerioa. Espainiako Gobernu. Eskuragarri hemen: <<http://www.ite.educacion.es>>, 2013ko abenduaren 20an kontsultatua.

Hik Hasi. (2011). “Nafarroako landa eremuko eskolak: Txikitasunak elkarturik Las escuelas en zonas rurales de Navarra”. *Revista Hik hasi aldizkaria*, 158. zk. 2011ko maiatza. Eskuragarri hemen: <<http://www.hikhasi.com/artikulu/1937>>. 2013ko abenduaren 20an kontsultatua.

López, P. eta Samek, T. (2009). “Inclusión digital: un nuevo derecho humano”. *Educación y Biblioteca*. 172. zk., 2009ko uztaila/abuztua, 114.-118. or. Eskuragarri hemen: <http://eprints.ucm.es/11567/1/INCLUSION_DIGITAL%2C_NUEVO_DERECHO_H.pdf>. 2013ko abenduaren 27an kontsultatua.

Martínez, J.B. eta Bustos, A. (2011). “Globalización, nuevas ruralidades y escuelas”. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*. 15. lib., 2. zk., 2011. Eskuragarri hemen: <<http://www.ugr.es/local/recfpro/rev152ART1.pdf>>. 2013ko abenduaren 28an kontsultatua.

Murillo, J.L. (2007). “¿Existe la escuela rural?” *Aula libre*. 85. zk., 2007, 6.-8. or. Eskuragarri hemen: <<http://www.aulalibre.es/spip.php?article38>>. 2014ko urtarrilaren 2an kontsultatua.

Nazio Batuen Erakundea. NBE. Eskuragarri hemen: [<https://www.un.org/es/rights/>](https://www.un.org/es/rights/). 2013ko abenduaren 27an kontsultatua.

Nogué, J. (2007). “Paisaje, identidad y globalización”. *Fabrikart: Arte, Tecnología, Industria, Sociedad*. 7. zk., 2007, 136.-145. or. Eskuragarri hemen: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Fabrikart/article/download/2227/1843>>. 2013ko abenduaren 22an kontsultatua.

Serrano, A. eta Martínez, E. (2003). La brecha digital. Mitos y realidades. Mexiko: Editorial UABC. Eskuragarri hemen: http://www.labrechadigital.org/labrecha/LaBrechaDigital_MitosyRealidades.pdf >. 2013ko abenduaren 26an kontsultatua.

GAZTEAK SARE SOZIALEN BIDEZ GIZALEGEZ SOZIALIZATZEKO TEORIA POLITIKOA HELBURU

Eduardo Fernández Rodríguez¹¹
José Miguel Gutiérrez Pequeño¹¹

Nerabeen nortasuna... ekosistema (digital) postmodernoko biztanle gazteak

Norbanakoek modernitate likidoaren testuinguruan (Bauman, 1999) duten esperientzia mota guztietako prozesu sozial, kultural eta ekonomikoen baitan kokatuta dago, eta prozesu horien lehen eragina kapitalismo neoliberal eta postmodernoaren baitan pertsona ahultzea da. Gaur egun, ibilbide ugari ideiarekin lotutako nortasun-irudiak aurkezten dizkigute, gertaerez eta pasarteez osatutako gizartea iradokitzen diguten irudiak; eta, gizarte horretan, mugimendua *sine qua non* baldintza da arrakasta sozialerako. Ikusmolde horrek nortasuna modu koherentean eraikitzeke ezintasunaren oinarriak ezartzen ditu (Sennet, 2000). Nolanahi ere, iragankortasunaren gorespena norbanakook geure nortasuna etengabe eraikitzeke dugun gaitasunean beste urrats bat ematea dela ere ziurtatzen digute, gure proiektu pertsonala erabakitzeke aukeran aurrera egitea, unean unekoari iraganari edo etorkizunari erreparatu gabe heltzekoa (Giddens, 1998). Renduelesek (2004), adibidez, ordena sozial berriaren ondorioz gizarte egolatra batean bizi garela aipatzen du. Haren ustetan, kapital soziala nahiz historikoa galtzeak, "gu" oinarri gaituzten proiektuak galtzeak, "bakardadean bilakatzera" eraman du norbanakoa, erreferentziatza bere burua bakarrik duela, eta herritar gisa helburu bakarra, hots, bere biziraupena bermatzea.

¹¹ Palentziako Hezkuntza Fakultatea. Valladolideko Unibertsitatea.

Proiektu pertsonal eta autonomo bat eraikitzeko ezintasunarekin batera, ez dugu ukatu behar modernitate likidoaren beste ezaugarrietako bat auzi sozial berri baten sorrera dela. Auzi hori gizarte-bazterkeria, sobera egoteko beldurra eta ekonomiaren nahiz gizarte malguaren eskema berrietan tokirik ez izateko beldurra pairatzen duten taldeek irudikatzen dute, zeinek buruan sartuta duten bizitzan noraezean eta zentzurik gabe dabiltzan sentimendu orokortua, behar ez dituen produkzio-sistema baten hondakin izango balira bezala, gizarteko pariak. Modernizazio kapitalistako dinamika berriek –laurogeiko hamarkadatik ezarriak, postfordismoaren lan-testuinguruan– gizarte-egitura desegiteko mota guztietako prozesuak sorrarazi dituzte. Castelek (1997) desafiliazio sozialaren fenomenotzat izendatu ditu, eta ezaugarri dituzte “egonkorak ezegonkortzea”, “eskastasuna normaltzea” eta “soberan dauden populazio-taldeak agertzea eta handitzea”.

Lana, prestakuntza, aisia eta baliabideak modu oso aldakorrean banatzen dira, eta enpleguaren krisia lana gizartearen balio nagusia delako ideiarene krisia ere bada, aldi berean gizartean garrantzi handiagoa ematen zaielarik kontsumoari, aisiari eta borondatezko edo lankidetzako lanei (Caillé, 2000). Laburbilduz, herritartasuneko eredu berri bat sortu da, eta ez da jabetza soziala eta Gizarte Estatu keynesiano-fordistak abiarazitako erregulazio sozialei lotua; jabetza indibiduala da, ahalmenak, gaitasunak eta kapital sozial nahiz sinbolikoak indibidualki baliarazteko modu bat (Castel eta Haroche, 2001).

Gazteen testuingurua definitzen duten alderdi horiek eta beste asko aipatuta, agian apustu estrategiko bat egin behar genuke: alde batera uztea nerabeen bizitza politikoari (herritarrari) buruz izan ohi dugun iritzi negatiboa. Ikerketa-lan ugari agerian uzten dutenez, gaztetasuna ez dugu hartu behar herritartasunerako prestakuntza modutzat, herritar izateko modutzat baizik (Bontempi, 2003). Beraz, nerabe-

nortasunarekin ez daude jokoan helduen munduan integratzeari lotutako auziak; nerabe-nortasunarekin, herritarren munduan eskubide osoko kide gisa sartzeko beharra dago jokoan. Itxuraz, enfasi-aldaketa emantzipazioa aintzat hartu ordez integrazioa aintzat hartzean datza.

Zalantzarik gabe, bi alderdi funtsezkoak izan dira gazteek sistema politiko instituzionalarekiko izan duten urruntzean eta sistema horien arduradunei begira duten mesfidantzan. Batetik, haien kezka bizitza demokratikoaren kalitateari dagokionez. Bestetik, (gure) gizarte garatuen barruan dituzten bizi-inguruabarrak. Nolanahi ere, asko izan dira gazteei buruz emandako definizio negatiboak, eta zaildu egin dute, neurri handi batean, gazteek herritar aktibo gisa jardutea; egoera horri gehitu egin behar diogu gure egungo gizarteek, gizarte-estatuari edo ongizatearen estatuari lotutako ikusmoldeen oinordekoek, “ordezkaritza bidezko herritartasun” eredu taxutu dutela belaunaldi gaztetan ia XX. mende osoan barrena, eta, eredu horretan, eskubideak erabiltzeko beharrezkoa da herritar «oso» bati lotua izatea.

Deigarria bada ere, talde kaltetuak eta sistematik baztertuak (sexuagatik, generoagatik, arrazagatik, mailagatik edo etniagatik) defendatzeko joera handia izan arren, desberdintasunaren arrazoibidetik apenas aipatu dute nerabeen eskubideak ikustarazteko eta aitortzeko auzia, nerabeak gizartean ikusezin bilakatzeko politika askoren lekuko izan ez balira bezala. Eta hori guztia nahiz eta, zorionez, herritartasunaren teoriak sakonki berraztertu dituzten azken hamarkadetan, herritartasuneko subjektuak zabalduz (hiritar defizita duten taldeak) eta aintzat hartuz gizarte-bizitza duina eta gizatiarra garatzeko ezinbesteko alderdiak (zenbaitek “laugarren belaunaldiko eskubideak” deitutakoak).

Herritartasun-eredu klasikoaren urritasunen aurrean (ikusmolde honetan instituzionalizatua: herritarrak Estatuak eskainitako gizarte-zerbitzuen bezeroak dira, eta etengabe eskubideak eskatzen dituzte), gazte-identitatea(k) komunitatearen defentsan oinarrituta eraiki d(ir)a,

eta, eraikuntza horretan, esaldi honek egungo garaiak islatu ditu askotan: “*Zu zeu izan, eta ez ukitu nire laguna*”. Jatorrizko *self* horrek erreferentzia egiten dio originaltasunari, desberdintasunari; ingurukoen tratatu txarrei begirako mehatxu esplizituak, berriz, oinarritzko loturaren defentsari egiten dio erreferentzia, ahaidetasunaz, herrikidetasunaz eta laguntasunaz hornitutako loturen defentsari. Eta, era berean, gazteek, gizarteko talde gisa, proposamen antagonikoak egin dituzte; itxuraz, proposamen horietan, interakzio gogoetatsua modernizazioaren kultura klasikoei (politika, lana) eta postmodernismoari eta kapitalismo neoliberalari lotutako kultura berriei (ekologia, bakezaletasuna, giza eskubideen defentsa, nazioaz gaindiko herritartasunaren eta nazioartekoaren erdiespena) erantzun sinbiotikoa emateko modu gisa sortzen da.

Nolanahi ere, gazteen dinamikek autonomia lortzera bideratutako prozesuak behar dituzte, integrazio hori gertatzeko behar diren ahalmena eta gaitasunak lortzera bideratutakoak. Modernitate likidoaren eta kapitalismo malguaren testuinguruan, ez dute zalantzaraz jositako itsasoan euren bidea negoziatzeko arriskuak eta aukerak aztertzea beste erremediorik. Eta, bide horretan, familiaren mende bizitzeko aldia luzatzeak, erantzukizunik eza erlatiboak eta, batez ere, inguruan ikusten dituzten bizi-egoeren aniztasunak gaztetasuna gizarte-harremanetarako modu berriak probatzeko aukera eskaintzen duen esperimentazio-etapa bilakatzea dakarte (Benedicto, 2008). Testuinguru horretan, paraleloki sortzen da sare sozialen fenomenoak gizarte-integrazioko prozesu horiek faboratzeko (edo ez) aukera gisa.

Errealitate birtuala esperientziak zabaltzeko

Interakzio digitaletan mundu artifizial batean sartzen gaituzte, non arakatu, manipulatu eta ukitu egiten ditugun bertako objektu anitzak

(eta konplexuak). Sarearen bidezko bizimodu askotarikoek aukera eskaintzen digute gure giza pertzepzioak hedatzeko eta gure adimena areagotzeko, eta horrek berekin dakar gure espazioak eta denborak berregituratzea, baina baita taldekoak ere. Hortaz, espazio birtuala “esperientziaren antzezleku” gisa har dezakegu, alderdi publikoa nahiz pribatua ber-kudeatzeko erabiltzen dugun toki gisa, non ukituak ematen dizkiogun bakardadearen gaineko iritziari, baita gainerakoekin dauzkagun lan-loturei, afektibitate-loturei eta identitate-loturei ere.

Batzuetan, esperientziaren hedapen horretan, askatasunez jarduten dugu (edo esku hartu) identitatearen eta garaiaren gure imajinarioaren eraikuntza subjektiboan eta baterako ideiakintzan, hau da, mundu-ikuskeraren baten eraikuntzan, nahiz eta poltsiko-ikuskeraren bat izan. Sareak subjektuarentzat aukera berriak asmatzea ahalbidetzen du, eta niaren pribatutasuna/ikusgaitasuna autokudeatzea; eta aztertzea noraino eraman nahi ditugun gure muga moralak, antzina gordeak edo erreprimituak zenbaitetan.

Ziberespazioak proposatzen digun “esperientziaren antzezlekuak”, hortaz, aukera ematen digu jolas afektibo bat abiarazteko, konektatutako “bestearen” beharrean oinarritua; baina jolas hori inflexio-puntu bat izan daiteke (berriz diogu, izan daiteke) gaur arteko sistema hierarkizatuetan. Gaur egun, interakzio birtualek gizarteko kolektibitateko, horizontaltasuneko eta lankidetzako modu berriak proposatzen edo esperimentatzen dituzte, subjektibotasun modu hibridoak, zeinetan norbanakoen mugikortasuna eta arintasuna aurrerapeneko faktoretzat hartzen diren.

Interakzio birtualak: gailu optikoak, begirada eraikitze sistemak

Bitartekoen jabetza eta sarean ageri diren eduki askoren kudeaketa (interesatua) ezagutzea bidezkoa izan arren, lan honetan

ziberespazioak zerbait gehiago dakarrela defendatu nahi dugu: begirada eraikitzeke sistema bat, internauta egin eta berregiten duen ikuskizun moduko bat. Santiago Alba Ricok (2007) oso ulergarritasun-esparru iradokitzailea eskaintzen digu telebistaren fenomenoaz aztertzeke, eta horixe erabilike dugu hemen, ziberespazioaren erabilerari -internauta gisa- buruz gogoeta egiteke. Azterketa amaitutakoan interakzio birtualek ematen dizkiguten aukerei buruzko pertzepzio faltsuak suntsitu izana espero dugu. Horrek ez du esan nahi, lehen ere aipatu dugun moduan, espazio horrek ez duenik eskaintzen gizakiak garatzeko eta mundu bidezkoagoa eraikitzeke aukerarik; halakoak ere eskaintzen ditu, noski. Baina agian komeni da nabarmentzea gure esperientzia birtualak tartean dauzkan eraikuntza ideologiko batzuk, ez badugu jarrera zinikoa, akritikoa eta ospakizunekoa izan nahi sareak eskaintzen digun aukerari begira.

Irudipenetan lehena zaurtezintasuna da, eta sareak gure esperientzia bisualean ematen digun itxurazko “segurtasunaren” artean ezartzen diren harremanetara bidaltzen gaitu. Begi-Sarearen bidezko gure begiradak elkarrekikotasunik onartzen ez duela dirudi; izan ere, tiranoak begiratzeko askatasun osoa zuen bezalaxe, internautek aukera dute “begiratzeko edo begiraden jomuga izateke”, “inork begiratu gabe begiratzeko” eta “bestearen begirada menderatzeko, eta baita suntsitzeko ere”. Uste denaren kontra, esperientzia birtuala ez da ikusezina, ezta bortxaezina ere (pertsonarena bakarrik gelatik konektatuta), eta are gutxiago mugiezina.

Baina sarea erabiltzeko dugun moduari buruz benetan sinetsi nahi duguna zera da, segurtasun-esparru bat eskaintzen digula, antzina leihoari eta suari (etxean) gordea, edo irratitari nahiz telebistari. Internetek gotorleku bilakatzen du etxeko esparrua, orokortu egiten baititu leihoak, kanpoa eta barrua dauden ideia indartuta, berezkoa eta besterena argiro bereizita dauden ideia indartuta. Azken finean,

ziberespazioak modernitate liberalaren espazioa berregituratzen du, burgesiari lotutako dimentsioak.

Alde batetik, begi-Sareak txikitu egiten ditu bere bitartez ikusten ditugun gauzak: gerrak, iraultzak, mendiak, lagunak egokitu egiten dira 2.0 teknologiko gure pantailen marjina estura. Garrantzitsua ez da informazioa jasotzea, gu irudiz, dokumentuz eta ahotsez hornitzea; benetan liluratzen gaituena –nahiz eta aitortzea kostatu- segurtasuna ematen digula da, hau da, ziberespazioak gure antzezleku birtualen zabalera atsegin eta lasaigarriaren barruan kokatzen duela errealitate hori. Beste alde batetik, sareak paradoxikoki gure gizatasunaren ikuspegi teknologiko beheranzkoa eragiten duten leiho horizontalak osatzen ditu. Modu horretan, goitik behera begira diezaiekegu edozein motatako irudiei, ahotsei, aztarnei, izan hurbilekoak edo urrunekoak, txiki-txikiak edo itzelak, horietako bakoitzak bizia hartzen duela gure gela edo bulego konektatuetako txokoren batean.

Horrez gainera, eta beste behin gehiago, ziberespazioak barneko leiho bat mugatzen du, mehatxuetatik babesten gaituen hesi bat, nahiz eta agian –gurasoek ondo dakitenez- hori den eraikinaren punturik ahulena, hortik sartzen baitzaizkigu interes komertzialak eta militarrek, pornografia eta, ikuspegi atseginago batetik, errealitate soziokulturalak, lagunak eta mundu hobea ametsarazten diguten informazioak. Gauza horiek guztiak eta beste asko begi-Sareko sarrailatik ikusten ditugu, pribatutasunean eta kanpoan ere kendu diguten mundutik isolatuta.

Bigarren irudipena gure interakzio birtualetan izaten dugun konfiantza da. Komeni da gogora ekartzea ea eraiki dezakegun gizarte birtual bat elkar ezagutzen ez duten milioika kide edukita. Zalantzarik gabe, sareko gizartea neurrigabea da, eta horrek eragin nabarmenki okerra du: kontaketa koherente bat eraikitzeke ezintasuna. Ziberespazioak apurtu egiten du erantzukizunaren ideia tradizionala, eta sarean egiten ditugun sarraldiek –batzuetan komertzialak, beste batzuetan bestea

iraintzekoak, etab.- egiazko bizitzan inongo eraginik ez dutela ematen du. Begi-Sarearen bidez aurrez aurreko interakzioetan apenas lor dezakeguna lortzen dugu: “egiazko” pertsonak ezagutzea. Eta zergatik? Bada, beste arrazoi batzuen artean, ziberespazioa oraindik gizakien bizimodua epaitzeko, ezagutzeko eta balioesteko aukera eskaintzen digun leku bakanetako bat delako, paraje exotikoa. Egungo gizartean, gero eta zailagoa da parte hartzea, ordezkartzako demokrazia ahitua dagoelako eta herritartasun aktiboa gauzatzea zaila delako; testuinguru horretan, errealitate birtualak betetzen du narrazioaren toki morala, eta berau da eredu zko tresna ordena sozialean.

Hirugarren irudipenak zerikusia dauka Komunitatearen (eta Espazio Publikoen) ideiarekin. Egia esanda, gaur egun Internet eta sare sozialak edo komunitate birtualak bakarrik partekatzen ditugula baieztatu genezake, horiek direla biltzeko nahia (eta eskubidea) duten espazio bakarrak. Sarea, baina, kontrolaren gizaritza ezagutzen dugunaren materializazio landuenetako bat da, dudarik gabe. Bai, egia da trukeak eta interkonexioak daudela; baina egia da, baita ere, horrek ez gaituela batzen, bakoitzak geure kabuz jarduten baitugu. Hortaz, boterearen erabilera ekonomizatzeko modu berri bat da: isolatutako milioika pertsonak bat egiten dute objektu edo gertaera baten inguruan.

Beraz, espazio birtuala biltzar baten azken aztarna da. Sarearen bitartez, bildu egiten gara, eta hitz egiten dugu, ia hil ala biziko kontua izango balitz bezala, gure familiako pertsonen buruz, azken derbiari buruz edo futboleko urrezko baloiaren hautaketari buruz. Mintzagai horiek, noski, arruntagoak dira beste hauek baino: nola banatu behar diren aurrekontuak, nor ordaintzen duen finantza-kapitalismoaren krisia edo zer eginkizun izan behar duen hezkuntzak gure estatu postnazionalen etorkizunean. Izan ere, gure esperientzia birtualak instituzionalizatu egin du gezur publikoa sozializatorako tresna gisa,

eta hain modu sinesgarrian egin du, ezen honezkero ez dugun inolako lotsarik egiaren eta gezurraren ur zurrumbilotsuetan modu konpultsiboan, zinikoan eta iruzurtian nabigatzeko.

Laugarren irudipena osotasunarena da. Eta horrek begi-Sarea begirada panoptiko gisa ulertzea garamatza, den-dena ikusten duen eta aldi berean toki guztietan dagoen ardatz mugiezin gisa. Internautaren esperientzia bat dator, ia milimetroz milimetro, ikusle bai panoptiko bai panoramikoarenarekin, haren begiradak ez baitu hondakinik onartzen, “ikustea existitzea baita”. Eta lotura panoptiko horrek irudipen hologramatiko eta fantasmatico bikoitza eragiten du. Batetik, berekin dakar begiratzeko nahia eraikitze modua edo, beste era batera esanda, inoiz ezin utzi izana ikusteari, Internetek behartu egiten baikaitu inpunitatez ikustera (eta irakurtzera). Bestetik, begi-Sarea zerbait jazotzen den leku guztietan dago, eta errealitate birtuala munduaren aurpegi bilakatzen du: esperientzia ez da existitzen ez bada ziberespazioan ageri.

Interneten auzia gizarteko fenomeno oso gisa oso argi ikus dezakegu gazteen esparruan, batik bat arlo publikotik, politiketatik eta harreman sozial helduetatik, gizarteko protagonismotik eta autorregulaziotik baztertuta dagoen talde bat delako –lehendik ere aipatu dugun moduan-. Baina Internetek bitartekoak eskaintzen dizkie berdinen artera sartzeko eta bertan integratzeko, helduen munduan gertatu ohi denez, eta, modu horretan, gure gazteek prestakuntza eta informazioa eskura ditzakete; publizitate pertsonalizatua ikustarazi, sustatu eta garatu dezakete; ziberespazio bidezko negozioak abiaraz ditzakete, eta iritzia eman dezakete, parte hartu eta lan egin, adinaren irizpideari lotutako hainbesteko kontrolik gabe.

Beraz, sarea igarotze-errituak ezartzen dituen tresna da, helduen bizitzak esan nahi duenaren “entsegu txikiak”. Ziberespazioa alderdi kognitiboan, motibaziozkoan eta kulturalen erraz egokitzen den ekosistema bat baino zerbait gehiago da. Haren bidez balio berriak

ezagutzen eta barneratzen ditugu; rol desberdinak esperimentatzen ditugu, etengabeko *self-service* moduko batean, eta nolabaiteko harremana dugu arriskuarekin eta jokabide arriskutsuekin. Bai, Internet fenomeno oso bat da. Komunikaziorako eta informaziorako bide bat ez ezik, harreman sozial osoak, nazioartekoak, norbanakoaz eta funtzioaz gaindikoak eta sexuen, belaunaldien eta kulturen arteko elkarrekikotasuna dutenak izateko bidea ere bada; hortaz, “bitarteko laguntzat” hartzen dugu.

Bosgarren eta azken irudipenak gertaerarekin du zerikusia. Zehatz dezagun zer motatako gizartetan ezarri den ziberespazioa: gizarte aurre-neolitikoa, kanibala, non etengabe nahasten diren jatekoen, erabiltzekoen eta begiratzekoen arteko mugak. Fetitxismoko eta kontsumoko zoritxarreko dialektika. Gauza guztiak merkantzia dira, eta, aldi berean, objektu guztiak «jangerriak». Akats bat egin badugu ere, sareak horrelako gizarte bat sortzen ere lagundu du.

Ziberespazioak eskaintzen duen esperientzia bisualak, irakurtzekoak, entzutekoak, gorputzekoak eta afektiboak munduko gainerako izaki guztien patu bera izan du ezinbestean, begi-Sarean merkantziak bizkor eta etengabe berritzeak baitu lehentasuna. Interakzio birtualen bidez, honako hauek gertatzen dira, bata bestearen atzetik, abiada bizian: klimax-uneak, egoera gorenak, aparteko garaiak. Komunitate birtualetako gertaeren filosofiak, “han eta orain” egoteak, taldean (birtualki) zerbait historikoa bizitzeak eta partekatzeak hain justu kontrakoa dauka ezkutuan: Iniestaren golaren, Casillasen musuaren edo Mubaraken erorketaren monumentalismoaren ostean, esperientzia “historiko” bat bizitzen eta partekatzen ari garela sentitzen dugun une horietan, batez ere ukatzen ari gara historia, prozesu historikoak, gauzen zentzua ulertzeko aukera eskaintzen diguten kausa-efektuko kateak.

Kapital kulturala eta soziala zabaltzea sare sozialen bidez

Gaur egun sare sozialen bidezko alfabetizazio modu ugari hitz egiten dugunean (digitala, elektronikoa edo birtuala, informazionala), komeni da komunikabide-teknologia askoren oinarri garrantzitsuenetako bat aztertzea: ingurune sozialak eta elkarlanean sortzeko espazioak dira, “banatutako adimen materiala” (Piscitelli, 2009), esku hartzen duena gure gaitasun intelektualen garapenean (arrazoimena, irudimena eta memoria), zeinen bidez jasotako herentzia kulturala biltzen eta handitzen dugun.

Agian, egokia da ez hartzea komunikazio sozialeko bitartekoak enpresen eta merkataritzako plataformen kontrol- eta botere-tresna gisa edo kulturaren degradazioaren sustatzaile gisa (nahiz eta badiren, dudarik gabe); izan ere, bertsio horiek ez dira lagungarriak, edo ez, behintzat, oso lagungarriak, sare sozialetatik erator daitezkeen ikaskuntza-prozesuei buruz ezer argitzeko. Komenigarriagoa da trukerako sistema horiek entrenamendu kognitibo konplexutzat hartzea (Manovich, 2001), kontakizunen linealtasuna apurtzen duten pentsamolde berri gisa, aukera emanez erabiltzaileari zenbait eduki aldi berean lantzeko, pantaila interaktiboak erabiliz aldi berean ataza bat baino gehiago egiteko (dokumentu bat edo argazki bat ireki, eta hari buruzko iruzkin bat egin, posta kontsultatzen eta irakurtzen dugun bitartean, edo jaso dugun esteka batetik sarean nabigatzen dugun bitartean). Ingurune sozial horietan irakurtzeko beste estrategia batzuk garatzen ditugu. Edukiak gailu mugikorren, ordenagailuen, tableten eta abarren pantailen gainazaletan ageri dira antolatuta, eta, hortaz, harreman etengabea dago erdigunearen eta periferiarene artean, eta alde batera uzten ditugu irakurtzeko egitura klasikoak (linealak eta hierarkikoki beherantz doazenak). Zenbaitetan, emaitzak hain dira konplexuak, ezen zaila izaten den jakitea badagoen pertsonaia nagusirik, narrazioak baduen norabiderik oinarrian (Scolari, 2008).

Azken finean, sarearen erabilera laborategi gisa ulertzea, kontaketa pertsonalizaturako edo taldeko kontaktetarako espazio gisa ulertzea, non ezagutzak hizkera guztiekin (hitzezkoa, ikonikoa, soinuakoa, interaktiboa) deskribatzen, azaltzen eta proposatzen diren, berekin dakar lan profesionalerako espazioaren hedapena, oraintxe antzeman besterik egiten ez duguna. Hedapen horrek lotu egiten ditu ezagutzaren eraikuntzan eragiten duten alderdi formal, ez-formal eta informal guztiak, eta harreman horri *ikaskuntza ikusezina* (Cobo eta Moravec, 2011) edo *nonahiko ezagutza* (Burbules, 2009; Cope eta Kalantzis, 2009) deritzogu.

Bibliografia

- Alba Rico, S. (2007). La televisión: cinco ilusiones y una propuesta. *Capitalismo y nihilismo: dialéctica del hambre y la mirada* (75.-92. or.). Madril: Akal.
- Bauman, Z. (1999). *Modernidad líquida*. Madril: FCE.
- Benedicto, J. (2008). La juventud frente a la política: ¿desenganchado, escéptica, alternativa o las tres cosas a la vez? *Revista de Estudios de Juventud*, 8, 13-30.).
- Bontempi, M. (2003). Viajeros sin mapa. Construcción de la juventud y recorridos de la autonomía juvenil en la Unión Europea. *Revista de Estudios de Juventud*, Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrenerako argitalpen berezia, 25-44.
- Burbules, N (2009). Meanings of ‘Ubiquitous Learning’. B. Cope and M. K. Kalantzis (arg.). *Ubiquitous Learning. Exploring the anywhere/ anytime possibilities for learning in the age of digital media* (15.-20. or.). Champaign, IL: University of Illinois Press.

- Caillé, A. (2000). *Anthropologie du don. Le tiers Paradigme*. Paris: Desclée de Brouwer.
- Castel, R. (1997). *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*. Buenos Aires: Paidós.
- Castel, R., eta Haroche, C. (2001). *Propriété privée, propriété sociale, propriété de soi*. Paris: Fayard.
- Cobo Romani, C.; Moravec, J. W. (2011). *Aprendizaje Invisible. Hacia una nueva ecología de la educación*. Colección Transmedia XXI. Laboratori de Mitjans Interactius / Publicacions i Edicions de la Universitat de Barcelona. Barcelona.
- Cope, B. and Kalantzis, M. K. (arg.) (2009). *Ubiquitous Learning. Exploring the anywhere/ anytime possibilities for learning in the age of digital media*. Champaign, IL: University of Illinois Press.
- Giddens, A. (1998). *La tercera vía. La renovación de la socialdemocracia*. Madrid: Taurus.
- Manovich, L. (2001). *The Language of New Media*, Cambridge, MIT Press.
- Piscitelli, A. (2009). *Nativos digitales. Dieta cognitiva, inteligencia mediática y arquitectura de la participación*. Buenos Aires: Santillana.
- Rendueles, G. (2004). *Egolatría*. Oviedo: KRK ediciones.
- Sennett, R. (2000). *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Scolari, C. (2008). *Hipermediaciones. Elementos para una Teoría de la Comunicación Digital Interactiva*. Barcelona: Gedisa.

**KOMUNIKATZEKO ESKUBIDEA ETA PRIVATUTASUN-
ESKUBIDEA SAREAN: BINOMIO KEZKAGARRIA 14
URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK DITUZTEN
FAMILIENTZAT**

Jon Altuna Urdin¹²

Sarrera

Interneteko zerbitzu batzuetan, komunikazioa eta pribatutasunik eza plataforma eta sare beretan ager daitezke elkarren ondoan, eta horrelako zerbitzuak erabiltzen uzteak zalantza ugari sortzen ditu. Kapitulu honetan, Gipuzkoako familia askok egoera horri nola aurre egiten dioten aztertuko dugu. Komunikazioa eta pribatutasunik eza elkarren ondoan agertzea are interesgarriagoa eta kezkarriagoa da 14 urtetik beherako gazteen guraso eta hezitzaileentzat; izan ere, teoriar, gutxienez 14 urte eduki behar dira sare horietan izena emateko eta eskaintzen dituzten komunikazio-aukerak erabiltzeko, baina, praktikan, gehienek lehenetik ere erabiltzen dituzte.

Hortaz, zerbitzu horiek erabiltzen utzi aurretik, familia orok Aldous Huxleyren (1960) aipu hau hausnartu behar luke:

“Bada arriskurik haurrei probetxuz erabil dezaketena baino askatasun handiagoa emateko, eta nahi dutena edo beren gain har dezaketena baino ardura gehiago emateko”. (Aldous Huxley, 1960, 197. or.)

Beste modu batean esanda, onartuko dugu 14 urtetik beherako semeak edo/eta alabak erabiltzaile askorekin komunikatzeko aukera eta askatasun handiagoa izatea pribatutasuna galtuta eta argitaratzen duen ororen erantzule eginda?

¹² Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Galdera oso ziztatzailea izan daiteke, baina egiazkoa. Izan ere, bilakaera digitalak eta komunikatzeko aukera berrien ugaritzeak Facebook, Tuenti, Line, Whatsapp eta beste komunikazio-sare batzuen bitartez aldaketa handiak ekarri dituzte harremanak izateko moduan eta nerabeek, zehazki 14 urtetik beherakoek, informazioa elkartrukatzeko moduan.

INTECOren ikerlanak (2011) eta beste batzuek argi islatzen dute Interneteko konexioa, etxeetara, eskoletara, languneetara eta erakundeetara ez ezik, mugikorretara eta adingabe horiek erabiltzen dituzten bestelako gailu eramangarrietara ere iritsi dela. Ondorioz, gailu horien erabilerak eragin handia du gizartearen zati handi baten ohituretan eta harremanetan. Nolanahi ere, hemen aztertuko dugun kasuan, badira zenbait alderdi bat ez datozenak guraso askoren interesekin, erantzukizunekin eta baita seme-alabentzat nahi duten heziketarekin ere. 14 urtetik beherako asko erregistratuta dauden Interneteko plataforma eta zerbitzu gehienetan erabilera-arau eta - baldintza batzuk bete behar dituzte, eta, gure ustez, oro har ez dituzte betetzen, ez dituzte irakurtzen edo/eta batzuetan ez dituzte ezagutzen. Google, Facebook edo horrelako zerbitzuak eskaintzen dituzten beste konpainia handi batzuek nahiago dute ezikusia egin eta, kasurik okerreanean ere, dagokion datu-agentziak ezarriko dien isuna¹³ ordaindu, erabiltzaile, informazio edo/eta datu kopuru ikaragarri hori galdu baino.

Gertaera multzo horrek berekin ekar dezake adingabeek neurritz kanpo argitaratzea datu pertsonalak, argazkiak, bideoak eta bestelako informazio gehigarriak, adingabe horien kalterako izan daitezkeenak eta gurasoek seme-alaben pribatutasuna zaintzeko edo babesteko zailtasunak edo ezintasuna izatea eragin dezaketenak.

Altuna, Amenabar, Lareki eta Martinez de Morentin (2013) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak arazo hori aztertzen ari dira 2007-2008 ikasturteetik. Egoeraren lehen azterketan, interesgarria da nabarmentzea 14 urtetik beherakoek gero eta gehiago erabiltzen

¹³ Datuak Babesteko Espainiako Agentziak 900.000 euroko isuna jarri dio Google-i (2013-12-20). Informazio gehiago: <http://www.20minutos.es/noticia/2010276/0/multa-google/proteccion-datos/espana/#xtor=AD-15&xts=467263>

dituztela sare sozialak, nahiz eta badakiten oraindik ez dutela plataforma, sare eta enpresa horiek eskatutako gutxienetako adina beteta. Era berean, familiak, guraso-elkarteak eta ikastetxeak gero eta kezkatuago daude egoera horrek dakartzan ondorio batzuegatik, eta orientazioa eta, zenbaitetan, prestakuntza eskatzen dituzte, seme-alabak zertan dabilzan hobeto jakiteko eta bitarteko horiek egokiro erabiltzeko zer egin eta nola aholkatu jakiteko.

Zentzu horretan, gizarteko errealitate bat ikertu dute, Gipuzkoako familien eta hainbat eskolaren kezkak abiapuntutzat hartuta. Horretarako, zenbait ikastetxetako laginak hautatu dituzte, datuak bilduta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako gurasoentzako eta seme-alabentzako galdetegi baten bidez. 2010etik 2013ra bitartean egindako bilketa- eta azterketa-lanak zenbait arrasto ematen dizkigu arazo horri buruz, baita emaitza oso interesgarri batzuk ere, kapituluan barrena azalduko ditugunak.

Laburbilduz, helburu nagusia da ikasmaita horietan dauden seme-alabek sare horiek erabiltzeko moduari buruzko gogoetan lagunduko digun errealitatea ezagutzea, eta familiei jakinaraztea zer tresna erabiltzen dituzten adingabeek, nola eta zertarako, emaitzak jakinaraziz bai ikastetxeari, bai gurasoei. Jarraian, azterketaren kezka eta ondorio nagusiak azalduko dizkizuegu.

Familien eta hezkuntza-komunitatearen kezka, Interneteko sare sozialen ezagutzari, araei, kontrolari, sarbideari eta erabilerari dagokienez.

“Ez dute gutxieneko adina, eta Interneteko sareei buruz gehiago dakite guk geuk, hezitzaileok, dakiguna baino” (Lehen Hezkuntzako irakasle den ama baten hitzak)

Gipuzkoako zenbait ikastetxetan datuak biltzean, aurreko urteekin alderatuta 14 urtetik beherakoak Interneteko sare sozialetara gehiago sartzen direla ikusi dugu. Datu hori deigarria eta kezagarria ere izan

daiteke guraso eta hezitzaile batzuentzat. Izan ere, 2013an galdeketari erantzun dioten ikastetxeetako 6. mailako ikasleen erdiak baino gehiagok dagoeneko profil bat sortuta dute plataforma horietan, eskatutako gutxieneko adina eduki ez arren. Gainera, nagusiki edo normalean plataforma horiek erabiltzeko etxean konektatzen direla jakin dugu. Ildo beretik, baina 11 eta 16 urte bitarteko gazteak aztertuta, EUKIDSek Espainian online egindako azterketa baten arabera, *etxean Internet erabiltzen dutenak galdetegia bete duten adingabeen % 84 dira, eta ikastetxeetan erabiltzen dutenak % 70.* (Garmendia *et al.*, 2011).

Datu horiei erreparatuta eta kontuan hartuta galdeketari erantzun dioten ikastetxeetan ez dituztela erabiltzen ikasgela barruan Interneteko sare sozialak, nola da posible 6. mailako ikasleen erdiak baino gehiagok gezurra esan izana plataforma horietan sartzeko? Adingabe horiek guztiek al dute gurasoen baimena? Nola iritsi gara egoera horretara?

Galdera horiei helduta, aipatu beharra dago aztertutako ikastetxeetako guraso gehienek, salbuespenak salbuespen, badakitela beren seme-alabak plataforma horietan ibiltzen direla. Horrez gainera, ikus dezakegunez, kasu dezentetan anai-arreba zaharragoek laguntzen diete kontua edo erabiltzailea sortzen. Beste batzuetan, lagunek edo gelakideek; eta kasu bakarren batean, gurasoek sortu edo kudeatu dute, semearekin edo alabarekin batera, sare sozialetarako sarrera.

Jokabide hori errepikatu egiten da adingabe horiek Interneteko sare sozialetan eskuratzen dituzten ikaskuntzan eta ezagutzan. Hau da, saiakuntza-errakuntza metodoan oinarrituta egon ohi den ikaskuntza autodidakta egiteaz gain, lagunek, lehengusu-lehengusinek edo anai-arrebek irakasten diete nola funtzionatzen duten Interneteko sare edo plataforma horietako aukera eta zerbitzu jakin batzuek, eta horien gaineko aholkuak ematen dizkiete.

Egoera horretan, zenbait gurasok ez dakite: seme-alabak Interneteko sare sozial batean edo batzuetan ibiltzen direla, ez dituztela ezagutzen erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politikak, baimenik gabe igo dituztela beste adingabe batzuk ageri diren argazki eta bideoak, datu eta informazio pertsonala partekatzen dutela erabiltzaile askorekin, ez

dutela profila konfiguratu argitaratutakoa norik ikus dezakeen mugatzeko, ekintza desegoki baten edo legez kanpoko baten erantzuleak gurasoak direla.

Egoera hori hezkuntzaren esparrura eramanda, hona hemen gure galdera:

Adingabeek Interneteko sareak egokiro erabiltzeko arauak eta prestakuntza behar dituzte?

Erantzuna argi dago: bai. Baina, egungo testuingurua aintzat hartuta, ez dirudi erraza izango denik eginkizun hori gauzatzea, eta, zenbait kasutan, ezta zehaztea ere hezkuntzako zer eragilek aholkatu edo/eta hezi dezaketen hobekien. Egungo egoerari dagokionez, batetik, eskolan, etxean eta mugikorrean Internet erabiltzen duten adingabeak dauzkagu, sarean barrena eta bertako aplikazioetan barrena trebetasunez mugitzen direnak, “eskubide” eta aukera guztiak dituztela komunikatzeko eta informazioa, edukiak eta esperientziak partekatzeko. Bestetik, gertutik ezagutzen dugu teknologia irakasgaien didaktikan sartzeko ahaleginetan dabiltzan ikastetxeetako hezitzaileen errealitatea (Crovi, 2004). Egoera horrek agerian utzi du irakasleek prestakuntza behar dutela eta garai berrietara egokitzearen prestakuntza digital hori bizkor egiteko irakaskuntza-ikaskuntzako metodologia bat pentsatu behar dutela berriz. Zeregin horretan, gero eta irakasle gehiago saiatzen dira Interneteko zenbait zerbitzu integratzen, hala nola plataforma birtualak, blogak eta wikiak; hala ere, oraindik hezkuntzako eta prestakuntzako jarduerara oso gutxi egiten dira Interneteko sare sozialen arloan.

Zenbait irakaslek dagoeneko erabili dituzte Ning, Edmodo eta beste plataforma bertikal batzuk (sarearen administrazio eta kudeaketa hierarkizatua dute) hezkuntzako helburuetarako, eta praktika horren adibide batzuk Castañedak (2010) eta De Harok (2010) bildu dituzte. Hala ere, sare horizontalak (erabiltzaileek hierarkia bera dute plataformaren barruan) dira interesgarrienak adingabeentzat, enpresa sortzaileak ez beste inork ez baitu kontrolatzen erabiltzaile bakoitzak zer egiten duen. Kasu horretan, zailtasunak izaten dira bitarteko horiek integratzeko eta, sare sozial hezigarri bilakatuta, ikasleekin prestakuntza-jardueretarako erabiltzeko; izan ere, adingabeek interes

ludikoak dituzte, sare horiek erabiltzeko gutxieneko adina behar da, familiek baimenak eman behar dituzte eta ikasleek zailtasunak dituzte sare horizontal horietan (Tuenti, Facebook...) egiten dutenaren erantzukizuna hartzeko nahiz kudeaketaz edo kontrolaz arduratzeko.

Alderdi horren gainean gogoetatuta, ikus dezakegu arlo horri buruzko prestakuntza eta ikastaroak egiteko aukera izan duten eta duten irakasleek zailtasunak dituztela sare horiek heziketarako eta aholkurako erabiltzeko. Eta, noski, familiek are zailtasun handiagoak dituzte, errealitate horretatik urrutiago baitaude eta prestakuntza jasotzeko aukera gutxiago baitute. (Altuna eta Lareki, 2010).

Ondorioz, familia horietako askok uste oker hau izan dezakete: ezer gutxi egin dezaketela seme-alabek hobeto ezagutzen duten esparru horretako heziketari dagokionez. Aitzitik, familiek dute erantzukizun handien arlo horretan, eta, hortaz, haiek izan behar dute inplikazio handien horrelako heziketan. Horregatik, ia derrigorrezkoa da Interneten eta plataforma horien aukerak eta arriskuak ezagutzea, seme-alabak plataforma horietan egiten dutenaren arduraz kontzientziatzea eta egiazko epaiak eta kasuak ezagutzea, non zigorrak eta kalte-ordainak ezarri dizkieten nagusiki gurasoei, haiek direlako seme-alaben ekintzen erantzule edo tutore.

Zentzu horretan, konfiantza hartzeko eta nola jardun jakiteko abiapuntu lagungarria da ohartzea zuzeneko eta gizalegezko bizitzarako ezarrita dauden arau asko Interneteko plataforma horietan ere aplikatu daitezkeela; izan ere, plataforma horietan, eskolako, kulturako edo/eta kiroleko beste eremu batzuetan bezalaxe, badira arau batzuk, eta bai seme-alabek bai gurasoek ezagutu eta betearazi egin behar dituzte, eta haien gaineko erantzukizuna hartu behar dute.

Hala ere, erakundeek laguntza eskaini behar diete familiei arlo horretan. Familiei bitarteko horiek ezagutzen laguntzeaz gain, sare horien enpresa sortzaileei irmoki eskatu behar diete eurak berak ezarri baina betetzen ez dituzten baldintzak betearazteko lan egin dezatela. Izan ere, oso-oso erraza eta ohikoa da adinari edo beste datu batzuei buruz gezurra esatea, beste norbaiten identitatea hartzea eta erantzukizun osoa seme-alabek edo beste erabiltzaile batzuek egin dezaketenaren mende dauden gurasoen esku uztea.

Familien eta hezkuntza-komunitatearen kezka sareko pribatutasunagatik, segurtasunagatik eta jazarpenagatik

“Guraso gehienek ez daukagu konturik Tuentin, eta ez ditugu ezagutzen arauak edo erabilera-baldintzak” (6. mailako haur baten amaren testigantza)

Familia askok aho betean onartzen dute beren seme-alabek beraiek baino hobeto ezagutzen eta erabiltzen dituztela Interneteko zerbitzu batzuk eta online plataformak. Egoera horrek segurtasunik eza eta zalantza sorrarazten die, eta are kezkarriagoa da, *groomingeko*¹⁴, *bullyingeko*¹⁵ eta *sextingeko*¹⁶ kasuei, jazarpenei, xantaiei eta sareko beste arrisku batzuei buruzko berriak ikustean. Familiei beldurra sorrarazten dieten kasu horietako gehienak maila tekniko nahiz hezkuntzako hutsegite multzo baten ondorio izaten dira.

Alderdi teknikoari dagokionez, funtsezkoa da norbere pribatutasuna eta segurtasuna kudeatzen jakitea, gure profila behar bezala konfiguraturuta, ez hutsik egiteko. Horretarako, ongi zehaztu behar dugu nori utzi nahi diogun gure profila ikusten, eta oso ongi jakin behar dugu zer erakusten diogun publikoari; horrez gainera, plataforma horietara igotzen ditugun datu guztiak zaindu behar ditugu. Beraz, gure ustez, salbuespenak eta helburu oso zehatzak kenduta, axolagabekeria da profil bat sareko erabiltzaile guztientzat irekita uztea, 14 urtetik beherakoentzat inolako mugarik jarri gabe. Dagoeneko bada denbora bat errealitate hori aztertzen hasi direla, eta zenbait egilek (Del Rio, J. *et al.*, 2001) eta erakundeek (Protégeles eta Pantallas Amigas) gai horren gaineko azterketak egiten dituzte, eta informazioa eta orientazioa eskaintzen dute.

¹⁴ Grooming: (ingelesez: «apaindu») pertsona heldu batek adingabe baten adiskidetasuna lortzeko hartzen dituen jokabideei eta gauzatzen dituen ekintzei egiten die erreferentzia. Lotura emozionala sortzen du harekin, haurraren inhibizioak gutxitzeko eta hura sexualki behartzeko.

¹⁵ Bullying: eskola-jazarpena (eskola-xaxatzea izenez ere ezaguna, ingelesezko terminoaren harira) da ikasleen artean behin eta berriz eta denbora batez txar psikologikoak, ahozkoak edo fisikoak ematea, bai ikasgelan, bai sare sozialen bidez (azken horri ziberjazarpena esaten zaio)..

¹⁶ Sexting: (*sex* eta *texting* hitzen laburketa) anglizismo bat da, eta telefono mugikorren bidez eduki erotikokoak edo pornografikoak bidaltzeari egiten dio erreferentzia.

Hezkuntzari dagokionez, ezinbestekoa da gurasoek ere sare horiek ezagutzea, alderdi teorikoak ez ezik (sartzeko arauak eta erabiltzeko baldintzak), baita eskaintzen dituzten eta seme-alabek erabiltzen dituzten zerbitzuen funtzionamendua ere. Alderdi hori oso garrantzitsua da, sare sozial ugari eta anitzak baitaude eta hainbat aplikazio, gai eta erabilgarritasun baitituzte.

Beraz, behin ezagututa adingabeek erabiltzen dituzten sare ohikoenak eta horien aukerak eta arriskuak, une egokia izango da sare horietan erregistratuta egoteko baimena eman ala ez erabakitzeko eta plataformaren beraren eta netiketeen¹⁷ arauak betetzeko bezain heldutzat hartzen ditugun erabakitzeko. Behin seme-alabak horietakoren batean erregistratuta daudenean, helduentzat oso baliagarria izango da plataforma horiek ezagutzea, irizpide adostuak ezartzeko gerora bete ditzaten. Era berean, arauak ez betetzeak aurretik zehaztutako ondorioak izan behar ditu. Modu horretan, erabilera-ohitura egokiak sorraraziko dituzte, eta lankidetzarako giroa, eta seme-alabek gurasoengana joko dute edozein arazo sortuz gero.

Kasu dezentetan, baina, sare horiek erabiltzeko irizpideak galdu, edo seme-alaben esku utzi dituzte, eta ez dute seme-alabenganako hurbilketarik egin edo interesik adierazi esparru horretan. Hala bada, zenbait gurasok ez dakite non (zer plataformatan eta zerbitzutan) ibiltzen diren seme-alabak, ezta Interneten nola jokatzeko duten ere; ez dakite zer egiten duten, zenbat denbora ematen duten horretan, norekin komunikatzen diren, etab. Halako egoerak ugarituta, babesgabetasuna handiagoa da, eta, gainera, gazteenek, arazoren bat izanez gero, ziur asko ezer ez kontatzea erabakiko dute, gurasoak ezagutzen ez dituzten gauza asko “bat-batean” ezagutzuz gero Internet kenduko dietela pentsatuta. Gerta liteke, baita ere, adingabeak honako hau pentsatzea:

Nola lagunduko didate gurasoek ez badakite ezer sareei eta Interneti buruz?

¹⁷Netiquette (edo netiketa, euskaraz) frantseseko *étiquette* hitzetik eta ingelesezko *net* (sare) edo *network* hitzetik datorren hitza da, eta erabiltzaile batek berri-talde batean (*newsgroup*, ingelesez), posta-zerrenda batean, eztabaida-foro batean edo posta elektronikokoan izan beharreko jokabidea arautzeko arauak izendatzeko erabiltzen da. Hedaduraz, Interneteko jokabide-arau orokorrak izendatzeko ere erabiltzen da.

14 urte baino gutxiagoko haurren bi alderdietako (teknikoa eta hezkuntzakoa) hutsegiteak uztartzen badira, arrisku handiagoa izango da ekintza kaltegarriak pairatzeko edo eurek egiteko hirugarrenentzat kaltegarriak izan daitezkeen ekintzak, salaketak ekar diezazkieketenak Interneteko komunikazio-plataforma horietan.

Testuinguru horretan, gure ustez familiak eta hezitzaileak egoera ahulagoan eta babesgabeagoan daude, sareko edozein erabiltzailearen asmo txarreko ekintzak ekidin ahal izateko.

Zentzu horretan, Pribatutasunaren Espainiako Elkarte Profesionaleko lehendakariak (Ricard Martínez, 2012), besteak beste, eskaera bat egin du, Lehen Hezkuntzako programetan Internet modu seguruan erabiltzeko arauak irakasteko irakasgai bat sartzea beharrezkoa dela defendatzeko.

Gizarteari sarean erabilera arduratsua irakasteko neurri guztiak ongi etorriak direla onartzen badugu ere, argi dago oso-oso garrantzitsua dela familiek prozesu horretan konpromisoa hartzea eta jarraipena egitea. Gure ustez, eskolaren gain uztea erantzukizun guztia lehendik aipatu dugun alderdietako bati jaramonik ez egitea da, zehazki hezkuntzaren alderdiari, non gurasoen zeregina funtsezkoa den.

Hortaz, oso baliagarriak iruditzen zaizkigu Interneteko komunikazio-plataformei eta sare sozialei lotutako gaien gainean ikastetxeetan gurasoei eskaintzen zaizkien informazio, prestakuntza-ikastaro eta hitzaldi guztiak. Horren osagarri, noski, familiek asmo ona izan behar dute alderdi hori alde batera ez uzteko, seme-alabek honako hauek behar baitituzte bertan: heziketa, jarraipena, mugak, autokontrola, ardura eta arauak.

Familien kezka adingabeek sozializatzeko erabiltzen dituzten espazioei eta moduei begira

“Denbora gehiago igarotzen dute etxean jolasean kalean baino, eta zer gertatzen zaien pertsona gehiagori kontatzen diote pantailen bidez aurrez aurre baino” (6. mailako haur baten aita)

Funtzio sozializatzailea dela-eta, familiei sare sozialekin, komunikazioarekin eta pribatutasunarekin lotutako beste alderdi batek ere eragiten die kezka, hots, gazteek sozializatzeko erabiltzen dituzten espazioek. Gaur egun, baieztatu egin dezakegu sare sozialak indarrez sartu direla gazteen bizitzan, eta finkatzen ari dira, beste belaunaldi batzuek izan ez ditugun harreman- eta sozializazio-espazio gisa.

Zentzu horretan, eta oinarritzat aita baten testigantza hartuta, galdera hau egin nahi diogu geure buruari: gerta daiteke Interneteko sare sozialak nerabeen sozializazio-espazio nagusi bilakatzea?

Espazioez ari gara, jolas-ohiturez eta kirol-jarduera ludikoak egiteko ohiturez, zeinak maitasunez gogoratzen ditugun dagoeneko urte batzuk dauzkagunok. Hau da, jolasteko guneak, olgetarakoak eta zuzenean sozializatzekoak, aire zabalean zeudenak, auzoan, parkean, “atarian”, gertuko mendiaren magalean, inprobisatutako futbol-zelai batean, pilotalekuan edo kalean. Egunero haur eta gaztez beteta egoten ziren espazio horiek gaur egun urriagoak dira, edo ez dago hainbeste aukerarik, bai tokiak falta direlako, bai ohiturak aldatu direlako, bai espazio publikoak eta aire zabalekoak instituzionalizatuago daudelako. Zenbait arrazoi direla tarteko, toki horiek gero eta hutsago daude, eta gero eta bizitza gutxiago dute, batez ere hiri handietan.

Hortaz, kezka da ea baden kasurik non Interneteko sare sozialek sozializazioko espazio osoa edo haren zatirik handiena hartzen duten, harremanak birtual bilakatuta eta neurri handi batean murriztuta aurrez aurre elkartzeko eta jolasteko beste aukera eta espazio batzuk.

Ikuspegi horretatik, nerabe batzuek jarraitzaile birtual ugari izan ditzakete, beren informazioak, bideoak, argazkiak edo sareko adierazpenak gertutik jarraitzen dituztenak, baina agian “egiazko” lagun gutxi dituzte, edo bat ere ez, buelta bat ematera joan ahal izateko edo taldeko kirol bat egin ahal izateko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigu komunikazio eta gaitasun digital egokia eskuratzea, sare sozialak ezagutzea eta erabiltzea, haien aukerak bereziki gazteenak hezteko erabiltzea eta ahalik eta probetxu handien ateratzea, baina ahaztu gabe

zer-nolako garrantzia duen zuzeneko harremanak, komunikazioak eta elkarreragite-espazioak mantentzeak.

Bibliografia

- Altuna, J. eta Lareki, A. (2010). Digital divide between teenagers and parents. Secondary Education in the 21st Century. New York. Nova Science Publishers.
- Altuna, J.; Amenabar, N.; Lareki, A. eta Martínez de Morentin, J.I. (2013). Las redes sociales y las diferencias intergeneracionales: un análisis entre Europa y Estados Unidos.
- Castañeda, L. (koord.) (2010) *Aprendizaje con redes sociales. Tejidos educativos para los nuevos entornos*. Sevilla, Mad-Eduforma.
- Crovi, D. (2004). *Sociedad de la información y el conocimiento. Entre lo falaz y lo posible*. Buenos Aires: Crujía Ediciones.
- De Haro, J.J. (2010) *Redes Sociales en Educación*: Bartzelona 2014/01/02an kontsultatua.
http://aulavirtual.catedra.com.co:8081/mnt/tomcat/cursoscat/curso_scatDian/curso-13/files/1319411880redes_sociales_educacion.pdf
- Del Rio, J., *et al.* (2010) Menores y redes ¿sociales?: de la mistad al cyberbullying. *Revista de Estudios de Juventud*, 88, 115-129.
- Garmendia, M. *et al.* (2011) *Riesgos y seguridad en internet: los menores españoles en el contexto europeo. Resultados de la Encuesta de EU Kids Online a menores de entre 9 y 16 años y a sus padres y madres*. 2013/12/01ean kontsultatua.
http://www.sociologia.ehu.es/s0018eukidsct/es/contenidos/noticia/eukids_informe_280311/es_not/adjuntos/Informe_Espa%C3%B1a_completo_red.pdf
- Huxley, A. (1960). El fin y los medios. Una encuesta acerca de la naturaleza de los ideales y de los métodos empleados para su realización. (5. edizioa). Editorial Hermes. Mexiko.

INTECO (2011) *Estudio sobre hábitos seguros en el uso de smartphones por los niños y adolescentes españoles*. Madril, Inteco-Orange. 2013/12/28an kontsultatua. <http://bit.ly/xgsYBc>.

Martinez, R. (2012) Interés legítimo y protección de datos personales en la sentencia de 8 de febrero de 2012 del TS. Presidente de la Asociación Profesional Española de Privacidad. El Derecho. Grupo Francis Lefebvre. Madril.

Esteka interesgarriak:

<http://www.protegeles.com>

<http://www.pantallasamigas.net>

<http://www.ciberalerta.info/index.html>

<http://www.internetsegura.net>

<http://chaval.es/>

<http://www.ciberfamilias.com>

<http://www.defensordelmenor.org>

<http://www.netiquetate.com>

<http://www.inteco.es>

<http://www.internetamiga.net>

<http://www.intearnautas.org>

ARIMAREN SUFRIMENDUA LAUSATZEKO BERTSOAK

Pío Pérez Aldasoro¹⁸

Atarikoak

Espainiako Gerra Zibila izan da Hego Euskal Herriak XX. mendean bizi izan dituen garairik tragikoenetakoa. Gerrak eragindako lehenengo izu eta ezustekoen ostean etorri ziren gerraondoko errepresioa, pobrezia eta gosetea, bata bestearen atzetik.

Walter Benjamin idatzita utzi zuen memoriak gogo eta sentimenduen mundutik ihes egiten zuela, harik eta ezagutzeko tresna zehatza izateraino(Aiestaran 2010). Urte batzuk beranduago, Theodor Adornok (2009) oroimenak inperatibo kategoriko berria bultzatu zuen: gogoratu egin behar da, gogorazi egin behar dugu, etorkizunean hainbat gertakizun lazgarri berriro gerta ez daitezen.

Paz Moreno Feliuren liburu batean (2010) agertzen den kontzeptua erabilia, esan dezakegu Zapiraindarren testigantzak ezagutza pozoitsuak direla. Hau da, Joxe aitaren eta seme Salbadarren testigantzak erresistentzia-moduak bezala ulertu behar dira; ezagutza horiek askatasuna eta zuzentasunaren guneak eraiki nahi izan baitzituzten Francoren diktadura garaian.

Zapiraindarrak: bertsolari eta bertsozaleak

Biografia ahaztu horien ondoan badaude historiatik desagertu diren beste hainbat bizitza ere, desagerrarazi egin dituztenak, hain zuzen. Urte askotan, biografia xehe horiek oroimenaren tiraderan gorde behar izan zituzten, isilpean, ezkutaturik; esaterako. Konfiantzazko mundua, harremanak eta eraikitako balio-sistema buruaren gainera etorri

¹⁸ Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

zitzaizkien, askotan konturatzeko denborarik izan gabe. Eta galera pertsonalaren sentipena isiltasunean gorde behar izan zuten.

Zapirain Ezeizatarrek Bordaxar baserrian izan zuten jaioleku eta bizitoki. XIX. mendean eta XX. mendeko lehenengo herenean, Altza herrian bertsozaletasun handia eta puntako bertsolariak zeuden. Hango bertsozaletasunaren ospeak Altzako mugak gainditu zituen eta, sarritan, Euskal Herriko bazter guztietako bertsolariak inguruko sagardotegi eta tabernetan biltzen ziren. Parrandetarako xelebrea omen zen Altza; 1920an 25 taberna eta sagardotegi zeuden udalerrian, eta 2.000 biztanle. Altzako inguruetako establezimenduetan, Xenpelar luxuzko bertsolari bisitaria izaten zen; lana egin ondoren, maiz joaten omen zen Altzako Mirazone sagardotegira (Roquero 2005).

Inguruko beste baserriak bezala, Bordaxar baserria ere betidanik izan zen bertsozaleen eta bertsolarien topagunea, lau pareta haien artean jaio ziren Joxe Bixente, Juan Kruz eta Joxe Zapirain. Etxeko sukaldean ez ziren falta hiruren bertsoak, ez eta semeren baten erantzunak ere. Juan Kruz eta Joxe anaien ospea laster zabaldu zen inguruko herrietan, Juan Kruzengana jende ugari joaten zen bertso-paperak jar zitzan eskatzera.

Joxe Zapirainek semeei nahiz lagunei esana omen zien, berak bertsotan ibili gabe ezin zuela bizi, emozioz itota aurkituko zuela heriotza, alegia. Joxeren aburuz bertsoak bizirik egoteko baliabideak ziren, sentimendu eta emozioak kanporatzeko, barneko pentsamenduari koherentzia emateko; azken finean, munduari aurre egiteko tresna egokiak ziren bertsoak.

Sendiaren zenbait datu biografiko

Bertsolari eta bertsozale familia honi buruz hainbat idatzizko erreferentzia ditugu. Aipamen biografiko nagusi eta interesgarrienak Auspoa herri literatura saileko liburu-bilduman daude jasota. Besteak beste, nabarmentzekoak dira Antonio Zavalak idatzitako Zapirain anaiak (1975) bertso-bilduma, edo Atañok -Salbador Zapirain-idatzitako Txantxangorri Kantaria (1979), aitaren bizitzaren inguruko biografia nobelatua. Bestalde, ahaztezinak dira Salbador Zapirain sinadurapean argitaratu ziren Espetxeko negarrak (1984a) edo

Zigorpean (1984 izeneko eleberriak. Halaber, interes handikoak dira Manuel Lekuonak ikerlanetan Juan Kruz Zafiraini buruz egin zituen aipamen biografikoak; eta Jesus Maria Leizaolak erbestean egindako Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca entsegua (1965). Badira, bestalde, han hemenka argitaratu diren aldizkari eta prentsa artikulua.

Aitona, Joxe Bixente

Bertsolari eta bertsozale dinastia honen hastapenean Joxe Bixente Zafirain Esain dugu. Joxe Bixente Zafirain Erreterian jaio zen 1820ko martxoaren 26an. Juan Kruz Zafirain Etxeberria eta Joxe Zafirain Aranburu bertsolarien aita dugu. Joxe Bixente bertsozale amorratua zen, lagun koadrilan aritzen zen bertsoan ostatu eta sagardotegietan.

Juan Kruz, anaia nagusia

Juan Kruz Zafirain Etxeberria 1867an Erreteriko Bordaxar baserrian etorri zen mundura. Bere garaian sona handiko bertsoak sortu zituen; beharbada, ezagunena “Brabanteko Genobeba bertso berritan” (1929). Bertsolariak inprobisatu egiten zituen bertsoak emazteak liburua gaztelaniaz irakurri bitartean. Gauero, afalondoan, emazteak Brabanteko Genobebaren bizitzari buruzko atal batzuk irakurtzen zituen eta, ondoren, Juan Kruzek bertsoak inprobisatzen zituen oheratu aurretik. Memorian gordetzen zituen sortutako bertsoak, eta biharamunean emazteari banan-banan kantatzen zizkion, koaderno batean idatz zitzaizkien. Entzute handikoak izan ziren Juan Kruzaren beste zenbait bertso, esaterako “azkeneko gaba” izenburua zeramatenak. Emaztea, Mikaela, hil zitzaion gripearen ondorioz 1918an, azken semea jaio ondorengo egunetan. Emazteari, hilzorian zela, jarritako bertso hunkigarriak ziren.

Joxe, anaia gaztea

Joxe Zafirain Aranburu, Joxe Bixente Zafirain eta Josefa Aranbururen semea, 1873an jaio zen. Juan Kruz anaiari gertatu bezala, Joxe alargun geratu zen. Maria Kontzeptzion Ezeiza 1919an hil zen. Baserrian senitarteko guztiak gaixotu ziren Espainiako gripea izeneko izurriteaz. Emazteak, haurra izan berritan, ezin izan zuen gaixotasuna

gainditu. Joxe bederatzi semerekin geratu zen baserrian, gazteenak hilabete eskas zuela.

Salbador, biloba

Salbador Zapirain Ezeiza, Joxeren semea, 1912an jaio zen Bordaxarren.

Antonio Zavalaren babes eta laguntzaz, “Auspoa” argialetxean, aitaren bizitzari buruzko Txantxangorri kantaria kontakizun luzea plazaratu zuen 1979an. Arrakasta handia izan zuen. Geroztik, beste liburu batzuk eman zituen, erdi autobiografikoak, erdi fikziozkoak, guztiak Auspoa argialetxean. Harenak dira, besteak beste: *Txantxangorri kantaria* (1979), *Txori* (1981), *San Frantziskoren bizitza* (1981), *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean* (1984); *Eltzaorra* (1985), eta beste liburu andana.

Xanti, birbiloba

Xanti Zapirain Elizalde 1953an jaio zen Alzako Sindikatu baserrian. Juan Kruz Zapirain Ezeizaren semea da. Xanti Zapirainek hainbat aldizkaritan idatzi ditu bertsoak. Familiari eta bizitzari buruz gordetako hainbat oroitzapen eta emozio (aitonak egiten zuen bezala,) bertsoak kantatuz plazaratu ditu. Eleberri bat idatzia du, *Bizi behar dugu* (2005) Horrez gain, zenbait blogen egilea eta sustatzailea da.

Gerraren oroitzapen mingarriak.

Irailaren 14an, Bordaxar baserriko sukaldean, aita zazpi semeekin bazkaltzen ari zen bitartean, etxe atarian oihu, birao eta zalaparta ugari entzun ziren: bezperan bertatik igarotako erreketek eta guardia zibilak ziren. San Markoko gotorlekuan finkatuak ziren jadanik bizilagun berriak.

Baserriko sukalderaino sartu ziren txapelgorri eta txapeloker armatuak, oihuka eta mehatxuka. Etxeko gela guztiak goitik behera miatu zituzten. Ehizarako hiru eskopeta zahar herdoildu, hamarka kartutxo, perdigoiak eta 2.000 pezeta izan ziren etxean aurkitu zuten

guztia. Badaezpada, atxilotutako Zapiraindarrak San Marko gotorlekura eramán zituzten gatibu.

Familian ezin zuten sinetsi gertatzen ari zitzaiena: bat-batean, konturatu orduko, borrokaren zurrunbiloaren erdi-erdian zeuden. Garaiko abertzale gipuzkoar askok bezala, Zapiraindarrei ez zitzaien bururatu arazorik izango zutenik, ez zuten ezer txarrik egin eta. Zentzu bertsuan, Gipuzkoako herri askotan, familia abertzale ugari etxeetan geratu ziren frankistak iritsi zirenean. Usteak erdi ustel, eta abertzaleak ziren atxilotu eta errepresaliatu asko, errepublika garaiko une zailenetan elizak eta apaizak babesten ibilitakoak.

Joxe askatu zuten biharamonean, handik bi egunetara etxera itzuli ziren 3 seme gazteenak, eta beste lau seme: Jose Ramon, Antonio, Salvador eta Juan Jose Donostiako Ondarreta izeneko espetxera eramán zituzten.

Infernuaren atarian.

Ondarreta espetxeko egoera penagarria zen. Espetxea erabat hutsik zegoen, ziegetan lau pareta besterik ez, lo egiteko koltxoirik gabe, mahairik eta aulkirik bakar bat ere ez. Lau presoak zaintzeko kartzelari bakarra zegoen. Lau pareta haien artean igaro zituzten lehenengo egunetan ez zuten ezertxo ere jan. Laugarren egunean zaindaria bere patrikatik erosi zien ogi pare bat, eta ogia izan zen egun batzuetarako elikagaia. Handik aste betera gatibu gehiago eramán zituzten.

Lehenengo egunetako gabeziez gain, gaiztotu egin zen Ondarretako giroa egun gutxitan. Preso andanak ateratzen zituzten gauero espetxeko atetik. “Está usted liberado, preparese” agintzen zieten, baina espetxeko ateak gurutzatu bezain pronto kamioitzarretan sartzen zituzten eta Hernaniko hilerrira, Astigarragako edo Oiartzungo mendietara edo Berako harrobira eramaten zituzten gauez.

1936ko urriaren 21tik 22ra arteko gauean komunikatu zitzaien zapiraindarrei Burgosetik ekarritako sententziaren berrespena: Jose Ramon eta Antoniorentzat heriotza-zigorra eta Juan Jose eta

Salbadorrentzat bizi arteko espetxe-zigorra. Heriotza-zigorra hurrengo goizean exekutatu zen, espetxeko patioetan.

Joxek jakin zuen Antonio eta Juan Jose semeak hil zituztela.

Etiket irten baino lehen, baserriko atarian gizonezko bat agertu zitzaion Joxeri; Ondarretan presoak laguntzen ibiltzen zen apaiz-jesuita bat zen, bi semeren inguruko berria ekarri zion: goizeko seietan Antonio eta Jose Ramon fusilatu zituzten Ondarreta espetxearen barnean. Gaua apaizaren laguntzarekin igaro zuten. Lasai eta duin, heriotzarako prestatu zituzten arimak.

Joxe, berria entzun zuenean, zerua gainera eroriko balitzaio bezala geratu zen, hitzik esan ezinik. Halaber, barneko emozioa azalduz, fusilatutako Jose Ramon eta Antonio errugabeak omendu nahi zituen. Ezin zuen hitz arruntekin barneko samina azaldu, eta hitz errimadunak lotzen hasi zen:

Sentimendu asko dauzkat nerekin
orain kontatu biarrak
Ez dakit nola zuzenduko ´iran
Egin dituzten okerrak;
Pazientzitik ez naiz atera
Jaungoikoari eskerrak,
Leku askotan jarri dituzte
Tristura eta negarrak,
Len amar lagun giñan etxian
Ta orain iru bakarrak.

Atentziyua izan zazute
nik esandako itzakín:
nere biotzik ezta poztutzen
dirua eta gauzakin,
eztakigu noiz jarriko geran
kontsuelo eta pozakin;
bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan ez jakin,
milagro ezta ni egotia
kuidado eta kezakín.

errezo asko eginez;
bi seme illak, beste bi preso
beste bi non dan jakin ez,
nire biotza tristuran dago
ezin sendaturik minez.

Milagru ezta pena aundiya
izatia biotzian,
negar malkuak saltatzen zaizkit
inoiz gogoratzian;
ezeren mantxik eta batere
kulpa gabiak il zian,
beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
zer kontatu izango dute
elkarrengana biltzian.

Orra zer lana ekarri diran
nire semien paltiak,
ta ortatikan izandu ditut
familiarako kaltiak;

Adierazi biar dizutet
 esango dizutet ziñez,
 tristura ontatik iñola ere
 apartatu al bagiñez;
 atentziyua izan zazute

ai, penosuak izandu dira
 pasa ditudan urtiak,
 kastigu oiek izandu dira
 gogorak eta fuertiak,
 emen izango al ditut arren
 beste munduko partiak!

(Zavala 1975: 272)

Hildako eta kartzelaratutako semeei egindako bertso haien bidez, Joxek laburbildu egin zituen Euskal Herria une hartan jasaten ari zen sufrimendu eta oinazea. Bertсотarako aukeratu zuen orainaldiaren erabilerak balio atenporala ezarri zion konposizioari.

“... Amabiak... Ordu ori jo zueneko bat-batean pixtu iyun espetxeko argiak... Goizeko seiretan , orma bitarteko il zizkitiken, espetxeko patioan bertan...”. (Zapirain 1984: 179)

Semeak fusilatu zituztela jakin izanak ahaztarazi egin zion Antonioren kartazala patrikan gordeta zuela. Paperean bertso batzuk zeuden idatzita, Jose Ramonek, semerik zaharrenak, lerro batzuk utzi zituen. Aitaren ohituraz baliatu zen heriotzari aurre egiteko, eta honela esan zion agur familiari:

Nere aita eta anai maiteak,
 gu hola hiltzea naiko zuan
 gure jainko maiteak,
 zuei ere dicha on bat dizutela eman
 Virgiña gracias beteak.

Gure odolarekin garbi ditzala
 gure munduko kalteak,
 agur esaten dizuet
 nere aita ta munduko lagunak
 bukatu dira kontutako egunak.
 Munduan ez dira danontzako olako portunak
 emengoa utzi ta zeruan
 eitera noa ezagunak.

Nire azkeneko agur ederra, Aita, Juan Joxe,
 Saturnino, Joakin, Salvador, Juan Kruz,
 Manuel, Joxe Mari. Gorantziak, zerurarte.
 Ondo bizi eta catolico onak bezala, euskotar
 zintzoak bezala gure ama elizaren alde egin

(Aizpuru 2006: 140)

Une larri hartan bertsoak salbamenduzko euskarri bilakatu ziren berriro ere. Antoniok, kantuaren bidez, etorkizunerako testigantza geroan utzi nahi izan zuen, munduan jakin zedin euskaldun errugabeak hil behar zituztela eta, era berean, zabal zitezen Zapirainen etxean zeuzkaten balioak: fedea, euskara eta etxekoen maitasuna.

Urte batzuk geroago, 1950an, Franco diktadorearen zentzura zorrotzaz trufatuz, Joxek hartu zuen Antonioren lekua, eta semeak heriotza-kaperan zela idatzi zuen bertsoa oinarri hartuta, aitak bertso berria sortu eta argitaratu zuen. Ondoko bertso hauek Joxek idatzi zituen, eta semeen ahotan irudikatu zituen fusilamendu ordua noiz iritsiko zain zeudela. Aitak bereganatu egiten ditu Jose Ramonek eta Antoniok izan zitzaketen beldur eta nahiak:

Errurik gabe iltzera guaz,
 aita ta anaia maiteak,
 gazte gerala utzi bearra
 dana naigabez beteak;
 gure odolak garbi dirala
 egin ditugun kalteak,
 Agur, ez digu kalte egingo
 garbi gerala joateak.

Agur betiko, osaba izeba
 eta lengusu kutunak,
 agur biotzez adiskide ta
 maite nitun ezagunak!
 Uste gabean bukatu dira
 Nere munduko egunak,
 emengo partez orain zeruan
 egingo ditut lagunak.

Agur, Juan Joxe ta Saturnino,
 Joakin eta Xalbador,
 Juan Kruz, Manuel ta Joxe Mari,
 geratzen zaretenak or;

Ez gorrotorik izan inori,
 izan alkarrekin lagun;
 izan zazute beti euskotar
 eta benetan euskaldun;

ate ondoan dira etsaiak,
gure ordua badator;
gutzaz biotzez maitakor.

eliza maite, kristau bezala
bide zuzenetik jardun,
orain berexten geranok berriz
alkar ikusi dezagun.

(Zapirain, 1979: 234-235)

Infernu batetik beste okerrago batera.

Eguberri egunean, Ondarretako harresietatik atera eta San Kristobaleko espetxera eraman zituzten Juan Jose eta Salvador, Nafarroako hiriburutik kilometro gutxira, Han zeuden guztiek 100 metro luze eta 20 metro zabal inguruko patio mehar bakarra zuten. Presoen eguneroko bizimodua patio horren inguruan iragaten zen. Espazio ireki bakarra izateaz gain, presoen pilaketa espazio itogarria ere bazen.

Salvadorrek Ezkaba mendiko espetxeari infernua deitu zion, “nik San Kristobal’i inpernu txiki baten antza artu izan ziot” (Zapirain 1985: 81). Presondegiak infernuaren antza hartu zuen presoen begietan eta frankismoaren sarraskien ikurra beste guztion begien aurrean. Presoen sufrimenduaren mingostasuna agertzeko, itxaropenik gabeko leku hori izendatzeko, basakeriaren eredia adierazteko, Dante Alighieriren Divina Commedia poema aipatzen du Salvadorrek. Horregatik, literaturaren lerro ospetsuak ekartzen dizkigu Zapirainek gogora, hain zuzen, “Lasciate ogne speranza, voi ch’intrate” direlako hitzak, Danteren infernuko atean irakurtzen zirenak (Zapirain 1985: 49).

Hablen en Cristiano!

Joxe Zapirainek jakin zuenean semeak Ondarretatik eramanak izan zirela, okerrera pentsatu zuen, horregatik San Kristobalera joatea erabaki zuen. Auzoko bizilagun baten bitartez, Nafarroara joateko baimena lortu zuen, eta Donostiako iloba batek lagundu zion San Kristobal gotorlekurako bidaian. Baimenak gora eta behera, urteberri egunean joan zen Joxe Iruñera. Mintzaleku zikin eta txikian, San Kristobalerainoko bidaia azaldu zion Salvadorrek aitari, eta

bihozminez kontatu zion nola fusilatu zituzten Antonio eta Jose Ramon.

Emozioz beteriko solasaldian zeudela, zaintzaile batek isilarazteko agindu zien. Espetxe barnean ezin zuten erabili “euskaldunen hizkuntza zikin hori”, Iloba ongi moldatzen zen gaztelaniaz eta Salbadorrekin batera aritu zen kontu kontari.

Salbadorrek bertsoekiko zaletasunarekin jarraitu zuen eta etxekoei azaltzen zien bertsoen bidez espetxeko eguneroko bizimodua. Eguberri tristeak izeneko bertso sortan. Bertsoen bidez espetxeko pasarteak eta bizimoduak kontatu zizkien berriro.

Gabonak, urte guzian ez da
ospatzen alako jairik.
Bazkari on bat agindu zigun
anayak gu poztu nairik
goiz, Ondarretan atean jota
etzun arkitu anairik
trenean pasa gendun eguna
gose paseak, baraurik.

Oraindik illun atera giñan
nora ez jakin, goizean
gure lagunak triste utzirik
Donostiko espetxean

illuntzerako otzak dardaraz
San Kristobalko leizean
gabon tristeak ziran guretzat
ez goxogoak etxean....

...An gabiltzala turuta otsa
ortxe amaikak aldera
kaja zatar bat bizkar gañean
lau gizon pausoz batera
Illa zekarten denon aurretik
eraman zuten atera
lotuta zegon lekutik joan zan
bere askatasunera.

(Bertso 1994: 55)

Gerraosteko giroa.

Beharbada, horrexegatik erabili zuen Salbadorrek “inpernu” metafora. Behin baino gehiagotan agertzen da metafora hori espetxe zein kaleko giro itogarria azaltzeko.

Sonatua izan zen apaiz haren sermoi bat, Altzako historian geratu den sermoia. Indar nazionalak Bilbora sartu zirenean meza ospatu zuen

parrokoak, eta sermoian esan zuen txerrien odolak euskaldunenak baino askoz balio handiagoa zuela. Txerrien odola odolkiak egiteko erabil zezaketela, Bilbon hildako euskaldunen odola, ordea, ezta hestekiak egiteko, ez eta simaurtzarako ere. Amiano jaunak sermoia euskara dotorean agin zuen.

Joxe Zapirain ez zen libratzen parrokoaren irainez; behin baino gehiagotan, Joxe izaten zen apaiz haren hizketa-gaia. Hura zen semeen heriotzaren arduraduna.

Altzako parrokoak oso azkar ahaztu zuen nazionalistek eman zioten babesa. Amianoren atzetik talde anarkista bat zebilen, eta altzatar batzuek babesa eskaini zioten, Altzako jeltzaleak haien artean. Gau batean, parrokoaren etxea anarkistaz inguraturik zegoela, Felix Amianok jeltzaleen laguntzari esker egin zuen ihes. Laguntzaileen artean Joxeren seme zaharrena zegoen.

Lanik eta ilusiorik gabe, fraideekin bake apurra lortuko zuelakoan, Salvador kaputxinoekin joan eta komentuan sartu zen. Han, *ora et labora*, baratza lantzen eta idazten igaro zituen urteak. Hala ere, fraide-etxean ere sumatu zuen erregimenaren itzala, ez zuen bere burua lasai ikusten. Fraideen komunitateko buruek pertsona arriskutsua zela uste zuten. Lagun gutxik ezagutzen zuten Salvadorren iragana, gutxi batzuekin hitz egin zezakeen espetxeko esperientziaz, edo familaren zorigaitzoez. Kide zehatzekin partekatu zituen espetxean bizi izandako zoritzarreko pasarteak.

Bertsoak: oroimena eta emozioaren gordailua.

Zapiraindarrak: gerra zibila eta bertsoak.

Zapirain-Ezeiza familiaren oroimen haragitua bi osagaien inguruan egituratzen da, eta honakoak dira: bertsotarako zaletasuna batetik eta gerrak utziriko oroitzapenak bestetik. Lehenengoa, senitartekoen bertsotarako eta bertsolaritzarekiko zaletasuna, tradizio familiarrari jarraituta, bidaide izan zuten bizitza osoan. Bigarrena, berriz, Espainiako gerra zibilak haiengan laga zituen oinatz odoltsu eta mingarriek bideratu zutena.

